

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1521

AGINDUA, 2014ko otsailaren 20koa, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Igogailuen Aldizkako Ikuskapenen Eskuliburuaren 6. edizioa onartzen duena.

1987tik aurrera, sail honek igogailuen aldizkako ikuskapenak egiten direnean bete behar diren baldintzak eta irizpideak zehaztu ditu, betiere ikuskapen guztiak egitea lor dadin eta instalazioek izan litzaketan akatsak zuzen daitezzen. Horrek guztiak aparatuen funtzionamenduan segurtasun-maila areagotzea du helburu.

Irizpide horiek guztiak «Aldizkako Ikuskapen Ofizialen Eskuliburuetan» ezarri dira. Eskuliburuaren 1. edizioa onartzen duen 1994ko uztailaren 13ko Ebazpenaren bitartez (1994-08-10eko EHAA) onartu ziren formalki lehenengo irizpideak. Dokumentu horretan jasotzen dira lehendabizi ikuskapenak egiteko irizpide tekniko berariazkoak.

Denbora pasa ahala, eskuliburu horri moldaketak gehitu zaizkio etengabeko bilakaera teknologikoari, segurtasun-premia berriei eta ikuskapen jarraituetan agerrarazitako beharrei erantzuteko. Eta hori zenbait ebazpenen bitartez egin da: 1998ko ekainaren 15ekoa, 2. edizioa (1998-07-06ko EHAA); 1999ko urriaren 1ekoa, 3. edizioa (1999-10-25eko EHAA), 2002ko uztailaren 15ekoa, 4. edizioa (2003-01-20ko eta 2003-10-15eko EHAA), eta 2005eko uztailaren 29koa, 5. edizioa (2006-02-28ko EHAA).

Urtarrilak 28ko 5/2014 Dekretuak (2014-02-12ko EHAA) igogailuen mantenurako eta aldizkako ikuskapena gauzatzeko prozedura berria ezartzen du, eta 2002ko ekainaren 7ko Aginduak (2002-08-29ko EHAA) ezartzen zuena ordezkatzeko du.

Dekretu horren 5. artikulua zehazten du ikuskapenak gauzatzeko direla onartuko den Aldizkako Ikuskapenen Eskuliburuak ezarriko dituen irizpideei jarraituz.

Aipatu dekretua aplikatzeko, aurreko eskuliburuetan jasotako irizpide teknikoak eguneratu eta egokitzeko eta, jasotzaileen arloari dagokionez, Autonomia Erkidegoan jarduten diren kontrol-erakundeen prozedurak bateratzeko, agindu honen bitartez onartzen den eskuliburu berri hau prestatu da.

Jasogailuak kontserbatzen dituzten enpresek eta kontrol-erakundeek (biak ere euren elkartearen bitartez ordezkatuak) egindako ekarpenak izan dira kontuan eskuliburu prestatzeko.

Aipatu 5/2014 Dekretuko azken xedapenatariko lehenengoan 5. artikuluko 3. puntuari buruz ezarritakoarekin bat etorritik, eta Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza proposaturik, honako hau:

EBAZTEN DUT:

1.— Igogailuen Aldizkako Ikuskapenen Eskuliburu onartzea, zeinaren edukia agindu honen eranskinean zehazten baita.

2.— Agindu honen bitartez onartzen den eskuliburu 6. edizioa izenarekin identifikatuko da.

3.– Eskuliburu hau urtarrilaren 28ko 5/2014 Dekretuak 5. artikuluan zehazten diren aldizkako ikuskapenei aplikatuko zaie.

4.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 20a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

IGOGAILUEN ALDIZKAKO IKUSKAPENEN ESKULIBURUA**6. edizioa (2014-02-20)****0.- SARRERA.**

Igogailuen ikuskapenak Industriako 21/1992 Legearen I. tituluaren (1992-07-23ko BOE) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako 8/2004 Legearen III. kapituluaren (2004-11-29ko EHAA, 7/2012 Legeak aldatua, 2012-04-30 EHAA) aipatzen diren segurtasun industrialaren hainbat araudi teknikoen aplikazioan kokatzen dira; araudi hauek, produktuen, ekipoen eta instalazioen –bakoitza bere aplikazio-eremuan– aldizkako ikuskapenak egin beharra ezartzen dute.

1981eko martxoaren 31ko Aginduko irizpideekin bat (1981-04-20), azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretu bidez (BOE, 1985-12-11) jasogailuen eta horiek mantentzeko araudia eta MIE-AEM-1 jarraibide tekniko osagarria (BOE, 1987-10-06) argitaratu ondoren hasi ziren kontrol-erakunde egiaztatuak lehenengo aldizkako ikuskapenak egiten.

Kontuan izanik arauzko xedapen horietan ez zirela jasotzen aldizkako ikuskapenen alderdi guztiak, aldizkako ikuskapenen arloetan parte hartzen duten agenteen jarduera-irizpideak finkatzea komenigarritzat jo zen, ikuskapen-irizpideak, erabili beharreko metodologia, detektatu daitezkeen akatsak eta euren sailkapena ahalik eta gehien batzearren. Hala, Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren 2/1988 eta 3/1991 Zirkularrak eta Igogailuen Aldizkako Ikuskapen Eskuliburuak (1994-07-13ko 1. edizioa, 1998-06-15eko 2. edizioa, 1999-10-05eko 3. edizioa eta 2002-07-15eko 4. edizioa) eman ziren.

Bestelako erregelamenduek (1952ko Erregelamendua eta aurreko xedapenak, 1966ko erregelamendua, 1987ko ITC MIE AEM-1) eta ezartzen joan diren instalazio zaharren segurtasun-egokitzapenei buruzko xedapenek eragindako instalazioetan ikuskapenak egiteko zailtasunak ere irizpide horiek ezartzeko beharrezana sortu zuten. Hala, 1981eko martxoaren 31ko Aginduak segurtasun-egokitzapenak ezarri zituen, autonomia erkidego honek eman dituen xedapenak bezalaxe: kabinako ateak instalatzeko 1987ko agindua, argiztapen-sistema eta larrialdiko alarma instalatzeko 1988ko agindua, 2 abiadurako makinak instalatzeko 1988koa edo sarbide-ateen eskailera-buruan solairu-adierazleak instalatzeko 1996koa. Geroago, aplikatu beharreko beste xedapen batzuk ezarri dira. Adibidez, kabinan larrialdietarako telefono-komunikazioa ezartzea edo 1999ko uztailetik aurrera igogailuetan CE marka jartzea eskatzen duen 95/16/EE zuzentarauaren transposizioa egiten duen Errege Dekretua eta orain dauden igogailuak egokitzeko beste xedapen batzuk, adibidez 57/2005 Errege Dekretua (2005-02-04ko BOE), Estatu kideei dauden igogailuen segurtasuna gehitzea eskatzen zien 1995eko ekainaren 8ko Europako Batzordeko Gomendiotik eratorritako segurtasun-egokitzapen berriak ezarri zituen.

Aurreko Eskuliburua aplikatu zenetik xedapen berri batzuk argitaratu dira. Horien artean nabarmen behar da makinak eta igogailuen zuzentarauak aldatzeko 2006/42/CE Zuzentarauaren transposizioa egiten duen 1644/2008 Errege Dekretua (2008-10-11ko BOE), igogailuen Erregelamendua aldatzen eta zerbitzuen Zuzentzura egokitzen duen 560/2010 Errege Dekretua (2010-05-22ko BOE) –dena dela, aldaketa horiek ez diete eragin aldizkako ikuskapenei–, eta igogailuei buruzko AEM-1 Jarraibide Tekniko Osagarri Berria onesten duen 88/2013 Errege dekretua (2013-02-22ko BOE).

Azken Errege Dekretu horrek igogailuen erregelamenduaren mende dauden aparatuen ikuskapenak nahiz «makinak» erregelamenduaren mende daudenenak (0,15 m/s-ko abiadura edo txikiagoa duten igogailuak) aurreikusten ditu. Halaber, aplikatu beharreko irizpide berriak txertatzen ditu, esate baterako akats larrien definizioa (berehalako arriskurik ekarri ez arren instalazioak huts eginez arriskutsua izan daitekeena edo instalazioa erabiltzeko ahalmena murriztu ahal duena), akats horiek kudeatzeko sistema berria (epe barruan zuzentzen ez badira, instalazioa geldiarazi), akatsen zuzenketa egiaztatzeko bigarren bisita egitea, edo ITC-BT-28 jarraibidearen lehia publikoaren irizpidea.

Gainera, aldaketa hauek egin dira 5. edizioarekin alderatuta:

1.– Testua eguneratu da, hainbat gauza txertatuz: 2013ko ITC AEM-1 jarraibidea aplikatzeko irizpide berriak, erreferentzia-arau berriak, 2 urtean behingo ikuskapenen aldizkakotasunaren irizpidearen argibidea, aplikazio informatiko berriarekin jarduteko irizpide berriak, akats larrien zuzenketa egiaztatzeko ikuskapenak, horrelako akatsen konponketa kudeatzeko modu berria. Gainera, erabili beharreko agiri batzuk eta besteak eguneratzen dira (A, C, D, E, F eta G eranskinak).

2.– UNE EN 81-1 eta 2:2001+A3.2010 arauak betetzeari buruzko egiaztapenak hasiko dira.

3.– Egiztapen berriak sartu dira:

- Solairuko sakagailuak (1.81 eta 1.82-A).
- Mugagailuaren zigilua (3.28-L).
- Nibelazio-doitasuna (B3an).
- Kabinako aireztapena (4.19-A).
- Plaka eta larrialdietarako telefono-zenbakia (akatsa: 4.48-A).
- Lasaiera: kabinaren eta barrunbearen artean, kabinaren eta kontrapisuaren artean, kontrapisuaren eta barrunbearen artean (4.71-O-L).
- Kabinako sakagailuen egoera (4.01-A).
- Gidarien eta kable-gidarien finkapenak (5.24-A-L).
- Makina-gelaren barruko dimentsioak (B3an-9.20-A)
- Igogailuek ez badute makina-gelarik, makinak gordetzeko guneak: Makinak baoaren barruan (S.11-A eta S.12-A); Laneko gunea kabinan edo sabaian, Katigatzea (S.21-A); Larrialdia eta entseguak (S.22-A); Ateak edo tranpolak (S.23-A); Kontrol-estazioa (S.24-L); Kabinaren sabaiko gune erabilgarria (S.25-L); Makinak hobian, Kabina geldiarazteko gailua (S.31-A); Kabinari eusteko gailua ez dago baotik kanpo (S.32-L); Lan-plataforma baoan (S.41-A); Lan-guneak baotik kanpo (S.51-A); Makinen armairua (S.61-A); Larrialdiko maniobretarako eta entseguetarako gailuak (S.71-A, S.72-A, S.73-L eta S.74-A).

4.– Akats batzuk (8.17, 9.50, 9.51, 9.52, 9.53, 9.54, 9.56, 9.59, 9.01, 9.02, 9.03, 9.04, 9.05, 9.06, 9.07 eta 9.08) ezabatu dira eta horien kodeak lehendik zeuden batzuekin edo berriekin ordeztu dira, eta akats batzuk birkalifikatu dira 2013ko ITC AEM-1 jarraibide berriaren irizpideei egokitzeo.

Halaber, esan behar da Industria arloan eskumena duen Sailak aldizkako ikuskapen ofizial guztiak kudeatzeko erabiltzen duen aplikazio informatikoa (aurrerantzean «aplikazio informatikoa») birdiseinatu dela. Aplikazio horren bidez, enpresa kontserbatzaileek eta Egiaztatutako Kontrol Erakundeek igogailuen ezaugarrien eta ikuskapenen datu-baseetara sarrera ahalbidetzen da. Egiaztatutako Kontrol Erakundea hautatu ahal dute, baita ikuskapen-ziurtagiriak egin, akatsen zuzenketa egiaztatu, eta detektatutako akatsak zuzen daitezela lortzeko titularrei egindako jakinarazpenak kudeatu ere.

Kontrol-erakunde egiaztatuen (AEGIC eta ASORCO elkarteekoa) eta Euskadiko Igogailu-Enpresen Elkartearen (EIGEL) laguntzaz berraztertu da eskuliburuaren edizio hau.

1.– APLIKAZIOAREN EREMUA ETA HELBURUA.

Egiaztatutako Kontrol Erakundeentzako, enpresa kontserbatzaileentzako eta Industriako lurralde-bulegoentzako jarraibideak finkatzen dira eskuliburuan, eta baita 2013ko ITC AEM-1 jarraibidearen barruan ageri diren igogailuen aldizkako ikuskapenetan ikuskatu beharreko elementuak eta baldintzak ere, ikuskapena egiten duen erakundea edo ikuskatzailea edozein delarik ere, irizpide tekniko berberak erabiliz egin daitezela ikuskapen guztiak.

Aldizkako ikuskapenaren bitartez instalazioaren egoera eta segurtasun-baldintzak egiaztatzen dira. Igogailuaren elementu guztiak ikuskatu beharko dira, segurtasun-ezaugarriei erreparatuz eta kontuan izanik honako hau: zerbitzu normaletan erabiltzen ez diren elementuak daudela, baina, funtzionamendu-egoera onean daudenentz jakiteko aztertu egin behar direla.

Industria Sailaren eskumen-eremuan indarrean diren segurtasun-araudi teknikoetan jasotako igogailu elektrikoan, hidraulikoan nahiz bestelako eragintza-modu batzuetako igogailuen (kremailera eta pinoia, torlojua, pneumatikoak, etab.) instalazio guztiei aplika dakieke eskuliburu hau.

Eskuliburu honetan begiesten diren igogailuak honako hauek dira:

- 1966ko Araudia baino lehenagoko aparatuak.
- 1966ko Araudia betetzen duten aparatuak.
- 1987ko ITC MIE AEM-1 betetzen duten aparatuak.
- 1644/2008 Errege Dekretuak aldatzen duen 1314/1997 Errege Dekretua (CE markarekin) betetzen duten aparatuak.
- 2013ko ITC AEM-1 jarraibideko abiadura txikiko ($v \leq 0,15$ m/s) aparatuak (makinei buruzko zuzentaraua).

Kasu bakoitzean aplikatu beharreko erregelamendua instalazioa egiteko unean indarrean dagoena izango da, betiere 1981-03-31ko aginduan, EAEn argitaratuta dauden Industria Saileko aginduetan (2.2 idatz-zatian aipatu dira) eta 57/2005 EDan aipatzen diren egokitzapenak eginda. Zati batean zaharberitutako igogailuen kasuan, kontuan hartu behar da zaharberritzeko unean indarrean dagoen erregelamendua (zaharberitutako edo ordeztutako elementuei dagokienez).

2.– ERREFERENTZIAK.

2.1.– Igogailuei buruzko xedapen orokorrak.

- Jasogailuei buruzko araudia. 1966ko ekainaren 30eko Agindua (1966-07-26ko eta 1966-09-20ko BOE).
- Jasogailu hidraulikoentzako baldintzak. 1974-07-30eko Agindua (1974-08-09ko BOE).
- 1966ko Araudia baino lehenagoko aparatuek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak eta Aldizkako Ikuskapen Orokorren arauak. 1987-03-31 Agindua (1981-04-20ko BOE).
- Jasogailu eta Manutentzio-gailuen Araudia. Azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretua (1985-12-11ko BOE).
- Igogailu elektrikoek eta hidraulikoek gaineko Jarraibide Tekniko Osagarria. 1987ko ITC MIE AEM-1 jarraibidea. 1987-09-23ko eta 1991-09-12ko Agindua (1987-10-06ko eta 1991-09-17ko BOE).
- CE markadun igogailuak 1314/1997 Errege Dekretua (1997-09-30eko BOE), igogailuei buruzko 95/16/EE zuzentarauaren transposizioa egiten duena.
- 57/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa (2005-02-04ko BOE), 95/16/EE Zuzentaria betetzen ez duten igogailuen segurtasuna gehitzeko manuei buruzkoa.
- Urriaren 10eko 1644/2008 Errege Dekretua (2008-10-11ko BOE), makinen eta igogailuen zuzentariak aldatzeko 2006/42/EE Zuzentariaren transposizioa egiten duena (1314/1997 Errege Dekretua aldatzen du).
- Maiatzaren 7ko 560/2010 Errege Dekretua (2010-05-22ko BOE), igogailuen Erregelamendua aldatzen eta zerbitzuetarako zuzentaria egokitzen duena (2006/123/EE zuzentaria, 17/2009 Legearen bidez txertatutakoa).
- Otsailaren 8ko 88/2013 Errege Dekretua, AEM 1 «Izogailuak» Jarraibide Tekniko Osagarria onesten duena (ITC AEM 1, 2013-02-22ko BOE).

2.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko xedapen espezifikoak.

- Kabinetan ateak eta argiztapenerako eta laguntza eskatzeko larrialdietako sistema autonomoa jartzeko obligazioa. 1987-03-09ko Agindua (1987-06-22ko EHAA).
- Bi abiadurako motorra instalatzeko eta makina-gelaren giltzak izango dituen kutxa hauskorra instalatzeko obligazioa. 1988-01-21eko Agindua (1988-01-20ko EHAA, kutxari dagokionez 2001-04-03ko Aginduaren bidez indargabetua).
- 1993-08-03ko Ebazpena, maiztasun-aldatzailearen bidez motorrak elikatzea onartzen duena (1993-09-29ko EHAA).
- 1988-03-15eko zirkularra, jada instalaturik dauden igogailuetan kutxa hauskorak eta larrialdietarako sistema autonomoa jartzeko obligazioari buruzkoa (2001-04-03ko Aginduaren bidez kutxari dagokionez indargabetua).
- 63/2006 Dekretua, martxoaren 14koa, industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzeko dena (2006-04-12ko EHAA).
- 1995-06-05eko Ebazpena, Industria, Energia eta Meategien Administrazioarako zuzendariarena, Jasogailu eta Manutentzio-gailuen Araudiko ITC MIE-AEM-1 jarraibide tekniko osagarria aurreikusten ez diren eta antzinako eraikinetan igogailuak jartzeko beharrezko diren preskripzio teknikoak onartzeko dena (1995-08-17ko EHAA).
- Solairu-adierazleak. 1996-11-21eko Agindua (1997-01-29ko EHAA) eta 1996-12-18ko Ebazpena (1997-02-03ko EHAA).

- Aldizkako ikuskapen ofizialen eskuliburua: 6. edizio hau.

Aurreko edizioak honako ebazpen hauen bidez onestu ziren: Lehen edizioa, 1994-07-13ko Ebazpena (1994-08-10eko EHAA); bigarren edizioa 1998ko ekainaren 15eko Ebazpena (1998-07-06ko EHAA); hirugarren edizioa, 1999ko urriaren 1eko Ebazpena (1999-10-25eko EHAA); laugarren edizioa, 2002-07-15eko Ebazpena (2003-01-20ko EHAA); Laugarren edizioa aldatzen duen 2003-09-03ko Ebazpena (2003-10-15eko EHAA); eta 5. edizioa 2005-07-29ko Ebazpena (2006-02-28ko EHAA).

- Igogailuaren liburu eta giltzei buruzko Agindua, 2001-04-03koa (2001-05-15eko EHAA). - Liburuaren eredua, 2002-07-15eko Ebazpena (2002-09-24ko EHAA).
- Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legea (1997-12-24ko EHAA).
- Irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onesten dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua (2000-06-12 EHAA). Industria eta Meategiak Administrazioaren 2002-07-08ko Jarraibidea, irisgarritasuna sustatzeko legea aplikatzeari buruzkoa.
- Azaroaren 12ko 8/2004 Legea (2004-11-29ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzkoa, apirilaren 23ko 7/2012 Legeak (2012-04-30eko EHAA) Legeak aldatua.
- 229/2012 Dekretua, urriaren 30ekoa, industria-instalazioak abian jartzeko prozedura sinplifikatzeko dena (2012-12-03 EHAA).
- 5/2014 Dekretua, urtarrilaren 28koa, Igogailuen mantentze-lanak egiteko prozedura eta aldizkako ikuskapenak egiteko prozedura ezartzen dituen (2014-02-12ko EHAA).

Orain arte, horiek 2002-06-07ko Aginduaren (2002-08-29ko EHAA) eta, Agindu horren I, II eta III eranskinak ikuskapenen helmenari, akatsen zerrendari eta ikuskapenaren bereizgarriari buruzkoak direnak, aldatzen dituen 2013-05-10eko Ebazpenaren (2013-05-27ko EHAA) bidez arautzen ziren.

2.3.– Erreferentzia diren arauak.

- UNE EN 81-1:1998 Igogailuak egiteko eta instalatzeko segurtasun-neurriak. 1. zatia: igogailu elektrikoak. - Arau hauen bidez aldatu da: UNE EN 81-1:2001, UNE EN 81-1:2001+A1:2006, UNE EN 81-1:2001+A2:2005 eta UNE EN 81-1:2001+A3:2010.
- UNE EN 81-2:1998 Igogailuak egiteko eta instalatzeko segurtasun-neurriak. 2. zatia: igogailu hidraulikoak. - Arau hauen bidez aldatu da: UNE EN 81-2:2001, UNE EN 81-2:2001+A1:2006, UNE EN 81-2:2001+A2:2005 eta UNE EN 81-2:2001+A3:2010.
- UNE EN 81-21:2010 Igogailuak egiteko eta instalatzeko segurtasun-neurriak - pertsonak eta kargak garraiatzeko igogailuak – 21. zatia: Lehendik dauden eraikinetan pertsonak eta kargak garraiatzeko igogailuak.
- UNE EN 81-28:2004 Igogailuak egiteko eta instalatzeko segurtasun-neurriak - pertsonak eta kargak garraiatzeko igogailuak – 28. zatia: Erabiltzaileak eta erabiltzaileak eta kargak garraiatzeko igogailuetako urrutiko alarmak. UNE-EN 81-1-2 arauaren 14.2.3 puntua.
- UNE EN 81-70:2004 Igogailuak egiteko eta instalatzeko segurtasun-neurriak – pertsonak eta kargak garraiatzeko igogailuetarako aplikazio partikularrak – 70. zatia: pertsonak garraiatzeko igogailuen irisgarritasuna, pertsona ezinduek kontuan hartuta.
- UNE EN ISO 13857:2008 Makinen segurtasuna. Segurtasun-tartea, goiko eta beheko gorputz-adarrekin gune arriskutsuetara ez heltzeko.
- UNE EN 81-41:2011 Igogailuak egiteko eta instalatzeko segurtasun-neurriak-pertsonak eta kargak garraiatzeko igogailuak-41. zatia: Mugikortasun mugatua daukaten pertsonentzako jasotze-plataformak.

2.4.– Bestelako xedapen orokor batzuk.

- Industriari buruzko 21/1992 Legea, uztailaren 16koa (1992-07-23ko BOE), 25/2009 legeak, abenduaren 22koak, aldatua (2009-12-23ko BOE).
- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazioen Prozedura Erkidearena (1992-11-27ko BOE), urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeaz aldatu zena (1999-01-14ko BOE).

- Industriaren kalitate eta segurtasunerako azpiegituren Araudiari buruzko 2200/1995 Errege Dekretua (1996-02-06ko BOE), 411/1997 Errege Dekretuaz aldatua (1997-04-26ko BOE).
- 312/2005 Errege Dekretua, eraikuntzako produktu eta elementuak suteen aurkako beren erreakzio- eta erresistentzia-propietateen arabera sailkatzea onartzen duena (2005-04-12ko BOE).

3.- DEFINIZIOAK.

Eskuliburu honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

- **Titularra:** instalazioaren jabea, edo hala badagokio, errentaria. Publikoa, jabekideen erkidegoa, industrialia edo pribatua izan daiteke.
- **Aldizkako ikuskapena:** segurtasunaren araudi teknikoan zehaztutako probak egiteko eta arauzko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, igogailu baten instalazioa ikuskatzea. Kontrol horren bitartez, arriskuak sortu ditzaketen zirkunstantziak detektatuz gain, ekidin ere egin daitezke.
- **Igogailuen segurtasunaren araudi teknikoa:** igogailuen instalazioek bete behar duten espezifikazio teknikoa, derrigorrezkoa dena (ikus 2. puntuan eragiten dien arauketa).
- **Enpresa kontserbatzailea:** instalazioa mantentzea eta kontserbatzea kontrataturik duen enpresa egiaztatua, eta, halaber, beharrezko segurtasun-baldintzak mantendu behar dituen.
- **Kontrol-erakundea (OCA):** Egiaztapen Erakunde Nazionalak (ENAC) jasogailuen arloan aldizkako ikuskapenak egiteko egiaztatutako erakundea.
- **Akatsa:** instalazioaren aldizkako ikuskapen ofizial batean detektaturiko hutsa, segurtasunaren araudia betetzen ez duena, edo kalteak eragin ditzakeen arriskua dena.
- **Kaltea:** pertsonei, animaliei eta gauzei eragindako galera.
- **Arriskua:** kaltea edo lesioa eragin dezakeen iturria.
- **Galzoria:** arrisku-egoera batean lesio bat edo osasunerako kalte bat gertatzeko probabilitatearen eta larritasunaren arteko konbinazioa.

4.- IKUSKAPENAK EGITEKO OBLIGAZIOA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko 8/2004 Legearen 9., 10. eta 12. artikuluen arabera, titularrek behar bezalako segurtasun-baldintzetan eduki behar dituzte instalazioak, eta segurtasunari buruzko legezko eta arauzko baldintzetara egokitu behar dute.

Jasotzeko eta Manutentzioko Aparatuen Erregelamenduaren 19. artikulua (2291/1985 ED.) eta 2013ko ITC MIE AEM jarraibidearen 11.1 idatz-zatian, igogailuen aldizkako ikuskapenak egiteko betebeharra jasotzen da.

2013ko ITC AEM-1 jarraibidearen 11. idatz-zatian eta VI. eranskinean igogailuen segurtasun-baldintza egokiak egiaztatzeko egin beharreko aldizkako ikuskapenetan kontuan hartu behar diren irizpideak azaltzen dira. Irizpide horiek eskuliburu honetan adierazitakoarekin osatu behar dira.

5.- IKUSKAPENEN ALDIZKAKOTASUNA.

2013ko ITC MIE AEM-1 jarraibide berriaren 11.2.1 puntuaren arabera, ikuskapenen aldizkakotasuna honako hau da:

- **2 urterik behin:** industria-eraikinetan eta konkurrentzia publikoko lekuetan instalatutako aparatuak.

Industria-erabilerako aparatuak, industriako edo zerbitzuetako enpresei dagozkienak, lantegietan, biltegietan, bulegoetan, etab.tan.

Konkurrentzia publikoko lekuak, Behe tentsioko erregelamendu elektroteknikoko ITC BT 28 jarraibidean identifikatutako lokalak dituzten erakinak dira, baldin eta igogailuek lokal horiei zerbitzua ematen badiete. Honako hauek dira:

- Edozein edukieratako lokalak dituzten eraikinak, ikuskizunen erabilerarako (zinemak, antzokiak, auditorioak, estadioak, kirol-pabiloiak, zezen-plazak, hipodromoak, jolas parkeak eta azoka iraunkorrak, jai-aretoak, diskotekak, ausazko jokoen eta jolas-jardueren aretoak), bileretarako (tenpluak, museoak, hitzaldi eta kongresu aretoak, kasinoak, hotelak, ostatuak, tabernak, kafetegiak, jatetxeak edo antzekoak, merkataritza-establezimenduen multzoetako guztientzako eremuak, aireportuak, bidaiarien geltokiak), osasun-erabileretakoak (ospitaleak, anbulatorioak eta sendategiak, adinekoen egoitzak eta haurtzaindegia), eta 5 ibilgailu baino gehiagotarako aparkaleku itxi eta estaliak, soilik aparkaleku gisa erabiltzekoak eta etxebizitzetatik independenteak.

- 50 pertsona baino gehiagorentzako okupazioko lokalak dituzten eraikinak (liburutegiak, ikastetxeak, mediku-kontsultategiak, merkataritza-establezimenduak, jendea egoten den bulegoak, ikasleen egoitzak, gimnasioak, erakusketa-aretoak, kultur zentroak, gizarte- eta kirol-klubak).

- **4 urtean behin:** hogeit etxebizitza baino gehiago edo lau solairu baino gehiagorentzako zerbitzua (lau gaireleku baino gehiago, igotzekoa barne) duten eraikinetan instalatutako aparatuak.

Atal horretan sartzen dira konkurrentzia publikoko instalazioak edo erabilera murriztuko industria-instalazioak, Industriako lurralde-bulegoak baimendutakoak.

- **6 urtean behin:** aurreko ataletan aurreikusi ez diren gainerako instalazioak.

6.- EGIAZTATUTAKO KONTROL-ERAKUNDEAK.

Jasogailuei eta manutentzio-gailuei buruzko Araudiaren 19. artikularen eta 2013ko ITC AEM-1 jarraibideko 11.1 atalaren arabera ikuskapenak egin ditzaketen erakundeak, egiaztatutako kontrol-erakundeak dira.

Nolanahi ere, Industriako arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzak egin ahal izango ditu ikuskapenak, hori xedatzen denean.

7.- IKUSKAPENAREN KOSTUA.

Ikuskapenaren kostua kontrol-erakundeak ezarri eta Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari jakinarazitakoa izango da.

8.- AKATSEN EBALUAZIOA.

Igogailuen aldirakako ikuskapenetan atzematen diren akatsak arrisku-mailaren arabera kalifikatuko dira, honako irizpide honi jarraiki:

- Akats **oso larria** (AO): akats oso larriak dira pertsona edo instalazioei kalte egiteko moduko berehalako galzori larria ekar dezaketenak.
Akats oso larriren bat atzematen bada, igogailua berehala gelditu behar da, eta ezin da martxan jarri akatsa konpondu arte.
- Akats **larria** (AL): akats larriak dira, batetik, pertsona eta gauzen segurtasuna berehalako arriskuan jartzen ez dutenak baina instalazioek huts egiten badute arriskuan jar dezaketenak eta, bestetik, instalazioak erabiltzeko aukera murrizten dutenak.
- Akats **arina** (AA): larritzat edo oso larritzat hartzen ez direnak.

9.- IKUSKAPENAK HARTZEN DITUENAK.

Igogailuen aldirian behingo ikuskapenak egiteko, honako elementu hauek begiratuko dira:

- 1.- Baora sartzeko atea eta horren katigamendu-gailuak.
- 2.- Esekidura-kableak eta lokailuak.
- 3.- Abiadura-mugagailua, kabinako jausgailua, bastidorea eta gidak.
- 4.- Kabina.
- 5.- Kontrapisua, kontrapisuaren gidak eta jausgailua.
- 6.- Kabinako motelgailuak eta kontrapisua.
- 7.- Aginteak eta bestelako segurtasun-gailuak.
- 8.- Baoa.
- 9.- Makinen eremua: makina-gela, polea-gela, traktore-multzoa eta maniobra-koadroa.
- 10.- Makina-gelarik ez duten igogailuak.

10.– AKATSAK KONPONTZEKO EPEAK.

Ikuskapenean atzematen diren akats guztiak ahalik eta azkarren zuzendu behar dira, beti ere, akats larriak ikuskapena egin eta 6 hilabeteko epean zuzendu beharko dira (88/2013 ED)ren 11.5.2.2 paragrafoa).

11.– ALDIZKAKO IKUSKAPENAREN AURRETIKO JARDUERAK.

11.1.– Titularrari jakinaraztea.

Ikuskapena egiteko epe-muga jakinarazi beharko diote titularrari enpresa kontserbatzaileek, gutxienez bi hilabeteko aurrerapenaz eta jakinarazpen horrekin batera A eranskinean jasotako dokumentua ere bidali beharko zaio, zeinetan honako hauek zehazten baitira: ikuskapena egiteko duen obligazioa, eragiten dion arauketa teknikoa, ikuskapenak egiteko erabiliko den prozedura, eta, ikuskapena ez egiteak edo akatsak ez konpontzeak ekar ditzakeen ondorioak. Horrekin batera joango da Autonomia Erkidegoan ikuskapenak egiten aritzen diren egiaztatutako kontrol-erakundearen zerrenda (zerrenda osoa Industria arloko eskumena duen Sailaren web gunean kontsultatu ahal da: «www.industria.ejgv.euskadi.net») Araudia, Industria atala, eta Kontrol-erakunde baimenduak dioen fitxa).

Enpresa kontserbatzailearen jakinarazpenean, ikuskapenerako epemugaz gain, kontrol-erakundeetako bat aukeratzeko betebeharra azaldu beharko da.

11.2.– Kontrol-erakundea hautatzea.

Jakinarazpena jaso ondoren, titularrak aukeratu egin dezake ikuskapena egingo duen kontrol-erakundea, eta enpresa kontserbatzaileari horren berri emango dio.

Enpresa kontserbatzaileak, ikuskapena zein Kontrol-erakundek egingo duen jakin ondoren, aplikazio informatikoan sartu beharko du, erakunde horrek igogailuaren ikuskapena egiteko beharrezkoak diren datu administratibo eta teknikoak eskuratu ahal izan ditzan.

Titularrak ikuskapena epearen barruan ez badu egiten, enpresa kontserbatzaileak Industria arloko eskumena duen lurralde-ordezkatzari jakinaraziko dio zirkunstantzia hori.

12.– IKUSKAPENA.

12.1.– Aldez aurretik kontuan hartu beharrekoak.

Kontrol-erakundeak ikuskapenaren eguna jakinarazi behar dio titularrari edo haren ordezkariari (administratzailea, etab.), idatziz edo agerrarazita gera daitekeen beste edozein modutan. Jakinarazpena egiteko C1 eranskinean azaltzen den eredia erabiliko da.

Kontrol-erakundeak, aplikazio informatikoaren bidez, igogailuaren datu teknikoak eskuratu beharko ditu (zama, geralekuak, ibilbidea, etab.), baita martxan jarri zen eguna edo azken zaharberritze edo ordezpenean egin zen data, aurreko ikuskapenaren ziurtagiriaren akatsak, akatsen zuzenketaren data, etab.

Ikuskapena hasi baino lehen, egiaztatutako kontrol-erakundeak –ahal izanez gero– titularrari edo interesdunari abisatu ahalko dio ikuskapena ikus dezan.

Ikuskapena burutzeko, kontrol-erakundeak enpresa kontserbatzailearen parte hartzea izan beharko du, hain zuzen ere, eskatutako probak eta egiaztapenak egitean beharreko manipulazioak egin ditzan.

Nolanahi ere, ikuskapena baldintza egokietan egin dadin, kontuan izan beharko dira beharreko segurtasun-neurriak, hirugarrenei egin ahal zaizkien eragozpenak ekidituz (adibidez, kartelak jarritz, eraginik izan dezaketenei ikuskapenen hasiera jakinaraziz, ...).

12.2.– Ikuskapena egitea.

Egiaztatutako kontrol-erakundeak B eranskineko Ikuskapen Metodoan zehaztutako proba eta egiaztapen guztiak egin beharko ditu (aplikatu behar zaion araudiari dagokion eranskin espezifikoan, B1, B2, B3 edo B4 eranskinetan azaltzen diren puntuei jarraituz).

12.3.– Ikuskapena egin izanaren gaineko bereizgarria ipintzea.

Ikuskapena egin dela agerian uztearren, eta emaitza aldekoa bada, hau da, akats larri edo oso larririk ez badago, kontrol-erakundeak kabinaren barruan eta beheko solairuko sarrerako atean agerian jarriko du 2014-01-28ko 5/2014 Dekretuaren VII. eranskinean adierazten den bereizgarria, Eskuliburu honen F eranskinean zehaztutakoa.

12.4. Oso akats larriak antzematen direnerako jardunbideak.

Kontrol-erakundeak akats oso larriren bat detektatzen badu, instalazioa geldiaraztea aginduko dio enpresa kontserbatzaileari. Hala ere, berehala neurri eraginkorrak hartu ahal izango dira ikuskapena dirauen artean arriskua ezeztatzeko edo aski murrizteko, eta ikuskapena bukatu ahal izateko.

Akats oso larriak daudela eta igogailuaren geldiarazpena berehala jakinarazi behar zaie titularrari, eta, ahalik eta lasterren, industria arloko eskudun den Lurralde Ordezkaritzari ere, C2 eranskinean zehaztutako modeloa erabiliz.

Industria arloko eskudun den Lurralde Ordezkaritzari jakinarazteko, ahal dela, posta elektronikoa erabiliko da (edo egokia den beste sistema bat). Enpresa kontserbatzailearen aldetik eta, hala badagokio, titularraren aldetik, ikuskapena ikusten zein pertsona egon ziren azaldu beharko da.

Industria arloko organo eskudunak instalazioa geldiarazi dela berretsi beharko du. Hala ere, aipatu den jakinarazpena aztertuta, ikusten bada hartutako neurriak atzemandako akats teknikoekin alderatuta proportziorik ez daukala, geldiarazpena etetea agindu ahal izango du; hala eginez gero, ikuskapenaren informazioa egokitu beharko da aplikazio informatikoan.

Kontrol-erakundeak, akats oso larriak konponduko dituen enpresari, beharrezkoa den informazio guztia eman beharko dio.

Akatsa zuzendu ondoren, enpresa kontserbatzaileak horren zuzenketa ziurtatu beharko du aplikazio informatikoan ahalik eta lasterren (informazio hori posta elektronikoz edo egokia den beste sistema baten bidez aurrera diezaioke Lurralde Ordezkaritzari). Zerbitzua ez da berriro hasiko kontrol-erakundeak geldiarazpena sorrazki zuen akatsa zuzendu dela egiaztatzen duen arte.

Industria arloko organo eskudunak zehazpen-espeditentea hasi ahal izango du, kontuan hartuta detektatutako akatsak edo titularrak, erabiltzaileak, enpresa kontserbatzaileak edo kontrol-erakundeak egindako jarduketak.

12.5.– Ikuskapenaren ziurtagiria.

Egiaztatutako kontrol-erakundeak, gehienez 15 eguneko epean, ikuskapenaren ziurtagiria elektronikoki egin beharko du, aplikazio informatikoaren barruan (edo aplikazioan sartu, fitxategiak XML bidez edo beste modu batean traspasatzeko modua ematen duen sistema informatiko propioa badu).

Kontrol-erakundeak ziurtagiria titularrari ahalik eta lasterren bidali beharko dio, nolanahi ere 15 egun baino lehenago paperean edo formatu elektronikoan, titularrarekin edo bere ordezkariarekin hala adosten badu.

Enpresa kontserbatzaileak ikuskapenaren ziurtagiria aplikazio informatikoan edukiko du.

Kontrol-erakundeak ikuskapenaren ziurtagiriak paperean edo formatu elektronikoan artxibatu beharko ditu eta Industria arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzaren eskura izan beharko ditu, Lurralde Ordezkaritza horrek edo Akreditazio Erakunde Nazionalak (ENAC) beharrezkotzat jotzen dituzten egiaztapenak egin ditzaten. Artxibo horiek 10 urteko epean egin beharko dira eskuragarri, ikuskapena egiten denetik aurrera zenbatuta.

D eranskinean zehaztutakoarekin bat etorriaz egin beharko da ikuskapen-akta, eta gutxienez honako informazio hau izan beharko du:

- Kontrol-erakundearen izena eta egiaztapen-zenbakia.
- Ziurtagiri-zk., jasotzeko aparatuen erregistro-zk. eta ikuskapenaren indarraldia.
- Ikuskatzailearen izena eta sinadura (eskuzkoa edo elektronikoa).
- Zein espezifikazio teknikorekin (barne prozedura) egiten den ikuskapena.
- Aparatuaren edo instalazioaren ezaugarriak.
- Akatsen identifikazioa eta deskribapena, Eskuliburu honen B eranskinaren arabera.
- Martxan jarri zenetik edo matxurengatik egon daitezkeen akats batzuen jatorria.
- Akatsen kalifikazioa eta zuzentzeko epea.

- Ikuskapenaren emaitzak.
- Ikuskapenean izan diren pertsonak (titularra, enpresa kontserbatzailearen teknikaria).
- Ikuskapenaren data eta hurrengo ikuskapenaren data.
- Interesgarritzat jotzen diren oharrak edo detektatutako akatsen argibideak. Aurreko ikuskapenean errepikatutako akatsak azalduko dira (adibidez, testu hau agertuko da: «XX.XX, XX.XX, ... akatsa(k) lehengo ikuskapenean azaldu zen(ziren)»).

G eranskinean ageri dira akatsen aipamenak eta deskribapen-testuak, baina ikuskatzaileak kasu bakoitzean testua egokitu behar du, deskribapena ikusi denaren errealitatearen arabera izan dadin.

Ikuskapen-ziurtagiriarekin batera, eranskin gisa, G eranskinean azalduko akats guztien zerrenda joango da.

Ikuskapen-ziurtagiria Industria arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzan aurkaratu ahal izango da, urtarilaren 28ko 5/2014 Dekretuak, Igogailuen mantentze-lanak egiteko prozedura eta aldizkako ikuskapenak egiteko prozedura ezartzen dituenak, 8.6 artikuluan ezartzen duenaren arabera.

12.6.– Kontrol-erakundeek ikuskapenen gaineko kontrola.

Industria arloan eskuduna den Lurralde Ordezkaritza kontrol-erakundeek egindako ikuskapenetan egon ahal izango da, ikuskapen horiek eskuliburu honetan ezarrita dagoenaren arabera egiten direla egiaztatzeko.

13.– IKUSKAPENAREN ONDORENGO JARDUERAK.

13.1.– Aldizkako ikuskapenen kontrola.

Industria arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzak aldizkako ikuskapenak kontrolatuko ditu, baita arauzko baldintzak bete daitezela ere bai, kontrol-erakundeek eta enpresa kontserbatzaileek emandako informazioaren bitartez, aplikazio informatikoa erabiliz.

Industria arloan eskumena duten Lurralde Ordezkaritzetako teknikariek, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak emandako xedapenen arabera, lehen egindako ikuskapenak egiaztatu ahal izango dituzte, egindako jarduketak kontrolatzeko.

Ikuskapen-ziurtagiriekin ados egon ezean, bidezkoa dena ebatzi beharko dute, eta interesdunari jakinaraziko zaio.

13.2.– Akatsen zuzenketa.

Aldizkako ikuskapenean antzemandako akatsak alaitan arinen konpondu beharko dira. Horretarako, instalazioaren titularrak enpresa kontserbatzaile batekin kontratatatu beharko du akatsen konponketa. Ondorio horietarako, enpresa kontserbatzaileak konponketaren aurrekontua bidali ahal izango dio titularrari.

Enpresa kontserbatzaileak akatsak zuzentzen amaitu duenean, zuzenketaren data aplikazio informatikoan sartuko du, eta zuzenketa-ziurtagiria egingo du, E eranskineko ereduaren arabera, eta titularrari jakinaraziko dio (zuzenketaren berme-epea bi urtekoa da, 2013ko ITC AEM-1 jarraibidearen 6.9.e. atalaren arabera), baita kontrol-erakundeari ere (aplikazio informatikoaren bidez).

oso larri gisa kalifikatutako akatsen bat badago, 12.4 puntuak dioenaren arabera jardungo da.

13.3.– Arauzko baldintzak betetzen direla egiaztatzea industria arloan eskumena duten Lurralde-ordezkaritzetan.

Instalazioak arauzko baldintzak betetzen dituela industria arloan eskumena duten Lurralde Ordezkaritzan egiaztatzeko, kontrol-erakundeek (ikuskapen-ziurtagirien bidez) eta enpresa kontserbatzaileek (zuzenketa-ziurtagirien bidez) aplikazio informatikoan emandako informazioa erabiliko da.

13.4.– Akats larriak zuzendu izana egiaztatzeko ikuskapena eta zuzendu ez izanagatik instalazioa geldiaraztea.

Akats larriak zuzendu direla egiaztatzeko, kontrol-erakundeak beste ikuskapen-bisita bat egin ahal izango du instalazioan, enpresa kontserbatzaileko langileekin.

Kontrol-erakundeak akats larri guztiak konpondu izanaren jakinarazpena jasotzen badu zuzentzeko 6 hilabeteko epea amaitu baino lehen, egiaztatzeko ikuskapena 30 egun naturaleko epean egin beharko da,

jakinarazpen hori egiten denetik aurrera zenbatuta. Aldez aurretik ez bada jakinarazi akats larri guztiak konpondu direnik, 6 hilabete igarotakoan, kontrol-erakundeak beste ikuskapen-bisita bat egingo du zuzendu direla egiaztatzeko; emaitza aurkakoa bada, akatsak oso larri gisa kalifikatuko dira, eta enpresa kontserbatzaileko langileei aparatua geldiarazteko aginduko die.

Kontrol-erakundeak titularrari eta enpresa kontserbatzaileari egiaztapenaren emaitzaren berri emango die, D2 eranskinean ageri den eredia erabiliz. Akats larriak ez zuzentzeagatik igogailua geldiarazten bada, zuzendu izana egiaztatu zein ez, kontrol-erakundeak inguruabar horren berri eman beharko dio berehala titularrari, eta ahalik eta lasterren, Industria arloarloan eskuduna Lurralde Ordezkaritzari, eredu berbera erabiliz. Kontrol-erakundeak egiaztapenaren data eta emaitza agerraraziko ditu aplikazio informatikoan.

13.5.– Isun hertsatzailea jartzeko ebazpena.

Emandako epeak gainditzen badira, eta instalazioak arauzko baldintzak betetzen dituela egiaztatu ez bada, isun hertsatzailea jarri ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legean ezarritakoaren arabera.

A.

A ERANSKINA**A. TITULARRARENTZAKO JAKINARAZPENA IKUSKAPENA EGIN DEZAN****IGOGAILUEN ALDIZKAKO IKUSKAPEN EGITEARI BURUZKO TITULARRARENTZAKO JAKINARAZPENA****Data:**

Gaia: Igogailuen aldizkako ikuskapena.

Dakizun bezala, arriskuak aurreikusteko eta igogailuak erabiltzearen ondorioz pertsona edo ondasunei kalteak sor dakizkien istripuen aurka babesteko helburuaz, igogailuen segurtasun baldintzen egiaztapenerako aldizkako ikuskapen egiteko derrigortasuna arautu da.

Arauzko betebeharra betetzea ahalbidetu dadin, zera adierazten zaizu: industriako eskumena duen sailak egiaztatutako Kontrol Erakunde batek zure igogailuaren ikuskapen ofizala egin behar duela, eta egungo enpresa mantentzaileak adierazitako datan. Egiaztatutako Kontrol Erakundeen zerrenda idatzi honekin batera duzu (honako webean kontsulta dezakezu «www.industria.ejgv.euskadi.net», Arauak-en, Industria sekzioan, eta Kontrol Erakundeen fitxan).

Ikuskapena koordinatu ahal izateko, zure kontserbatzaileari aukeratu duzun Kontrol Erakundea jakinarazi beharko diozu.

Ikuskapena Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasun Sailak emandako prozeduraren arabera egingo da. Ondoren, Egiaztatutako Kontrol Erakundeak ikuskapena egin dueneko pegatina jarriko du kabinan (ikuskapena onartuta ba da) eta sarrerako atean eta ikuskapen Akta igorriko dizu eta Industriako eskumena duen Lurralde Ordezkaritzari horren emaitzaren berri emango dio.

Dagokion epean ikuskapena ez egiteak espediente hertsatzailearen edo/eta zigortzailearen ezartzea ekar lezake erantsita, egon daitezken beste erantzukizunak alde batera utzita.

Ikuskapenean akatsak antzematen badira, titularrak horiek, esandako epea baino lehen, zuzentzeko enpresa mantentzailearekin konponketa lehenbailehen kontratatatu egin beharko du. Akatsak zuzendu ezean, igogailua geldiarazi daiteke.

Adeitasunez,

Industriako eskumena duen Lurralde Ordezkaritzako industria segurtasuneko Koordinatzailea.

Oharra: igogailuen ikuskapenak arautzen dituzten xedapenak Industria Legeko (8/2004 Legea, EHAA 2004-11-29) 7. artikulutik 14ra, Gailu Jasotzaileen Araudi Teknikoan (ED 2291/1985, BOE 1985-12-11), ITC AEM-1 an (ED 88/2013, BOE 2013-02-22) eta 5/2014 Dekretuan (EHAA 2014-02-12) xedatuta daude.

B ERANSKINA**IKUSKAPEN-METODOA**

1.– Ikuskatu beharreko elementuak, metodo eragilea eta akatsen sailkapena jasotzen dira eranskin honetan.

2.– Eranskina zati hauetan banatzen da:

- B1 eranskina: Aparatuen ikuskapena, 1996ko Araudiaren arabera eta aurretikoak.
- B2 eranskina: 1987ko ITC AEM-1 jarraibideko aparatuen ikuskapena.
- B3 eranskina: 1314/1997 EDko CE marka duten aparatuen ikuskapena.
- B4 eranskina: 88/2013 EDko abiadura txikiko aparatuen ikuskapena.

3.– Elementu hauek egiaztatu behar dira igogailuak ikuskatzerakoan:

- 1.– Baora sartzeko atea eta horren katigamendu-gailuak.
- 2.– Esekidura-kableak eta lokailuak.
- 3.– Abiadura-mugagailua, kabinako jaugailua, bastidorea eta gidak.
- 4.– Kabina.
- 5.– Kontrapisua, kontrapisuaren gidak eta jaugailua.
- 6.– Kabinako motelgailuak eta kontrapisua.
- 7.– Aginteak eta bestelako segurtasun-gailuak.
- 8.– Baoa.
- 9.– Makinen eremua: makina-gela, polea-gela, traktore-multzoa eta maniobra-koadroa.
- 10.– Makina-gelarik ez duten igogailuak.

4.– Akatsak errazago identifikatu ahal izateko, parentesien artean azaldu dira instalazio batzuei eta besteei aplikatu ahal zaizkien 1966ko Araudiko, 1987ko ITC MIE AEM-1 jarraibideko edo EN-81 arauko artikulak (arauaren atala igogailu elektrikoetarako edo hidraulikoetarako diferentea bada E edo H azalduko da) nahiz EN 81-41 arauari jarraituz instalatutakoei (B4 eranskina). Bestelako xedapen aplikagarriak ere adieraziko dira.

5.– Eranskinean, ikuskatu beharreko elementuen deskribapena eta dagozkien ikuskapen-irizpideak azalduko dira, eta G eranskineko akatsen zerrendako identifikazioa aipatuko da, bertan ageri baitira akatsak orokorrean laburtuta. Deskribapen hori luzatu ahal izango da dagokion oharrarekin. Adibidez: atea ez dira egokiak... (adibidez 2. eta 3. solairuetan).

6.– Akatsen kalifikazioa honela adierazten da:

- O:** Akats oso larriak
- L:** Akats larriak
- A:** Akats arinak

1966ko Araudiaz aurretiko aparatuei aplika ez dakizkiekeen akatsak * batez zehaztuko dira.

B1 ERANSKINA**1966KO ARAUDIAREN ARABERAKO APARATUEN ETA HORREN AURRETIKOEN IKUSKAPENA****B1.1.– BAORA SARTZEKO ATEAK ETA EUREN KATIGATZE-GAILUAK.****BAORA SARTZEKO ATEAK.**

Begiz ikuskatuko dira igogailuaren ibilbide osoa eta geraleku guztiak, dagoen ate-mota egiaztatu beharko da, baita bere funtzionamendu-sistema ere (zabukaria, eskuz lerratzekoa, erdi-automatikoa, automatikoa).

Dauden ate gutzietan honako puntu hauek ikuskatu beharko dira:

B1.1.1.– Ateen ezaugarriak.**a) Ate-motak (33., 34. eta 36. artikulua).**

1996ko Araudia bete behar duten baoaren sarrerako ateak badaude, eta araudi hori betetzen ez badute ate desegokitzen joko dira (metalikoak eta arima betezkoak izan beharko dute ateek eta horretaz gain arauzko dimentsioak eduki beharko dituzte).

- Egokiak ez diren ateak 1.11-L*
(arauzko neurriak ez badauzka ez da akats gisa sailkatuko, hauek badauzka: argi-seinaleak, inpaktuen aurkako babesa, argi nahikoa eta ohar-kartela).

1996ko Araudiaren aurreko aparatuetan ateak gutxienez honako hauek bete beharko dituzte:

– Bao itxietan:

- Arima betekoak eta erregaitzak izan beharko dute ateak 1.11-L

– Bao irekietan, ateak honako hauek bete beharko dituzte:

1,9 m-ko gutxieneko altuera izatea.

«Arriskugarritzat» jo daitezkeen irekigune edo zulorik ez edukitzea.

Irekiguneak eta zuloak «arriskugarritzat» joko dira goiko eta beheko gorputz-adarrekin gune arriskutsuetara ez heltzeko segurtasun-tarteari buruzko UNE EN ISO 13857 araua betetzen ez dutenak. Irekiguneak dituzten ateak onartzen dira, baldin eta gehienez 20 mm-ko argia duen sare metalikoa edo polikarbonatozko plaka bat badu.

Akastzat joko dira:

Ateek garaiera aski ez izatea:

- Altuera nahikoa ez bada 1.11-O-L
- Irekiguneak edo zuloak 1.12-O-A

b) Lasaierak edo tartekak (33. artikulua).

Ateak itxita daudela, ez du egon behar 6 mm-tik gorakoak diren lasaierarik edo tarterik ateen artean, edo, ateen eta markoen edo atalaseen artean.

- 6 mm-tik gorako eta 20 mm-ra arteko lasaierak badaude 1.13-A
- 20 mm-tik gorakoak badira. 1.13-O

c) Arropak katigatzeko arriskua (38. artikulua).

- Objektuak edo arropak ez katigatzeko moduan egon beharko dute eginak bisagrek, markoek eta ateek. Egiaztatu egin beharko da posibilitate hori 1.14-A

d) Zizailadura-arriskua (55. artikulua).

- Ate lerrakor automatikoen kanpoaldean ez dagoela 3 mm-tik gorako irtengune edo zirriturik egiaztatu beharko da, eta ertzak mugimenduaren noranzkoan alakatuak izan beharko dituzte 1.15-A

e) Tiratzaile enbutituak (10. II artikulua)

- Kabinako ate gabeko aparatuetan eskuzko ateak irekitzeko tiratzaile enbutituak badaude, tiratzailearen eragintza segurua dela egiaztatuko da (kabinaren mugimenduaren noranzkoan atzamarrak katigatu edo harrapatzeko posibilitaterik ez du egon behar) 1.16-A
- Kabinan atea duten aparatuek 1.16-A

f) Solairuen zenbakiak atean (109 IV artikulua).

- Kabina dabilela zenbakiak ikusi egin behar dira 1.17-A

B1.1.2.– Ateen egoera.**a) Ateen sendotasuna (35. artikulua).**

Alde bietariko edozein puntutan 300 N-ko indarra aplikatuz gero:

- Ez da sortu behar kabinaren ibilbidea hartuko duen deformaziorik 1.21-O
- Kabinan atea duten aparatuetan deformazio elastikoa 15 mm handiagoa da 1.21-L
- Kabinan aterik ez duten aparatuetan deformazio elastikoa 5 mm-tik gorakoa eta 15 mm-tik beherakoa da 1.21-A*

b) Ateen gidarien eta bisagren sendotasuna.

Topera heldu direla, zabaltzeko ahalegina eginez, ate eskuzkoak edo erdi-automatikoak beharturik, lasaierak eta higadurak ikusiko dira. Ate automatikoen kasuan, ateen sendotasunari dagokionez eranskin honetako 1.2.a puntuan adierazitako probak egingo dira.

- Lasaierak badaude baina ez dute eragozten funtzionamendu egokia 1.22-A
- Funtzionamendu egokia eragozten duten lasaierak daude 1.22-L

c) Ateen markoak hormari lotzea (34. eta 35. artikulua).

Edozein noranzkotan 300 N-ko indarra aplikatuaz markoei, markoak mugitzen diren ala ez egiaztatu beharko da:

- Mugimendua 5 mm-koa baino handiagoa bada 1.23-L
- Mugimendurik bada baina 5 mm-koa baino txikiagoa bada 1.23-A

d) Atea ixteko esfortzua eta ate automatikoen berririkiera sentsiblea (55 V.a artikulua).

- Ixtea eragozteko esfortzua ez da izango 150 N-tik gorakoa 1.24-A
- Trabaren batekin kontaktua egin ezkeren ateak automatikoki berririki behar dira 1.25-L

e) Oxidazioa.

- Bada oxidaziorik 1.27-A
- Materiala galarazten duen oxidazio handia dago, erresistentzia gutxituaz 1.27-L

f) Deformazioak.

- Ateetan, kolpeek eragindako deformazioak (batez ere aparatu industrialetan) dagoen egiaztatu beharko da, hain zuzen ere, lasaierak edo tarteak sortzen dituztenak (ikus eranskin honetako 1.1.b puntua), eta halaber, konpondu beharreko beste kalte batzuk 1.28-L

B1.1.3.– Kabinaren presentzia detektatzea (40. artikulua).**a) Argizko seinalearen bitartez.**

- Ez izatea edo ez funtzionatzea akastzat joko da (ate automatikoetan izan ezik) 1.31-A

b) Behatxulo garden eta zeharrargien bitartez.

Behatxuloen ezaugarriak egiaztatzea (materiala, finkapena, lasaierak eta kalteak).

Akastzat joko dira:

- Behatxuloan arriskugarriak kontsideratzen diren zuloak (ikus eranskineko 1.1 puntua) egotea Akats Oso Larria izango da 1.32-O-A
- Pitzatutako beirak 1.33-A
- 6 mm-tik beherako lodiera duten beirak 1.34-A
- Behatxuloen zabalera ez da egokia. Goreneko zabalera 150 mm-koa da eta txikiena 60 mm-koa .. 1.35-A

Behatxuloen erresistentzia ez-egokia:

Behatxuloaren erdialdean barruko aldetik eta kanpoko aldetik 300 N-ko indarra aplikatuko da. Behatxuloak ez badio eusten, 1.32 edo 1.33 akatsa adierazi beharko da.

Onartu egingo da behatxuloaren materiala polikarbonatozkoa izatea (erresistentzia handia duelako eta erregaitza delako). Materialaren gaineko zalantzarik izanez gero, enpresa kontserbatzaileak ziurtapena egin lezake, baldin eta instalatutako plastikoa polikarbonatoa bada.

- Plastikoa baimenduen arteko legez ezin bada identifikatu edo instalatzailearen ziurtagiririk (polikarbonatozkoa izateari buruzkoa) ez bada, hori akats gisa adieraziko da 1.36-A
- Behatxuloak 80 mm-tik gorako zabalera badauka eta beheko ertzetik lurrerainoko distantzia 1 m-tik beherakoa bada, hori akatsa dela adieraziko da (salbu eta polikarbonatozkoa edo baimendutako beste plastiko batezkoa bada) 1.36-A

Behatxuloak gaizki finkatuta daude:

- Behatxuloaren materiala edo beirak mugitzea ezinezkoa izan behar da 1.37-A

c) Sarreretako argiztapena (39. artikulua).

- Argiztapen iraunkorrek huts eginda ere, kabinaren presentzia detektatzeko adinako argiztapen-sistema egongo da ateen inguruetan, kabinaren argiak huts egiten badu ere, zoruaren mailan 50 kux.ekoa gutxienez 1.38-A

ATEAK KATIGATZEKO GAILUAK (SARRAILAK).**B1.1.4.– Sarraileen ezaugarriak.****a) Arauzko sarrailek (41.etik 46.era bitartean).**

- Sarrailek, elektrikoki kontrolatutako katigatze mekanikoa dutela egiaztatu beharko da 1.41-L

b) Ateen itxiera kontrolatzeko gailua (41.etik 46.era bitartean).

- Kontaktua elektriko bikoitza izan behar da. Egokitasuna eta funtzionamendua egiaztatuko dira 1.42-L
- 60 V-tik gorako tentsioak erabili ezker, eskuekin kontaktu zuzenak ez egiteko moduan babesturik izan behako dira kontaktuak. Egungo sistema erabiltzen ez duten antzinako ateentzako bakarrik da puntu hau 1.43-L
- Ateetik tiratzean ez dute galduko kontaktua (kabina ez dagoelarik atea zabaltzen ahalegintzean igogailua gelditzea) 1.44-A

c) Larrialdietan giltza bereziaz deskatigatzea (44. artikulua).

- Giltza berezi batez deskatigatu ahal izan beharko dira ateak, giltza hori edozein eratakioa izan daiteke 1.45-L
- 1996ko Araudiko aparatu industrialetan onartu egiten dira hagatxoaz edo eragintza-kateaz deskatigatzeko ateak, eragintza-ertzean tapoia izan beharko dutenak (katea ez da egongo ikusteko moduan) 1.45-L
- Morroiloak giltza berezi batez irekiko dira. Morroiloetako bat ez badabil edo eragiteko koskak higatuta badaude 1.46-L

B1.1.5.– Sarraileen egoera.

Sarraila bakoitzean honako hauek egiaztatu beharko dira:

- Finkapena. Ez dute mugimendu batere izan beharko 1.51-L
 - Higaduraren eraginez hondatzea 1.52-L
 - Estalki egokiak jartzea 1.53-A
- (Jarri ezin diren lekuei dagokienez, kontaktu elektrikoaren eta mekanismoaren garbitasun-falta akastzat joko da)
- Kableak eta konexio elektrikoak 1.54-L
 - Masa-deribaziorako arriskua 1.54-L
 - Masa-hartunerik ez izatea 1.55-L

B1.1.6.– Sarraileen funtzionamendua.**a) Kabina ez dagoela, ateen bat irekitzea (41. artikulua).**

Igogailuaren funtzionamendua normala dela, ezinezkoa izango da solairuko sarbide-ate bat ere irekitzea, edo ateen orrietako bat ere, orri bat baino gehiago edukiz gero.

- Baten batek huts egiten badu 1.61-O

Egiaztapena honako hauetan egingo da:

Eskuzkoak edo erdi-automatikoak diren ateeetan, irekieraren noranzkoan 300 N-ko indarraz tira egingez.

Ate automatikoetan, atea indar baliokideaz irekitzen ahaleginduaz.

(Ateen batek huts egiten badu, ate hori itxita utzi daiteke, ezin daitekeela zabaltzea ziurtatuaz eta aparatua funtzionamenduan utziaz).

Igogailu hidraulikoetan, kabinak arrastatutako solairuko ateak badaude, egon behar da, bai solairuko atea automatikoki itxiko dela ziurtatuko duen gailu bat (malgukia edo pisua)-ate hori edozein arrazoiengatik irekita badago eta kabina katigatze-gunean ez badago (baliteke hori gertatzea kabina noraezean ibiltzeagatik)-, bai kabina beheko solairura birbidaltzeko gailua bat.

- Ez dago birbidaltze-gailurik edo itxiera automatikoko gailurik 1.61-O

b) Sarraillaren funtzionamendua.

Honako proba hauek egingo dira:

- Normala ez den maniobra bakarraz funtzionatzeko posibilitatea (ate zabukarietan)..... 1.62-L
- Atearen itxieraren kontrol-kontaktu bikoitzean zubia eginez, morroiloak irten eta gero aparatua ez dabilela egiaztatzea.
- Ateak zabalik direla funtzionatzeko posibilitatea 1.62-O
- Bao irekietan, baoaren kanpoaldetik eskuaz sarraillara iristeko posibilitatea. Ez eskailburutik ez eskaileretatik posibilitate hori ez dagoela egiaztatzea 1.63-O
- Kabina ez dagoela, zulora sartzeko atea ixteko posibilitatea. (15 III art.). - Sarrailla aldatzeko posibilitaterik ez badago, stop etengailu bat jarriko da zuloan..... 1.64-A
- Sarrailla deskatigatzeko aldea (41 II artikulua) 1.65-A

c) Sarrerako ateetan giltzadun sarraillak izatea (47. artikulua).

- Sarrailladun elkarren osteko ateak badaude, giltzaz eragitekoak direnak, egiaztatu beharko da ezin dela igogailua martxan jarri kameratxoaren aldetik giltza sarraillara sartuaz 1.66-A

B1.1.7.– Solairu-adierazleak (1996-11-21eko Agindua).

- Erabilera publikoko igogailuetan edo ordeztuetan –martxan 1997-07-01etik aurrera jarritakoetan– solairua adieraztekoak egotea 1.71-A

B1.1.8.– Solairuko sakagailuak.

- Sakagailuak egoera txarrean badaude 1.81-A

B1.1.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 1.00

B1.2.– ESEKIDURA-KABLEAK ETA LOKAILUAK (63tik 70erako artikulua).

ITC AEM 1 berria indarrean jarri ondoren zati batean zaharberritutako igogailuetan, kable txirikordatu tradizionalen ordeztuak beste esekidura-sistema batzuk izan daitezke (adibidez, zintak, kable estaliak, kable bereziak, etab.). Kasu horretan, elementu horiek fabrikatzaileak ezarritako zehaztapenen arabera egiaztatuko dira, eta egiaztatutako kontrol-erakundeak zehaztapen horiek eskura izan beharko ditu.

B1.2.1.– KABLEAK.**a) Kableen kontserbazio-egoera.**

– Itsaspen-igogailuetan:

Kableak poleatik pasatzeari dagokionez, makinaren gelan eta kabinaren sabaiatik, linterna batekin ikusizko ikuskapen bat egin beharko da, ibilbideko zenbait puntutan kordoietan izan litezkeen alanbreen apurketei erreparatuaz. Kontuz jokatuaz, egur zati bat edo antzeko zerbait kable guztien gainean jarriaz eta kabinako ibilbide osoa eginda, poleatik pasatzean kableek barruan edo kanpoaldean dituzten apurketak ikuskatzeko ahalegina egin beharko da.

Kordoi bat apurturik dagoenean, metro batean kordoi batena egiten duten alanbreak apurturik daudenean, edo oxidaturik, kanpoaldean higaturik edo deformaturik dagoenean, kablea «egoera txarrean» dagoela kontsideratuko da (UNE 58-111 arauarekin bat).

Kordoi apurtu baten balioa egiten ez duten alanbre apurtuak badaude, hori ez da joko akastzat.

Hauexek dira detektatu daitezkeen akatsak:

- Kableetarik baten kordoiaren bat apurtzea..... 2.11-O
- Alanbreak apurtzegatik, oxidaziotatik edo kanpoaldeko higaduragatik kableak egoera txarrean egotea, kabletarik % 34 edo hortik gora..... 2.12-O
- Kable guztien % 34 baino gutxiagori eragiten badie 2.12-L
- Arau orokor legeaz, kable guztiak aldatuaz eta polea aztertuz edo aldatuaz egin beharko da konponketa.
- Kableek plakarekin egiten duten marruskadura 2.13-L

– Igogailu hidraulikoetan (baldin eta badaude):

Kabinaren sabaitik egin beharko da ikuskapena, eta itsaspen-igogailuentzako zehaztutako berberak dira izan litezkeen akatsak.

b) Kableen luzera (17. artikulua).

- Kabina goreneko geralekuan delarik, kontrapisuaren behealdearen eta motelgailu hedatuen arteko distantzia 80 mm-tik gorakoa (160 mm-tik gorakoa hariikatze-danborra dutenetan) eta 300 mm-tik beherakoa izango da 2.14-A

c) Kableen tentsioak orekatzea (70. artikulua).

Kableen arteko tentsioak antzekoak izan beharko dira eta orekatuta egon beharko dira.

Kabinaren gainean egiaztatutako da, ibilbidea tarteko posizio batean jarritz.

Kableen tentsioa berdintzeko gailua muturretako batean behintzat dagoela egiaztatuko da, eta beti konpresioan jardun beharko du malgukien kasuan.

Katigatze elektrikoa egon beharko da beti, kableak modu diferentean luzatzen direnean igogailua geldiaraziz funtzionatuko duena. Eskuz manipulatzat egiaztatuko da funtzionatzen duela.

Aparatuak orekatze-sistema bat izan beharko du (malguki konprimatuak dituen edo aparatu zaharretan balantzak).

- Kable biren bitartez badago esekita kabina eta ez badu orekatze-sistemarik 2.15-A*
- Hiru kable edo gehiagoren bitartez badago esekita kabina eta ez badu sistemarik 2.15-A*
- Sistema egoera txarrean (malgukiak,...) 2.15-A*

d) Kableen lasaieraren aurkako segurtasun-kontaktua (70. artikulua).

- Segurtasun-kontaktua dagoela egiaztatu beharko da 2.16-L*
- Segurtasun-kontaktuak maniobra eten behar du 2.17-L*

B1.2.2.– KABLEEN LOKAILUAK (71. II artikulua).**a) Lokailu-motak.**

Besarkaderak bakarrik dituen kabinatiko edo kontrapisutiko lokailurik ez da onartuko. (Tinkatze automatikoa egiten duten falka-lokailuetan, nahikoa da ertz librean euste-grapa bat edo besarkadera bat izatea).

- Kableen lokailuak, kabinatikoak, arauzkoak ez direnak 2.21-L
- Kableen lokailuak, kontrapisutikoak, arauzkoak ez direnak 2.22-L

b) Kabinatiko lokailuen egoera.

Kabinarako eta kontrapisurako lokailuen egoera egiaztatuko da, edo igogailu hidraulikoetan, lokailu finkoak, arauen arabera ezaugarriak eta bereziki estuerak, azkoinak kontraazkoinak eta larakoak.

Halakoak ezin dira faltatu, eta ezin dira hondatuta edo gaizki finkatuta egon.

Falka bidezko lokailuen kasuan, kargarik gabeko hari solteak behar bezala finkatuta egon beharko dira

- Apurtze dagoela edo pitzadura handiak dituela ikusten bada 2.24-O
- Pitzadura txikiak, korrosioa koskadurekin etab. 2.24-L
- Lokailu tolestuak 2.24-L
- Lokailu bakoitzeko malguki-zirrindola bat edo hegats-larakodun azkoin bat edo malguki-zirrindoladun azkoin bi (azkoina eta kontra-azkoina) daudela egiaztatuko da, edo, halaber, biraketaren kontrako bi azkoin (larakoa falta bada AA izango da) 2.23-L-A

c) Kontrapisutiko lokailuen egoera.

- Goragoko b (2.23) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.25-L-A
- Goragoko b (2.24) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.26-O-L

d) Esekitze berezietan, plakatiko lokailuen egoera.

- Goragoko b (2.23) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.27-L-A
- Goragoko b (2.24) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.28-O-L

e) Igogailu hidraulikoetan lokailuen egoera (pistoien behealdean).

- Goragoko b idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak.

f) Lokailuen malgukiak edo tako elastikoak.

- Haien egoera egiaztatuko da 2.29-A

B1.2.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 2.00

B1.3.– ABIADURA-MUGAGAILUA, KABINA-JAUSGAILUA, BASTIDOREA ETA GIDARIAK.**ABIADURA-MUGAGAILUA (74.etik 78.era bitartean).**

Abiadura-mugagailua ikuskatu beharko da, kabinako jausgailu-sistemari eragiten duela, eta ezaugarrien plaka agerian duela.

B1.3.1.– Mugagailurainoko sarbidea.

Aparatua azken geralekuan delarik, kabinako sabaitik mugagailuaren goialderako gehieneko distantzia 1,5 m-koa izango da.

- Mugagailura iristeko modurik ez badago 3.11-L
- Mugagailuaren elementu guztietara (erregulazio-mekanismoak, kontaktuak eta abar) iristeko modurik izan behar da, eta horretaz gain, ikuskapenak eta mantenimendua egiteko espazio librea izan beharko dute euren inguruan 3.13-L
- Mugagailua makinen gelan badago eta kontrolik gabeko eragintza-, kolpe- edo harrapaketa-arriskurik izan baliteke, babesgailu bat izan beharko du. Babesgailuak erraz desmuntatzekoa izan beharko du 3.14-A

B1.3.2.– Mugagailuaren egoera.**a) Lasaierak, higadurak eta malgukiak.**

- Jausgailuaren eragintza-kablea erretirata, mugagailua eskuz mugituaz eta ondokoak egiaztatuz egingo da ikusizko ikuskapena: lasaierak, higadurak eta malguki deformatuak edo apurtuak, kontaktu elektrikoaren egoera (badaude) eta poleako eztarriaren higadura 3.21-L

b) Funtzionamendu-proba.

Funtzionamenduaren proba egingo da; hori honela egin ahal izango da:

Behin mugagailuko polearen kablea erretiratu ostean (aske mugitu ahal dadin), takometro bat lotuko diogu.

Abiadura erregulagarriaren zulagailu edo beste sistema bat erabiliz, igogailuaren abiadura nominalera helaraziko dugu polea, eta apur-apurka gehituko da abiadura harik eta mugagailua blokeatu arte.

Ondoren mugagailuaren desarra edo blokeoa gertatzen deneko abiadura irakurriko da, eta abiadura hori 74. artikuluan zehaztutako mugetan sartzen dela egiaztatuko da.

Gutxienez bi aldiz egingo da proba, lortutako balioak onartutako mugen barruan direla egiaztatuz.

Lortutako balioen bat mugetatik kanpokoa bada, proba beste bitan egingo da, eta onartzeko moduko batez besteko balioak lortu beharko dira.

Kontrapisuan mugagailua badago, proba modu berean egingo da.

Mugagailuak kabinaren igoerako noranzkoan ere jardun behar duenean, noranzko horretan ere egiaztatuko da.

Mugagailuek probarako poleak badauzkate, nahikoa izango da kablea polea horretan sartzea eta funtzionamendua egiaztatzea. Kasu horretan, aldi berean jausgailuaren proba egin ahal izango da eta segurtasuneko gailu elektrikoak egiaztatu ahal izango dira.

Mugagailuaren segurtasun-gailu elektrikoak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu beharko da (Gorako noranzkoan ere; 1966ko Araudiaren arabera instalatutako igogailuetan, nahitaezkoa izango da abiadura biko edo korrante zuzeneko igogailuen kasuan soilik). Motorren funtzionamendua blokeatzen duela eta galgari eragiten diola egiaztatuko da (igogailu elektrikoak).

Oharra: metodologia hori aplikatu ezin deneko igogailuetan, mantentzaileak emandako jarraibide eta bitartekoak eskura izango dira egokiak diren egiaztapenak egiteko.

- Baimendutako abiadura gorenak % 25etik gora gainditzea jarduera-abiadura 3.22-O
- Baimendutako abiadura gorena % 25etik gora ez gainditzea jarduera-abiadurak 3.22-L

c) Mugagailuaren jardueraren kontrol elektrikoa (77. artikulua).

Gailu hau jausgailu-sisteman edo abiadura mugagailuan egon daiteke (bietan ez da derrigorrezkoa).

- Kontrol elektrikoaren funtzionamendua egiaztatuko da 3.23-L
- Kabinaren igoerako noranzkoan jardun behar duenean, egiaztatu egingo da mugagailuaren kontrol elektrikoa.

(Motorra korrante zuzeneko bada edo motorra galgatzeko erabiltzen bada, –Araudiko 78. artikulua– edo abiadura segundoko metro 1etik gorakoa bada) 3.24-L

- Mugagailuek erregistro-estalkiak badituzte, ipinita egon beharko dute 3.25-A

d) Ezaugarrien plaka.

- Ez badago edo ez badago agerian 3.26-A

B1.3.3.– Mugagailuaren kablea.**a) Mugagailuaren kablearen egoera.**

- 2.1.a puntuan zehazten den legez egiaztatuko da 3.31-O-L
- Kableak elementu batere ez duela ukitzen egiaztatuko da (egiturekin, makian gelako plakarekin eta abarrekin marruskadura) 3.32-L

b) Mugagailuaren kableen lokailuak jausgailu-sistemari.

- Lokailuen egoera ona egiaztatuko da (lokailu-sistema besarkaderaz egin daiteke) 3.33-L

c) Mugagailuaren kablearen tenkagailua.

- Mugagailuaren kablearen tenkatze-sistemaren egoera ona egiaztatuko da, kablea, luzatu arren, tenkatzen jarraitu dezakeela ere egiaztatuz 3.34-L
- Sistemako elementuen arteko marruskadurarik ez dagoela egiaztatuko da (kontrapisuarekiko, tenkagailuaren eta hormaren artean,...) 3.35-L

d) Mugagailuaren kablearen apurtzea edo lasaiera kontrolatzeko gailua (57/2005 ED).

- Gailurik badagoela egiaztatuko da 3.36-L
- Gailuak ondo funtzionatu behar du, maniobra etenez 3.37-L

B1.3.4.– KABINA-JAUSGAILUA (72. eta 73. artikulua).**a) Zirien, falka-kutxaren eta abarren finkapenaren egoera.**

- Linterna batekin eta elementuak ukituaz ikusizko egiaztapena egingo da 3.41-L

b) Funtzionamendu-proba.

Jausgailuak funtzionatzen duela eta kabinari eusten diola egiaztatuko da.

Proba hori honela egin ahal da:

Blokeoko punturaino eragin mugagailuari edo dagokion gailuari eskuz.

Igogailuari beherantz eragin, eskuz edo motorraz abiadura txikian, kabina geldi dagoela eta kableak trakzio-polean irristatzen direla egiaztatuz (edo hidraulikoetan lasai geratzen direla).

Kableak trakzio-polean ezin irristarazi arren, proba ontzat joko da.

Jausgailuaren segurtasun-gailu elektrikoak motorraren zirkuitu elektrikoa eten duela eta galgak funtzionatu duela egiaztatuko da.

Horretarako, dei bat egingo da, eta igogailua blokeatuta geratzen dela egiaztatuko da.

Falka guztiek funtzionatu dutela egiaztatuko da.

Oharra: Jasogailuen Araudiaren eta lehenagokoen arabera instalatutako igogailu elektrikoetarako edo zeharkako ekintzako igogailu hidraulikoetarako, gailu elektriko hori abiadura-mugagailua izan ahalko da (Jasogailuen Araudiaren 77. artikulua eta 1974-07-30eko Aginduaren 1.4 puntua).

- Jausgailua ez badabil. 3.42-O

c) Jausgailuaren jardueraren kontrol elektrikoa (77. artikulua).

- Jausgailuaren kontrol elektrikorik ez izatea 3.44-A
- Kontrol elektrikoak maniobra eten duela egiaztatu beharko da 3.45-A

d) Lasaierak.

- Kabina-jausgailuaren lasaierak egiaztatuko dira 3.47-L

B1.3.5.– KABINAREN BASTIDOREA (62. artikulua).**a) Egituraren sendotasuna loturetan (soldadurak, torlojuak, errematxeak).**

- Egitura begiz egiaztatu beharko da 3.51-L
- Apurtzeaz badago 3.51-O

b) Oxidazioak.

- Oxidaziorik badago 3.52-A
- Korrosioa material galerarekin badago 3.52-L

c) Deformazioak.

- Deformaziorik dagoen ala ez egiaztatuko da 3.53- A

d) Errodegailuak eta irrista-guneak

- Haien egoera egiaztatuko da 3.54-L-A

B1.3.6.– KABINAREN GIDARIAK ETA EUREN FINKAPENAK (79. eta 80. artikulua).**a) Gidari-motak.**

T formako profila duten gidariez gain, zilindriko beteak, indartutako txapa bikoitzekoak eta aparatu zaharretan egurrezkoak onartzen dira, azken horiek baldin eta egoera onean badaude (mota horietako gidetan, egoera egiaztatuko da, igogailua abiadura normalean ikatuko da, eta marka edo azterna egiaztatuko da).

- Ez dira onartzen txapa bakuneko gidariak (nahiz eta egurrezko edo zementuzko betegarria eduki) eta zilindriko hutsak, zeren zurruntasun egokirik ez dutenez, ikadura dagoenean, erraz kaltetzen dira eta gidaria deformatzerakoan baliteke batzuetan falka pasatzea 3.61-L*

b) Gidarien egoera.

Baotik, eta ibilbide guztian, kabinaren gidarien arauzko ezaugarriak ikuskatuko dira, baita baoaren hormatiko edo paramentuetatik finkapenen egoera ere; oxidaziorik edo korrosiorik, deformaziorik, deslerrokatzerik dagoen, paralelismotik gehiegi desbideratuta dagoen edo funtzionamendu txarra edo istripuren bat eragin ahal duen akatsak dauden egiaztatuko da.

- Gidariak egoera onean direla egiaztatuko da 3.62-L

c) Gidarien finkapenak.

- Gidarien finkapenetan, hormatiko loturen egoera, finkapenen euren egoera eta gidarietatiko finkapenen lokailuaren eragina egiaztatu beharko dira 3.63-L

B1.3.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 3.00

B1.4.– KABINA (48.etik 58.era bitartean).**B1.4.1.– Kontserbazio-egoera orokorra.**

Kabinaren barrualdetik honako hauek egiaztatu beharko dira:

a) Zulo «arriskutsurik» egotea.

- «Arriskugarritzat» jo ahal diren irekiguneak eta zuloak dauden egiaztatuko da (ikus segurtasun distantziei buruzko UNE EN ISO 13857 araua, goiko eta beheko gorputz-adarrekin gune arriskutsuetara ez heltzeko segurtasun-tarteari buruzkoa) 4.11-O-A

b) Hormen erresistentzia.

Hormako paneletan 5 cm²-ko azaleran 300 N-ko indarra aplikatuaz, hormen erresistentzia egiaztatuko da.

- Deformazioa 15 mm-tik gorakoa den eta barrunbea, kontrapisua edo igogailuaren beste osagai batzuk jo ditzakeen 4.12-O

- Deformazioa 15 mm-tik gorakoa den baina barrunbea, kontrapisua edo igogailuaren beste osagai batzuk jo ezin dituen 4.12-L

- Egurrezko kabinetan kristalak erabiliz gero, babestuta egon beharko dira, kristalak apurtuz gero erabiltzaileek kalterik jasan ez dezaten (segurtasun-beirak edo babes-minzdun beirak izango dira) 4.13-A

c) Zoruaeren erresistentzia.

- Zorua metalezkoa dela egiaztatuko da 4.14-A*
- Zorua karga nominalari eutsi diezaiokeela egiaztatuko da 4.15-O-L

d) Zoruaeren egoera.

- Zorua eta bere estaldura egoera onean daudela egiaztatuko da (estaldurak ondo itsatsita daudela, eta ez dagoela estropezu egiteko arriskurik...) 4.16-A

e) Kabinaren estaldurak.

- Ez dira erabiliko erraz erretzen diren materialak. Hormak edo sabaiak, suaren aurkako M3-rainoko erresistentzia izango dute –gaur D-s3,d0 deitzen dena–, eraikuntzako produktuak beren erreakzio-propietate eta suarekiko erresistentziaren arabera sailkatzeari buruzko 312/2005 Errege Dekretuaren arabera (2005-04-02ko BOE) eta M2.–rainokoa – gaur C-s3,d0– zoruetarako 4.17-A

f) Geldialdi-doitasuna (1988-01-12ko Agindua).

2 abiadura edo maiztasun-aldatzailea duten aparatuetan soilik egiaztatuko da geldialdi-doitasuna.

- Kabinaren geldialdi-doitasuna ± 2 cm-tik gorakoa bada 4.18-L

g) Aireztapena.

Aireztapen-azalera bat egon beharko da kabinaren goiko zein beheko aldean, gutxienez kabinaren azaleraren % 0,5ekoa.

- Aireztapen nahikorik ez egotea 4.19- A

B1.4.2.– Argiztapena (60. artikulua).

- Argiztapenak etengabekoa izan behar du 4.21-A
 - Argiztapenak gutxienez 50 lux-ekoa izan behar du botoien parean (kabina hutsik badago 20 lux-ekoa izan daiteke) 4.22-A
- Larrialdietarako argiztapena:
- Birkarga egiteko elikadura automatikoa duen larrialdietarako ekipo bat izan beharko da, W 1eko lanpara gutxienez ordu batez elika dezakeena 4.23-A
 - Argiztapen normalaren elikadurak huts egiten bada edo eteten bada, larrialdietarako argiztapena automatikoki konektatuko da 4.24-A

B1.4.3.– Alarma, larrialdietako geldialdia, ateak irekitzeko posibilitatea eta norabide bikoitzeko komunikazioa.**a) Alarma (103. artikulua).**

– Laguntza eskatzeko gailu bat, erraz ikus daitekeena, dagoela egiaztatuko da. Gailu hori txirrin edo telefonoa izan daiteke, igogailuaren gaueko zerbitzuan ere funtzionatzen duena.

- Identifikatu gabe egotea edo kanpoaldea erreta izatea 4.31-L
- Laguntza eskatzeko gailuak ondo funtzionatu beharko du 4.32-L
- Gailuak funtzionatu egin beharko du larrialdietan. Korrontea deskonektatu ondoren funtzionatu egiten duela egiaztatuko da 4.33-L
- Txirrinaren edo alarma akustikoaren kasuan, nahiko ondo entzun beharko dira..... 4.34-L

Aparatuak nahitaezko norabide biko komunikazioa (edo gehigarria) badauka, entzun ezin denean Akats Arin gisa sailkatuko da (ikus hurrengo d atala).

b) Larrialdietako geldialdia (102.I artikulua).

- Ate gabeko kabinetan bakarrik izango da 4.35-A
- Bada, egoki funtzionatu beharko du:
- Kabina geldiarazi beharko du 4.36-L
- Behin jardun ostean, aparatua ezin izango da martxan jarri solairuetatik..... 4.37-L
- Identifikazioa:
- Sakagailu edo etengailuaren kolorea gorria izango da. Ez du kanpoaldea erreta izan beharko 4.38-A

c) Kabinaren atea zabaltzeko posibilitatea (56.III artikulua).

- Solairu baten nibeletik irekitzeko posibilitatea egiaztatuko da 4.39-L

d) Norabide bikoitzeko komunikazioa (57/2005 ED).

Igogailu publikoetan, bulegoetakoetan eta 5 etxebizitza baino gutxiagoko jabekideen erkidegoetakoetan, norabide bikoitzeko komunikazio-sistema bat izan beharko da.

Botoia hiru segundoz sakatuz gero, erreskate-zerbitzu batekiko komunikazioa ezarriko da (modelo batzuetan beharrezkoa izaten da aparatuan matxura bat izatea). Erreskate-zerbitzuak aparatua identifikatzeko ahalmena izan beharko du.

- Sistema ez badago, ez badu identifikatzen edo ez badabil 4.40-L

B1.4.4.– Errotuluak eta plakak (106.etik 112.era bitartean).

- Plaka RAE zenbakiarekin: Makinen gelan edo kabinaren barruan egon beharko da zenbakia ...4.41-4.42-A
- Gehienezko karga 4.43-A
- Pertsona-kopurua 4.44-A
- Ohartarazitako eta baimendutako erabiltzaileak: Ohartarazitako eta baimendutako erabiltzaileentzako bada aparatu bat, esandako hori adierazten duen errotulu edo plaka bat izan beharko du bai kabinaren barrualdean eta bai sarrerako ateetan 4.45-4.46-A
- Bistakoa ez bada norabide bikoitzeko komunikazio-sistemak funtzionatzen duela, jarraibideak egongo dira (telefono-aparatua badago ez dira beharrezkoak). Jarraibideak erraz ulertzeko modukoak izango dira 4.47-A
- Enpresa mantentzailearen identifikazioa eta larrialdietarako telefonoa agerrarazten dituen plaka edo eranskailua egon beharko da 4.48-A

B1.4.5.– Kabinaren ateak (54., 55., 56. eta 57. artikulua).**a) Izatea (54. artikulua).**

- Aparatu guztietako kabinek izan beharko dituzte ateak, salbu eta 54.I.b artikuluan zehaztutako kasuetan 4.51-O

b) Erresistentzia (55.IV artikulua).

- Itxitako atearen edozein puntutan, kabinaren barrualdetik 300 N-ko indarra aplikatuz gero, ezin daiteke izan deformaziorik ezta 15 mm-tik gorako deformazio elastikorik ere. 4.52-L

c) Gidariak (55.III artikulua).

- Horizontalean irristatzen diren ateen gidariak izan behar dituzte goialdean eta behealdean 4.53-A
- Behealdean gidari gabeko bus erako aterik badago, hori ez da joko akastzat baldin eta erresistentzia egokia badu (4.5.b puntuaren arabera).

d) Behatxuloak edo posizio-adierazlea (56.IV artikulua).

- Kabinaren barrualdetik behatxulotik begiratuaz solairuen zenbakiak ikusi beharko dira 4.54-A
 - Behatxuloak egokia izateaz gain, egoera onean egon beharko du, zulo edo pitzadurarik gabe 4.55-A
- 1966ko Araudia baino lehenagoko aparatuetan, egurrezko kabinetako kristalei dagokienez, eranskin honetako 4.1 puntuan zehaztutakoa izan beharko da kontuan.

e) Itxiera automatikodun atean harrapatua izateko arriskua (55.V artikulua).

- Kabinaren aldean, itxiera automatikodun ateen ezin dute izan 3 mm-tik gorako hutsunerik edo irtenunerik eta euren ertzak alakatuak izango dira 4.56-A
 - Ateak pertsonen kontra egin lezakeen kolpearen ondorioak ahalik eta txikiak izan daitezen, itxiera galarazteko behar den indarra ez da izango 150 N-tik gorakoa 4.57-A
 - Ateak berrikitzeko babes sentikorrek gailua 4.58-L
- Zelula fotoelektriko bidezkoa izan daiteke sistema, kontaktu bidezkoa, hurbiltasun-banda bidezkoa edo 3 segundoko tenporizazio bidezkoa.

f) Kabinako ateen itxiera kontrolatzea (56. artikulua).

- Ateen itxiera kontrolatzeko gailua dagoela eta behar bezala dabilela egiaztatuko da 4.59-L

B1.4.6.– Kabinaren sabaia (50., 54. eta 60. artikulua).**a) Erresistentzia (50.III artikulua).**

- Sabaiak, gainean bi pertsonaren pisua izan arren, deformaziorik gabe iraun beharko du 4.61-L

b) Korrante-hartunea (60. artikulua).

- Ez dago korrante-hartunerik 4.62-A

c) Baranda (57/2005 ED) (8.13.1.c).

Kabinaren sabaia ertzetik (alboak eta barrena) 30 cm baino harago badago baiko horma, barandak iraunkorrak izango dira eta erresistentzia aski izan beharko dute.

Barrunbearen neurrien arabera egokitzen jotzen bada, gidari, zilindro eta horrelako elementu finkoekiko tarteak neurtuko da (adibidez, 2:1 jaurtiketako igogailu hidraulikoetan edo motxila tipokoetan, neurri txikikoetan alegia). 30 cm-tik gorako sakonera duen 30 cm-tik gorako zabalerarik ez da emango.

Baranda jartzea mantentze-lanetarako arrisku edo eragozpen denean (kabina estuak edo leku falta), behar bezala adierazitako katigatzeko puntu batez ordezkatu ahal izango da –uztai edo antzeko zerbait–, segurtasun-uhala jartzeko; gainera, kabinaren sabaian arrisku-kartel bat jarri beharko da uhala erabiltzea derrigorrezkoa dela dioena. Jarraibide hauek makina-gelan ere jarriko dira.

- Ez badago (2005-08-04tik aurrerako lehen ikuskapenerako epea urtebetekoa izango da). 4.63-L
- Erresistentzia askirik ez badu 4.64-L

d) Laguntzatarako erregistroak edo tranpolak (58. artikulua).

Baldin badaude:

- Sarraila izan beharko dute eta kanpotik giltzarik gabe zabalduko dira, eta barrutik giltzarekin 4.65-A
- Segurtasunezko katigatze elektrikoa izan beharko dute. Funtzionamendua egiaztatu beharko da 4.66-A

B1.4.7.– Atal mugikor eta/edo finkoen arteko lasaiera (86, 87 eta 88. art.).**a) Kabinaren eta barrunbearen arteko lasaiera**

- Kabinako atearen eta barrunbearen arteko distantzia 150 mm-tik beherakoa izango da, eta sarrerako atearikiko distantzia 150 mm-tik beherakoa, edo bestela, kabinako atearik blokeo mekanikoa izango du (EN 81-1eko 7.7.3.1 eta 7.7.3.3 art.) 4.71-L*
- Kabinak barrunbea ukitzen badu. 4.71-O-L
- Kabinako zoruaren eta sarreraren arteko distantzia ez da izango 20 mm-tik gorakoa kabinako aterik ez duten igogailuetan, ezta 35 mm-tik gorakoa atearik dauzkaten igogailuetan 4.72-A*

b) Kabinaren eta kontrapisuaren arteko lasaiera.

- Kontrapisuaren eta kabinaren arteko distantzia 4.73-A*
- Kontrapisuaren gidari zurrunik badago, distantzia 50 mm-tik gorakoa izango da.
Kontrapisuko gidariak zurrunik ez badira, fitxen mugimendu okerrean kontuan izanik, 70 mm-koa izango da, gehi kontrapisuaren eta hurbileneko euskarriaren arteko distantziaren 1/200, kable-gidariak gidatzen dutenean.

c) Kontrapisuaren eta barrunbearen arteko lasaiera.

- Kontrapisutik barrunbera arteko distantzia 4.74-A*
- Gidari zurrunekin, gutxienez 30 mm. Zurrunik ez diren gidariekin, gutxienez 50 mm, gehi 1/200 kontrapisuaren eta hurbileneko euskarriaren arteko distantziaren 1/200, kable-gidariak gidatzen dutenean.

B1.4.8.– Salbamendu-sistemak (bao irekietan) (85. art.).

- Dauden ala ez egiaztatuko da 4.81-O
- Funtzionatzen duten ala ez egiaztatuko da: Alboko oztopo bat ipiniz gero, oztopo horretara ailegatu baino lehen gelditu beharko du kabinak 4.82-O

B1.4.9.– Bestelako xedapenak.**a) Hankak babestekoak (52. artikulua, 57/2005 ED).**

Kabina bere beheko topean jarrita, gutxienez 50 mm-ko lasaiera egon beharko da. Oin-babeslearen altuera ahalik eta handiena izango da, hobiaren sakonerarekin bateragarria bada. Hobi berri txiki kasuan, babes-sistema baliokidea izan beharko du, UNE EN 81-21 arauan edo baliokideetan ezarritako eskakizunak oinarri hartuta.

- Ez badago 4.90-L
- Luzera, inklinazioa edo behar adinako erresistentzia ez duela-eta egokia ez bada 4.91-L

b) Kabinaren atea obligaziozkoak ez direnean, baldintzak.

- Baimendutako eta ohartarazitako pertsonak bakarrik erabiltzeko giltza bat instalatu beharko da. Konektatu gabekoaren posizioan bakarrik deskatigatu ahal da aipatu giltza 4.92-L
 - Gailu fotoelektriko bat edo antzeko zerbait izango da, harrapatze-arriskuak saihesteko 4.93-L
 - Aterik gabeko kabinarako beste baldintza batzuk 4.94-L
- Abiadura nominala 0.63 m/s edo txikiagoa izan beharko da.
Kabinaren gutxienezko sakonera 1,5m-koa izango da.
Kabinako sakagailuak kabinarako sarbideetik 400 mm baino gehiagora egon beharko dira.
Kabinako stopa kabinarako sarbideetik 1 m baino gutxiagora egon beharko da.

c) Kabinaren azalera.

- Azalera arauzkoa dela egiaztatuko da 4.95-A

d) Alboko kabinetan, sorospenetarako atea.

Badaude, gutxienez honako hauek bete beharko dituzte:

- 4.6.d puntuan zehaztutakoa 4.96-4.97-A
- Kabinaren barrualderanzkoa izango da irekiera eta bere dimentsioak egokiak izango dira 4.98-A

e) Kabinako ispiluak.

- Kabinaren barrualdean ipinitako ispiluak ondo finkaturik izan beharko dira, ikaduretan erori ez daitezen edo apurtzen badira kristal zatiak erori ez daitezen 4.99-A

B1.4.0.– Beste batzuk.

- Sakagailuak egoera txarrean badaude 4.01-A
- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 4.00

B1.5.– KONTRAPISUAK, BERE GIDARIAK ETA JAUSGAILUAK.**B1.5.1.– Kontrapisua (13., 14. eta 61.II artikulua).**

- Pisuekin osatuak badira, bastidore baten bitartez edo tiranteen bitartez loturikoak izan beharko dira 5.11-L

a) Kontrapisuaren sendotasuna.

- Loturen eta egituraren sendotasuna egiaztatuko da 5.12-L

b) Irrista-guneak.

- Irrista-guneen egoera egiaztatu beharko da 5.13-L

c) Deformazioak.

- Deformaziorik dagoen ala ez egiaztatuko da 5.14-L

d) Fitxak.

- Kontrapisuko fitxak ezin daitezkeela erori egiaztatuko da 5.15-L
- Fitxen finkapen-elementuak badirela egiaztatuko da 5.16-A

B1.5.2.– Kontrapisuaren gidariak (79. eta 80. artikulua).

- Profil ijeztuzkoak edo altzairuzkoak eta beteak diren zilindrikoak edo U edo V erako xafla bakun tolestuzkoak (salbu eta kontrapisuak ikadura badauka) izango dira gidariak, gutxienez 8 mm-ko kablezkoak ere izan daitezke, hain justu ere barrunbeak 25 m-tik gorako garaiera ez badauka (79.2 artikulua) (ez dira onartuko hagatzokoak) 5.21-L

b) Gidarien egoera.

- Gidariak egoera onean dauden ala ez egiaztatuko da 5.22-L

c) Gidarien eta kable-gidarien finkapenak.

- Finkapenen egoera ona egiaztatuko da, eta jausgailua duten kontrapisuen kasuan, T itxurako altzairuzko gidari trinkoak bermatuta edo eskegita daudela egiaztatuko da 5.23-L
- Kable-gidarien kasuan, tenkatuta daudela eta tentsioa bermatzeko elementuak dauzkatala egiaztatu, konpresio-malgukiak eta gutxienez kablearen muturrak ikuskatu ahal direla 5.24-A-L

B1.5.3.– Kontrapisuko jausgailua (beharrezkoa denetan).**a) Kableak apurtzen direnerako jausgailuak (11. artikulua).**

- Sistema hori badago, linterna batekin eta kabinaren sabaitik (kontrapisua ikuskatzailearen altueran dagoela) beharrezko elementu guztiak dituela eta egoera onean daudela egiaztatuko da 5.31-L

b) Mugagailuaz eragindako jausgailua.

Hala kabina nola mugagailua modu berean ikuskatu beharko dira (ikus eranskin honetako 3.1 eta 3.2 puntuak).

- Mugagailuaren eta bere elementuen irisgarritasuna. Ezaugarrien plaka ez izatea edo izanda ere agerian ez izatea akats arintzat joko da5.32-A-L
- Mugagailuaren egoera:
 - Lasaiarak, higadurak, malgukiak, abiadura desegokia 5.33-L
 - Mugagailuaren kontrol elektrikoa5.34-L eta 5.35-A
- Eranskin honetako 3.3 puntuan zehaztutakoaren arabera egiaztatuko da mugagailuaren kablea.
 - Mugagailuaren kablea egoera txarrean badago 5.36-L
 - Mugagailuaren kableak horma edo plaka ukitzen badu 5.36-L
 - Kablearen lokailua egoera txarrean badago 5.37-L
 - Tenkagailuak horma ukitzen badu edo egoera onean ez badago 5.38-L
- Eranskin honetako 3.4.b puntuan zehaztutakoaren arabera ikuskatu beharko da jausgailuaren funtzionamendua.
 - Jausgailuak ez badu funtzionatzen 5.39-L

B1.5.4.– Patioetan mugitzen diren kontrapisuaren babeskiak (1/1989 Zirkularra).

Patioetan mugitzen diren kontrapisuak badaude, honako hauek izango dira kontuan:

a) Leihoei dagokienez, babeskiak.

- Leihoak 1 m baino distantzia txikiagoan badaude, babeskiak eduki beharko dira, goiko eta beheko gorputz-adarrekin gune arriskutsuetara ez heltzeko segurtasun-tarteari buruzko UNE EN ISO 13857 arauan xedatuta dagoenaren arabera 5.41-L

b) Patioei dagokienez, babeskiak.

Patioetatik kontrapisuaren bideetarako sarrerak, gutxienez 2 m-ko altuera duen sare metalikozko itxiturarekin babestu beharko dira, eta bai sarrerako atearen (balidin badago) katigatze elektronikoarekin eta sarraillarekin ere.

- Patiotik kontrapisurako sarrerak ez badu itxiturarik 5.42-L
- Kontrapisuaren ikuskapena egiteko sarrera-ateak ez badauka sarraillarik eta ez badauka katigatze elektronikorik 5.43-L

B1.5.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude5.00

B1.6.– KABINAKO ETA KONTRAPISUKO MOTELGAILUAK.**B1.6.1.– Motelgailuak izatea eta kokatzea (hidraulikoak, malgukiak edo tope elastikoak) (81. artikulua).**

1966ko Araudiaren arabera aparatuak edo lehenagoko aparatuak dagokienez, hobian honako hauek izan beharko dira: motelgailu hidraulikoak, malgukiak edo tope elastikoak.

Hauexek dira detektatu daitezkeen akatsak:

- Ez dago kabinako motelgailurik 6.11-L
- Ez dago kontrapisuaren motelgailurik 6.12-L
- Kabinako motelgailua ez da egokia 6.13-L
- Kontrapisuko motelgailua ez da egokia 6.14-L
- Motelgailuak hobian kokatzea (kabinari edo kontrapisuari dagokienez, hobiko inpaktu-gunea mugatzen duen ostiko edo gailurik ez badago) 6.15-A

B1.6.2.– Motelgailuen eta euren finkapenen egoera.

Instalaturiko motelgailuek egoera onean egon beharko dute. Ez dute izan beharko deformaziorik, hausturarik, koskadun korrosiorik edo goma pitzaturik. Euskarrien egoera ere egiaztatuko da.

- Kabinako motelgailua egoera txarrean, okertuta edo gaizki finkatua 6.21-L
- Kontrapisuaren motelgailua egoera txarrean, okertuta edo gaizki finkatua 6.22-L
- Kontrapisuaren edo kabinako motelgailuaren euskarria egoera txarrean 6.21 edo 6.22-L

B1.6.3.– Motelgailu hidraulikoen funtzionamendua (badaude).

Motelgailu hidraulikoek, olioak dutela eta ondo funtzionatzen dutela egiaztatuko da.

- Kabinako motelgailuak gaizki funtzionatzea 6.31-L
- Kontrapisuko motelgailuak gaizki funtzionatzea 6.32-L

B1.6.4.– Kabinako motelgailuen altuera (16.1 artikulua).

- Kabinaren behealdetik hobira arteko distantzia, gutxienekoa, 50 cm-koa izango da 6.41-L
- Neurri hori ez da kontuan hartuko hobi txikietarako eta/edo ordezeko neurriak dituzten hobietarako.

B1.6.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 6.00

B1.7.– AGINTEAK ETA SEGURTASUNEZKO BESTE GAILU BATZUK.**AGINTEAK.****B1.7.1.– Gelditze-etengailua kabinaren sabaian (102. II artikulua).**

Kabinaren sabaian, gelditze-etengailu bat izan beharko da, espezifikoa eta ikuskapen-maniobrara pasatzeko konmutadoretik apartekoa dena.

- Kabinaren sabaian, ez dago gelditze-etengailurik 7.11-L
- Kabinaren sabaiko gelditze-etengailuak ez du funtzionatzen 7.12-L
- Kabinaren sabaiko gelditze-etengailua ez da apartekoa 7.13-L
- Etengailua ez da egokia 7.14-A

Kabinaren sabaiko gelditze-etengailua, segurtasun-gailu elektrikoa izan behar da, UNE-EN 81-1 arauaren 14.1.2 atalaren arabera. Biegonkorra izan behar da, eta ezin izango da nahi gabeko ekintza baten ondorioz berriro martxan jarri.

B1.7.2.– Ikuskapen-botoiak (101. artikulua).

- Ikuskapen-maniobrarako konmutadore bat izango da kabinaren sabaian edo maniobra-armairuan 7.21-L
- Ikuskapen-maniobrarako konmutadorearen funtzionamendua egiaztatuko da 7.22-L
- Ikuskapen-maniobran, mugimendua sakagailua etengabe sakatzearen mende egongo da 7.23-L
- Ikuskapen-abiadura ez da izango segundoko 0,8 m-tik gorakoa 7.24-L
- STOP seinaleari, konmutadoreari eta martxaren noranzkoari dagozkien zehaztapenak egon beharko dute kabinaren sabaian 7.25-A
- Aginteen funtzionamendua egiaztatuko da 7.26-A
- Botoietara erraz iristen dela egiaztatuko da 7.27-A

B1.7.3.– Gelditze-etengailua hobian eta entxufea (57/2005 ED).

- Hobiko gelditze-etengailurik ez badago 7.31-L
- Hobiko gelditze-etengailua ez badabil 7.32-L
- Entxufea ez badago edo ez badabil 7.33-A

BESTE SEGURTASUN-GAILU BATZUK.**B1.7.4.– Sare ekipotentziala.**

Ateek, gidariek, kabinak, makinak, mugagailuak eta maniobra-koadroak konektatuta izan beharko dute, sare ekipotentziala osatuz.

Ondoko hauek akastzat joko dira:

- Aipatutako edozein elementuk ez badu konexio ekipotentzialik 7.41-A
- Aipaturiko elementuren baten konexio ekipotentziala egoera txarrean badago 7.42-A

B1.7.5.– Ibiltarte bukaerak (84. artikulua).

Ibiltarteen goiko eta beheko bukaerako gailu elektrikoen instalazioa eta jarduna egiaztatuko dira (igogailu hidraulikoetarako, goikoa soilik eskatuko da).

Ibiltarte bukaerak jardunaraziz maniobra eten egiten dela egiaztatuko da.

- Goiko ibiltarte bukaerak ez badu funtzionatzen 7.51-L
- Beheko ibiltarte bukaerak ez badu funtzionatzen 7.52-L
- Igogailu hidraulikoetan, ibiltarte bukaera egokia ez bada 7.53-A

B1.7.6.– Muturretako nibeletako gelditze-gailua (83. artikulua).

- Abiadura bakarreko aparatuetan, muturretako geralekuetan etengailu mekanikoak izan beharko dira 7.61-A

Ez da aplikatuko maiztasun-aldagailua duten aparatuetan.

- Abiadura biko aparatuetan, ez da izango beharrezko gorago adierazitako, baldin eta abiadura luzea mekanikoki eteteko erarik badago 7.61-L

B1.7.7.– Lehentasunak eta atzerapen-gailua (tenporizazioa) (104. eta 105. artikulua).

Kabinako aginteen lehentasuna, kanpoko deiekikoa. Ateak itxi ondoren, aipatu lehentasunak hiru segundoz irauten duen ala ez egiaztatuko da.

- Kabinako aginteen lehentasunik ez badago 7.71-A

Atzerapen-gailua (tenporizazioa):

Kabina ibil dadin, kabinaren barrualdetik geraleku bati dagokion botoia sakatuko da; dena delako pisura ailegatu aitzin, noranzko berberean beste pisu batena sakatuko da, eta hasieran hautatutako pisuan kabina gutxienez bost segundoz geratu dela egiaztatuko da.

Geroago, goranzko norabidean, azkena ez den solairu batera sakatuko da, eta solairu horretara heldu arretik beheagoko solairu batera sakatuko da etengabe; eskatutako azken geralekuaren ostean aparatuak igotzen jarraitzen ez duela egiaztatuko da.

- Kabina-tenporizazioa ez badabil 7.72-L-A
- Kabina-tenporizazioa aski ez bada 7.73-A

B1.7.8.– Akats elektrikoetatik babestea.

Ekipo elektrikoaren akatsek ez dute izan behar berez igogailuaren funtzionamendu arriskutsuaren kausa.

- Fase-inbertsorearen babeskia ez izatea edo ez funtzionatzea 7.81-L

B1.7.9.– Kabina mugitzearen segurtasuna (57/2005 ED).

- Kabina ez dela mugitzen edo kableak lerratu direla detektatzeko gailua eduki behar dute igogailuek eta horrek motorraren elikadura moztuko duena 7.91-L

B1.7.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 7.00

B1.8.– BAOA.**B1.8.1.– Bao irekien itxiturak (4.I, 8 eta 9 art.).****a) Itxiturako babeskien altuera.**

- Itxitura guztiek gutxienez 2 m-ko garaiera izan beharko dute (mailaren erdialdea) 8.11-L

b) Itxitura babesteko materiala.

Sarezko babeskiak:

- Sarearen kalibrea ez da izango 2 cm-tik gorakoa, eta alanbrearen lodiera ez da izango 2 mm-tik beherakoa 8.12-L*

Beirazko babeskiak (8. art.):

- Beiraren lodiera ez da izango 5 mm-tik beherakoa, kristal armatuei dagokienez beira bakoitzaren azalera ez da izango 0,5 m²-tik gorakoa, eta armatuak ez direnei dagokienez 0,25 m²-tik gorakoa 8.13-A-L
- Markoak eta kristal-zumitzak metalikoak izango dira 8.14-L
- Beste material batzuk, beira normalak, armatuak edo bereziak, dimentsio handiagokoak edo txikiagokoak, 9. artikularekin (erresistentzia egokia) bat badatoz onartuko egingo dira. Dударik badago, Industria arloko eskuduna den Lurralde Ordezkaritzari kontsultatuko zaio 8.15-A

c) Zuloak itxituran (5, 6 eta 7. art.).

- Irekiguneak eta zuloak «arriskugarritzat» joko dira goiko eta beheko gorputz-adarrekin gune arriskutsuetara ez heltzeko segurtasun-tarteari buruzko UNE EN ISO 13857 araua betetzen ez dutenak 8.16-O-L*

d) Kabinaren sarreraren aurreko itxitura (9.10.)

Kabinaren sarreraren aurrean, kabinaren irekigunearen zabalera guztia hartzen duen itxitura bat izango da, azalera bertikal jarraitua duen horma batez egina, eta horma hori, elementu leun eta gogorrez osatua egongo da, hala nola pieza metalikoez, estaldura gogor eta higagaitzez.

- Kabinako ateez katigatze mekanikoa dutenean ez dago aipatu obligazioa. Katigatze mekaniko hori deskatigatze-aldean bakarrik ireki ahal izango da eta kontrol elektrikoa izango du 8.18-L

B1.8.2.– Bao itxietako barrunbeak**a) Barrunbearen egoera.**

Erresistentzia.

- Hormek 300 N-ko indarrari eutsi egingo diote, deformazio elastikoak 25 mm-tik gora egiten ez duela 8.21-L

Zuloak.

- Euretara iritsi daitekeela-eta arriskutsuak diren zuloak eta zulaketak dauden ala ez egiaztatuko da (ikus UNE EN ISO 13857 araua) 8.22-O-L
- Barrunbearen kanpoaldetik ezin badaiteke iritsi zuloetara 8.23-A
- Ertz arriskutsurik dagoen ala ez egiaztatuko da (5 cm-tik gorako irten uneak, kabinaren ertzetik 300 mm baino hurbilago daudenak), hain zuzen ere kabinako sabaian mantenimendukoak eta ikuskatzaileak gorantz doazelarik istripuren bat eragin diezaieketenak. Ertzak alakaturik egongo dira, horizontalarekiko 75.º gutxienez 8.24-L
- Kabinako aterik gabeko aparatuetan horma etengabe eta leuna izan beharko da, 5 mm baino gehiagoko irtengunerik gabe, ertz biribilduekin, ertz handiagorik badago, 75º-tara alakatuko dira 8.25-A
- Hormak material iraunkorrekoak izango dira 8.26-A

b) Barrunbearen irekiuneak (5., 6. eta 7. artikulak).

- Sarrerak, kableak pasatzeko zuloak eta aireztapenerako irekiuneez gain, ikuskapenak eta kontserbazioa egiteko irekiuneak izan daitezke, betiere katigatze elektrikodun atea 8.27-L
- Baoa beste lokal batzuekin komunikatzeko zuloak, aireztapenerako balio dutenak, saretxoez estaliak badaude ere, ez dira onartuko. Lehendik baimena duten etxebizitzetan kasuan, itxita egon beharko dira, ahal dela txapa zulatuarekin edo sareekin 8.23-A

B1.8.3.– Barrunbeen arteko tartea (12. artikulua).

Bao berean igogailu bat baino gehiago badago, barrunbeen artean tarte bat egongo da:

- Kabinaren sabaiko ertzetik beste elementu mugigarri batzuetara arteko distantzia 400 mm-tik gorakoa bada, gutxienez 2 m-ko altuera duen bereizte elementu bat egongo da hobian. 8.31-L
- Distantzia 400 mm-tik beherakoa bada, bereizte elementuak barrunbearen garaiera guztia hartuko du (barra bertikalen arteko distantzi handiena 80 mm) 8.31-L

B1.8.4.– Argiztapena (19. artikulua) (57/2005 ED).

Kabina mugitzen den barrunbean argiztapen artifiziala egongo da (20 lux-etik gorakoa).

Azpiko solairuko sarrerako atetik erraz iristeko moduan etengailu bat egongo da hobian, gutxienez hobiko argiztapena soilik eragingo duena. Hori ez da beharrezkoa izango makina-gela ate horretatik hurbil badago.

Baoa zabalik badago eta barrunbearen kanpoaldean argi aski badago, ez da beharrezkoa argiztapena.

- Baoan argiztapenik ez badago edo ez badu funtzionatzen 8.41-8.42-A
- Baoko argiztapenak ez baditu 20 lux-ak gaintitzen 8.43-A
- Hobian etengailurik ez badago edo ez badabil 8.44-A

B1.8.5.– Aireztapena (7. art.).

- Baoek aireztapena izango dute, kanpotikoa edo makina-gelatikoa (gutxienezko azalera: baoaren sekzioaren % 2,5) 8.51-8.52-A
- Barrunbea tximini egin badaiteke, eskaileretako baoak ateak baditu –eskailera-burutik, igogailuaren ateetatik eta etxebizitzetatik hura aparte uzten dutenak– eta barrunbearen garaiera 15 m-tik gorakoa bada, kanporantzko irekigune berezi bat egongo da 8.53-A

B1.8.6.– Segurtasunezko ibiltarte libreak (13., 14. eta 16. artikulua).

- Beharrezkoak dira segurtasunezko ibiltarteak bai goialdean era bai behealdean 8.61-8.62-L
- Zenbait kasutan, onartu egingo da haga tolesgarri bat egotea, bai hobian eta bai kabinaren sabaian, betiere, haga horrek bere dimentsioak eta zurruntasuna direla-eta distantziak mantentzen baditu, mikroetengailu bat badu eta abisu-kartel bat badu. Antzeko segurtasuna ematen duten beste sistema batzuk ere egon daitezke (Industriako arloan eskudun den Sailak onartutakoak izan beharko dute). Zaharberritutako edo aldatutako instalazioak ez badute segurtasun-bolumenik (0,8 x 0,6 x 0,5 m-ko paralelepipedoa goiko aldean eta/edo 1 x 0,6 x 0,5 m-koa beheko aldean), UNE EN 81-21 arauan ezarrita dagoenaren arabera edo erakunde egiaztatutako batek onetsitako neurri alternatiboak jarriko dira, industria arloko organo eskudunak baimena eman ondoren.

B1.8.7.– Hobia (15. artikulua).

Baorako sarrera.

- Arriskurik gabe jaisteko gailu bat egon beharko da (eskailera, mailak...) 8.71-A
- Ur-iragazketak.
- Ur-iragazketarik den ala ez egiaztatuko da 8.72-A
- Hobian material erregarriak edo arraroak daude.
- Dauden ala ez egiaztatuko da 8.73-A

B1.8.8.– Kontrapisuak jausgailurik ez delarik hobiaren behealderako sarrera (11. artikulua).

Ahal dela hobiaren behealderako sarrera bat dagoela egiaztatuko da, kontrapisuak jausgailurik ez duenean.

- Kontrapisuaren motelgailuen edo oreka-masaren ibiltarte-azaleraren proiektzioaren azpian lurreraino zutabe bat badago, ez da jausgailua erabili beharrik izango 8.81-L

B1.8.9.– Beste batzuk.**Instalazio arraroak (18. artikulua).**

- Baoaren barruan igogailuaren zerbitzuari ez dagokion instalaziorik (TB instalazioak, telefono-instalazioak, argindarrarenak, gasarenak, etab.) ez dagoela egiaztatu 8.91-A

B1.8.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk8.00

B1.9.– MAKINA-GELA, POLEA-GELA ETA TRAKTORE-MULTZOA.**MAKINA-GELA.****B1.9.1.– Sarbideak.****a) Sarbideak (23. artikulua).**

- Sarbideek argiztapen egokia izan beharko dute (non eta kanpoan ez dauden)9.11-A
- Segurtasunez erabili ahal izango dira:
- Leuna eta erresistentzia aski duena izango da zorua. Zabaltzetan dauden eta urez estalita egoteko diseinatuak diren gelen kasuan, sarrera seguru bat egongo da, pasabide eta baranda egokiekin.....9.12-A
- Ez dira lokal pribatuetatik igaroko9.12-A

Eskailera edo eskalekin egindako sarbidea:

- Sarbidea eskailerekin egindakoa bada, inklinazioa ez da izango 60 gradutik gorakoa, gutxienez 70 cm-ko zabalera izango du, eta eskudelak izango ditu. Goialdean helduleku bat edo batzuk izan beharko ditu eskura.....9.12-9.13-A

Eskala ezkutagarriak badaude, sarbidean (edo sarbidetik hurbil) finkatu beharko dira, ez kentzeko moduan.

Eskalaren zabalera erabilgarria gutxienez 0,35 m-koa izan behar da; mailen sakonera gutxienez 25 mm-koa izango da, eta eskala bertikalen kasuan, mailaren eta eskalaren atzeko hormaren arteko distantzia gutxienez 0,15 m-koa izango da; mailak 1500 N-ko karga baterako diseinatu behar dira..

- Goialdean heldulekuak izango dira (lehendik dauden eskailera edo eskalak baliagarritzat joko dira baldin eta igoerak segurtasunez egiteko baliagarriak badira)9.12-9.13-A
- Sartzeko tranpolik badago, goitik irekitzeko modua egon beharko da (norbaitek behetik ixten baditu). Erortzeko arriskua prebenitu beharko da eskalaren inguruan 1,50 m-ko distantzia horizontalean, eskalarena baino altuera handiagoan9.14-A

b) Atea edo tranpola (23, 24. art.).

- Makina-gelaren barrualdera sartzeko ateak edo tranpolak metalikoa izan beharko du, gutxienez 1,80 m-ko altuerarekin eta 0,70 m-ko zabalerarekin ateentzat (zurezko ate blindatuak edo barruko estaldura altzairuzkoa duten zurezko ateak ere onar daitezke).....9.16-A*
- Atearen edo tranpolaren egoera egiaztatuko da: bisagrak, markoen finkapena, zuloak, tranpolaren erresistentzia (halakorik badago), etab.9.16-A
- Sarrerako atearen edo tranpolaren sarraila, gelaren kanpoaldetik giltzaz itxia ahal izango da eta barrualdetik giltzarik gabe zabaldu, itxi ondoren. Materiala hartzeko bakarrik diren tranpolek barruko larako bat bakarrik eduki ahal izango dute9.17-A
- Gelaren kanpoaldean ateak arrisku-kartel bat izan beharko du9.18-A
- Tranpolak babeskia eduki beharko du erorketak ekiditeko9.19-A

B1.9.2.– Makina-gelaren barrualdea.**a) Hormak, sabaia eta zorua (21., 22. eta 32. artikulua).**

- Hormek (edo 1966ko Araudiaren bitartez industria-establezimenduentzako onartutako itxiturek) erresistentzia egokia izan beharko dute, ez dute material erregarririk izango, eta ez dira egoera txarrean egongo.....9.21-A
- Bankadaren aldean edo makinaren inguruan, makina-gelaren zorua irrist egiten ez duena izan beharko da9.22-A
- Sabaia ez da izango egurrezkoa eta ez da egongo egoera txarrean9.23-A
- Ez da egongo zulorik, salbu eta kableentzakoak, makina-gelaren edo baoaren aireztapenarentzakoak, zeintzuk saretxoekin estalita egongo baitira9.24-A

b) Bankadarako sarbidea eta barandak.

- Makinaren bankadarik badago, gelako zorutik altxatutakoa, sartzeko eskailera edo mailak egongo dira, baldin eta 500 mm-tik gorakoa bada altuera9.25-A
- Zorutik gora, gutxienez 1 m-ra badago bankada, albo orotan jarri beharko dira babeskiak eta 900 mm-ko barandak, eta erradapiak ere bai (erdiko langetarik ez badauka, oharretan azalduko da). Makinak balaztatzen duen aldean, desnibela 0,5 m-tik gorakoa bada, baranda alde horretan kokatuko da.9.25-A

c) Kanpoko instalazioak (31. artikulua).

- Baoaren barruan igogailuaren zerbitzuari ez dagokion instalaziorik (TB instalazioak, telefono-instalazioak, argindarrarenak, gasarenak, etab.) ez dagoela egiaztatu 9.26-A

d) Hormak zeharkatzekoak (25. artikulua).

- Objektuak jausi ez daitezen, hormak pasatzeko zorro batzuk egongo dira, zoruaren nibela 50 mm-tan gainditzeko dutenak 9.27-A

e) Kakoa edo erraildun habe (30. artikulua).

- Kakorik edo erraildun haberik ez egotea akats gisa azalduko da 9.28-A*

f) Kanpoko materialak (31. artikulua).

- Zerbitzukoak ez diren materialak egotea akastzat jasoko da 9.29-A

B1.9.3.– Beste batzuk.**a) Aireztapena (7. eta 26. II artikulua).**

- Makina-gelak kanpotik aireztapena izan beharko du. Atean edo aireztatutako beste lokal batean dagoen sareta baten bitartezko aireztapena baimenduko da 9.31-A
 - Nahita itxi daitekeen aireztapen-leihorik badago, hori akastzat jasoko da (leio horiek katigatze-sistema bat izan behar dute, zeinak ez baitu utziko baimenik gabeko inork ireki ditzan) 9.32-A
 - Aireztapenak dimentsio egokiak izan beharko ditu 9.32-A
- Aireztapen artifiziala onartuko da, baldin eta berriztapen-ordu kopuru jakin bat ziurtatzen bada.

b) Tenperatura (26. art.).

- Makina-gelako tenperatura ez da izango handiegia 9.33-A

c) Itoginak.

Makina-gelaren barruan itoginak egotea akats ARIN gisa jasoko da.

- Koadro elektrikoari, makinari edo mugagailuari eragiten dieten itoginak akats LARRI gisa jasoko dira 9.34-A-L

d) Igogailuaren liburua (2001-04-03ko Agindua).

- Aparatuaren ezaugarriak eta mantentzeari buruzko liburu bat egongo da. Liburu hori ahal dela makina-gelan edo jabearen esku egongo da. Liburua baden eta ikuskarpen ofizialei eta mantentzeari buruzko oharra dauden egiaztatuko da 9.35-9.36-A

e) Larrialdietarako maniobra-jarraibideak (2001-04-03ko Agindua).

- Makinari eskuz eragiteko, larrialdietarako jarraibideak egongo dira makina-gelan eta kabina solairuan dagoela egiaztatze modua jasoko dute. Jarraibide horiek erraz interpretatzekoak izan beharko dira 9.37-9.38-A
- Solairu-ateetako giltza bat egongo da makina-gelan; giltza hori erabiltzeko, larrialdietarako jarraibideak egongo dira. Jarraibide horiek erraz interpretatzekoak izan beharko dira 9.37-9.38-A

f) Teilaturako sarbidea makina-gelatik.

- Ezingo du egon makina-gelatik teilaturako sarbiderik. Sarbide horiek gutxienez saretxo batekin estali beharko dira (Ekonomia dela-eta, ez badago beste sarrera bat egiteko arrazoizko aukerarik, ez da jasoko akastzat, baldin eta sarrera horrek giltza edo giltzarrapoa badu, jabetzaren arduradunak kontrolatzen 9.39-A*

B1.9.4.– Instalazio elektrikoa.**a) Argiztapena (28. artikulua).**

- Badela eta funtzionatzen duela egiaztatuko da 9.40-A
- Makinak eta maniobra-koadroak argiztapen egokia izan beharko dute, 50 lux-ekoa edo hortik gorakoa 9.41-A
- Lanparak zorro finkoa izan beharko du 9.42-A
- Indar-etengailuarekiko eta gainerako zerbitzuekiko apartekoa izan beharko da argiztapenaren etengailua 9.43-A

b) Korrante-hartunea (28. artikulua).

- Gutxienez korrante-hartune bat izango da (entxufea) 9.44-A

c) Etengailu orokorra.

- Aparatu bakoitzeko etengailu orokor bat egongo da, indarra fase guztietan eteten duena (omnipolarra) eta kalibratua dena (magnetotermikoa edo fusible bidezkoa) 9.45-A
- Ez da onartuko etengailu diferentzial bat etengailu orokortzat hartzea.

d) Babes diferentziala.

Babes diferentziala egongo da, bai indar-zirkuituan eta bai argiztapenarenean ere (diferentzialak makina-gelan zein beste edozein lekutan egon ahalko dira).
Instalazioan lurreko konexio ekipotentzial eragingarririk ez badago, argiztapenaren diferentziala 30 mA izango da.

- Babes diferentzialik ez badago 9.46-L
- Makina-gelan ez badago 9.00-A
- Probak egiteko botoia sakatuaz egiaztatuko da diferentzialen funtzionamendua (ez da beharrezkoa diferentzialen sentikortasuna neurtzea, nahiz eta neurtu egin daitekeen) 9.47-L

e) Motorraren babeskia.

- Motorrak babeski bat izan beharko du. Funtzionamendua ez da egiaztatu behar 9.48-A

f) Abiadura bakarreko motorren segurtasun-kontaktorea.

- Abiadura bakarreko motorretan, aparatuak funtziona dezan, gutxienez bi kontaktore sartu beharko dira (kontaktuak ikatzezkoak direnean ez dago halako obligaziorik, izan ere, kasu horretan ia ezinezkoa baita itsatsirik geratzea) 9.49-L

g) Maniobra-koadroa.

- 1966ko Araudiko eta horren aurretiko aparatuentzat ez da beharrezkoa koadro elektrikoa itxita egotea. Honako hauek egiaztatuko dira: fusibleak, erreleak, kontaktuak, kableak etab, zeintzuk egoera onean egon beharko baitute 9.01-L

POLEA-GELA.**B1.9.5.– Polea-gelaren baldintzak.****a) Sarrera.**

- Makina-gelarentzako zehaztutako baldintza berberak bete beharko ditu polea-gelarako sarrerak (ikus eranskin honetako 9.1.a puntua) 9.11-A

b) Atea.

- Sarrera-ate erresistente bat egongo da 9.16-A
- Ateak arauzko sarraila bat izan beharko du 9.17-A
- Arrisku-kartel bat egongo da 9.18-A

c) Argiztapena.

- Argiztapena badela eta funtzionatzen duela egiaztatuko da 9.40-A

d) Gelditze-etengailua (27. artikulua).

- Gelditze-etengailua badagoela eta funtzionatzen duela egiaztatuko da 9.55-L

e) Entxufea.

- Entxufea badela egiaztatuko da 9.44-A

f) Sabaia.

- Sabaia ez da izango zurezkoa 9.57-A

g) Zorua.

- Kabinako sabaiaren eta poleetarik edozeinen goialdearen artean 1,70 m-tik gorako altuera dagoela eta, poleen mantentzea ezin bada egin kabinaren sabaitik, polea-gelak egurrezko ez den zorua izan beharko du 9.58-A

h) Segurtasuna poleetan.

- Inbertsio- eta desbideratze-poleek, hau da, polea-gelan, baoan edo kabinan daudenek ondoren zehaztutakoak ekiditeko babeski egokiak izan beharko dituzte: kableak irtetea, kableetan eta euren arteketan objektuak sartzea. Poleen finkapenen egoera eta sendotasuna ere egiaztatuko dira 9.62 eta 9.63-A

TRAKTORE-MULTZOA.**B1.9.6.– Traktore-multzoa eta bere balazta-elementuak (aparatu elektromekanikoak).****a) Traktore-polea.**

- Polearen higadura linterna batekin begiz egiaztatuko da, kableek estugunearen hondoa ez dutela ukitzen eta ez dutela irrist egiten egiaztatuz 9.61-L
- Kableek polean irrist egiteko posibilitatea egiaztatuko da. Erreferentzia gisa, honela egiaztatu ahal da: Kabina ibiltarte muturretari batean izanik, klarionaz edo antzeko zerbaitez kableen eta polearen posizioa markatuko da. Joan-etorrizko ibiltarte osoa eginda. 1:1 neurriko esekiduretan irristadura 5 cm-tik gorakoa bada edo makina behean delarik edo esekidura diferentzialetan 8 cm-koa bada, akatsa jaso egin beharko da 9.61-L

b) Kableak irteteari, harrapatzeari eta objektu arraroak sartzeko arriskuari kontra egiteko babeskia.**(90 II artikulua) (57/2005 ED).**

- Ertz bat libre duten poleetan, kableak irteteari kontra egiteko babeskia dagoela egiaztatuko da begiz. Ez badago edo ez bada egokia 9.62-A
- Erraz iritsi ahal den poleetan begiz egiaztatuko da harrapatzeari eta objektu arraroak sartzeko arriskuari kontra egiteko babeskia dagoela (EN 81-1en 9.7.1 eta 9.7.2 puntuen arabera, hala badagokio) 9.63-A

c) Itsaspena (69. artikulua).

- Kontrapisua bere topeetan bermaturik dagoela, kabinaren goranzkoan eraginez motorrari, kableek polean irrist egiten dutela egiaztatuko da (jausgailuaren proban, eranskin honen 3.4.b puntuan zehaztutakoan, egin daiteke egiaztapen hori). Itsaspena gehiegizkoa bada, kabinari irrist eginaraziz, hori akats gisa jasoko da 9.64-L

d) Balazta (91. art.)

Begiz egiaztatuko da balaztaren egoera orokorra, sistemaren lasaierak eta higadurak egiaztatuz (giltzadurak, malgukiak,...). Eszitazioko korrante elektrikorik ez dagoenean edo maniobrak zirkuitua irekita ez dagoenean balaztak automatikoki funtzionatzen duela egiaztatuko da, bereziki maiztasun-aldaketaren bidezko abiadura-kontrol-dun maniobra-koadroa duten igogailuetan.

- Faserik ez izateagatik hondatuta badago edo huts egiten badu, edo mekanismoa ale bakarrekoa bada 9.65-9.66-L
- Balaztatzeak 3 mm badituela egiaztatuko da (ezin dira amiantozkoak izan) 9.67-L
- Balazta-danborraren egoera egiaztatuko da begiz 9.68-L

e) Desbideratze-polea.

- Higadura egiaztatuko da 9.69-A

B1.9.7.– Multzo hidrauliko eragilea (1974ko Agindua).**a) Presioa mugatzeko balbula (1.2, 1974ko Agindua).**

- Zirkuitua hidraulikoki probatuko da, zilindrikoarekin konexioa egiteko mahuka ere bai (presioari gutxienez 10 segundoz eutsiaz) 9.71-L
- Zamarik gabe igotzean, eta funtzionamendu normalean duen presioa halako bitik gorakoa ez dela egiaztatuko da (presioa gehiegizkoa bada AA)(balbula mugagailuak funtzionatzen ez badu AL) 9.72-A -9.73-L

b) Jausgailu-balbula.

- Badela egiaztatuko da eta ahal bada bere funtzionamendua (kabina geldiarazten bada edo astiro jaisten bada, proba onartu egingo da) 9.74-L
- Egiaztapena kargarekin ezin egin izan dela-eta, emaitza onik ezin lortu bada, akatsa jaso egingo da, oharretan «Kabinak karga duela, jausgailu-balbularen funtzionamendua egiaztatu beharko da» jasoaz.

c) Kableak irteteari eta harrapatzeari kontra egiteko babeskia (90 II artikulua) (57/2005 ED).

Pistoiaren buruko polean, kableak irteteari eta harrapatzeari arriskuari kontra egiteko babeskia dagoela egiaztatuko da begiz (EN 81-2ren 9.4.1 eta 9.4.2 puntuen arabera).

- Ez badago edo egokia ez bada 9.75-A

B1.9.8.– Makinaren egoera orokorra.**a) Aparatu elektromekanikoetan.**

Makinaren egoera orokorra egiaztatuko da, honako hauek egiaztatuaz:

Lasaierak:

Polea eskuz mugitzen ahalegindu.

Makina gelditzean polearen mugimendu arrarorik dagoen begiratuko da.

- Garrantziaren arabera, akatsa larria edo arina izan daiteke9.81-A-L
- Olloa galtzea9.82-A-L
- Makinaren zarata arraroak9.83-A-L
- Makinaren bibrazio handiegia9.84-A-L
- Makinaren egonkortasuna. Ikadura egiten denean makina egonkor dagoela egiaztatuko da (irauli egiteko posibilitatea)9.85-L
- Makinaren isolamenduen egoera (gomak, kortxoak,) narriadurak ia apoioaren edo bastidorearen desnibelik eragiten duen9.86-A-L
- Uhal trapezoidalik badago, egoera onean egon beharko dute, gutxienez 3 egongo dira eta tentsio egokia izan beharko dute (ez da onartzen eragiteko beste sistemarik)9.87-A-L
- Gorago zehaztutako akatsetariko bat baino gehiago antzeman ez gero, akats bat bakarrik jasoko da9.88-A-L

b) Aparatu hidraulikoetan.

Multzo hidraulikoaren egoera orokorra egiaztatuko da:

- Olloa galtzea9.82-A-L
- Manometroaren funtzionamendua9.89-A

B1.9.9.– Larrialdietako eragintza.**a) Aparatu elektromekanikoetan.**

Kabina hurrengo geralekuraino eramateko eskuz jardutea eta balazta desblokeatzea ahalbidetzen dituen gailu bat izatea.

- Eragiteko palankarik ez badago (makina-gelan) edo ez bada egokia.....9.90-9.91-A
- Gailurik ez badago edo egokia ez bada9.92-A
- Sistemaren funtzionamendua egokia dela egiaztatuko da (92. art.)9.93-A

Bolanteak laua eta erradio bakoa izan beharko du (orekatze-zuloak bakarrik onartzen dira).

Galarazita dago biraderak erabiltzea.

- Zehaztuta egon beharko du bolanteak norantz jiratuko duen9.94-A
- Ez da izango atzamarrak harrapatuak izateko posibilitaterik9.95-A

b) Aparatu hidraulikoetan (1.13, 1974ko Agindua).

- Sistemaren funtzionamendua probatuko da9.96-A

c) Erreskate-sistema automatikoak (badaude).

Korrontea falta dela, erreskate-sistema automatikoek segurtasunari dagokionez ezin dute ezer deuseztatu ezta zubirik egin ere.

- Sistemak ez badu funtzionatzen9.97-A
- Sistema ez bada egokia (ez dira onartuko marruskadura-sistemak, edo, halaber, segurtasunetan zubiak egiten badira)9.98-A

Aurreko puntuak, ondoko kasuetan bakarrik jasoko dira akats gisa: aparatuak izan behar dituztenean, edo kabinan hala adierazten bada. Beste kasu batzuetan (esate baterako, aparatu esperimentalak) sistema ez badabil, ez da zehaztuko 9.98 akatsa.

d) Kabinaren kokapena kontrolatzea (57/2005 ED).

Kabina ateen sarraila deskatigatzeko aldean dagoen ala ez jakitea ahalbidetzen duen gailu bat egongo da (mugagailuaren edo kabinako kabletan markak egiteak balioko du). Funtzionamendua egiaztatuko da.

- Ez badago edo funtzionatzen ez badu9.99-A

B1.9.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude9.00

B2 ERANSKINA**1987KO ITC MIE AEM-1 JARRAIBIDEKO IGOGAILUEN IKUSKAPENA****B2.1.– BAORA SARTZEKO ATEAK ETA EUREN KATIGATZE-GAILUAK.****BAORA SARTZEKO ATEAK**

Begiz ikuskatuko dira igogailuaren ibilbide osoa eta geraleku guztiak, dagoen ate-mota egiaztatu beharko da, baita bere funtzionamendu-sistema ere (zabukaria, eskuz lerratzekoa, erdi-automatikoa, automatikoa).

Dauden ate guztietan honako puntu hauek ikuskatu beharko dira:

B2.1.1.– Ateen ezaugarriak.**a) Ate-motak (7.1.1 eta 7.3).**

• Baora sartzeko ate guztiek bete beharko dituzte ITC jarraibide tekniko osagarriak (arauzko dimentsiodunak eta arima betekoak izan beharko dute ateeak) 1.11-L
(arauzko neurriak ez badauzka ez da akats gisa sailkatuko, hauek badauzka: argi-seinaleak, inpaktuen aurkako babesa, argi nahikoa eta ohar-kartela).

b) Lasaierak edo tarreak (7.1.1).

Itxita daudela, ez du egon behar lasaierarik edo tarterik ateen artean, edo ateen eta marko edo atalaseen artean, 6 mm-tik gorakoa denik hain zuzen ere.

- 6 mm-tik gorako eta 20 mm-ra arteko lasaierak badaude 1.13-A
- 20 mm-tik gorakoak badira 1.13-O

c) Arropak katigatzeko arriskua (7.5.1).

• Objektuak edo arropak ez katigatzeko moduan egon beharko dute eginak bisagrek, markoek eta ateeak. Egiaztatu egin beharko da posibilitate hori 1.14-A

d) Zizailadura-arriskua (7.1.1).

• Ate lerrakor automatikoen kanpoaldean ez dagoela irtengune edo zirriturik –3 mm-tik gorakorik– egiaztatu beharko da, eta mugimenduaren noranzkoan ertz alakatuak izan beharko dituzte 1.15-A

e) Tiratzaile enbutituak (5.4.4.c).

• Kabinako ate gabeko aparatuetan, eskuzko atea irekitzeko tiratzaile enbutituak badaude, tiratzailearen eragintza segurua dela egiaztatuko da (kabinaren mugimenduaren noranzkoan atzamarrak katigatu edo harrapatzeko posibilitaterik ez du egon behar) 1.16-A

B2.1.2.– Ateen egoera.**a) Ateen sendotasuna (7.2.3).**

Kanpotik edozein puntutan 300 N-ko indarra aplikatuz gero:

- Ez da sortu behar kabinaren ibilbidea hartuko duen deformaziorik 1.21-O
- Kabinan atea duten aparatuetan deformazio elastikoa 15 mm handiagoa da 1.21-L
- Kabinan aterik ez duten aparatuetan deformazio elastikoa 5 mm-tik gorakoa eta 15 mm-tik beherakoa da 1.21-A

b) Ateen gidarien eta bisagren sendotasuna.

Topera heldu direla, zabaltzeko ahalegina eginez, ate eskuzkoak edo erdi-automatikoak beharturik, lasaierak eta higadurak ikusiko dira. Ate automatikoen kasuan, ateen sendotasunari dagokionez aurreko 1.2.a puntuan adierazitako probak egingo dira.

- Lasaierak badaude baina ez dute eragozten funtzionamendu egokia 1.22-A
- Funtzionamendu egokia eragozten duten lasaierak daude 1.22-L

c) Ateen markoak hormari lotzea.

Edozein noranzkotan 300 N-ko indarra aplikatuaz markoei, markoak mugitzen diren ala ez egiaztatu beharko da:

- Mugimendua 5 mm-koa baino handiagoa bada 1.23-L
- Mugimendurik bada baina 5 mm-koa baino txikiagoa bada 1.23-A

d) Ate automatikoak martxan direlarik, babesa (7.5.2).

Ixteko esfortzua eta berrirekiera sentikorra egiaztatuko dira.

- Ixtea eragozteko esfortzua ez da izango 150 N-tik gorakoa 1.24-A
- Trabaren batekin kontaktua egin ezkerero ateak automatikoki berrireki behar dira 1.25-L

e) Oxidazioa.

- Oxidazioa badago 1.27-A
- Materiala galarazten duen oxidazio handia dago, erresistentzia gutxituaz 1.27-L

f) Deformazioak.

- Ateetan, kolpeek eragindako deformazioak (batez ere aparatu industrialetan) dagoen egiaztatu beharko da, hain zuzen ere, lasaierak edo tartearak sortzen dituztenak (ikus eranskin honetako 1.1.b puntua), eta halaber, konpondu beharreko beste kalte batzuk 1.28-L

B2.1.3.– Kabinaren presentzia kontrolatzea (7.6.2).**a) Argizko seinalearen bitartez.**

- Ez izatea edo ez funtzionatzea akastzat joko da (ate automatikoetan izan ezik) 1.31-A

b) Behatxulo garden eta zeharrargien bitartez.

Behatxuloen ezaugarriak egiaztatzea (materiala, finkapena, lasaierak eta akatsak)

Akastzat joko dira:

- Arriskugarriak kontsideratzen diren zuloak behatxuloan. Irekiguneak eta zuloak «arriskugarritzat» joko dira goiko eta beheko gorputz-adarrekin gune arriskutsuetara ez heltzeko segurtasun-tarteari buruzko UNE EN ISO 13857 araua betetzen ez dutenak. 1.32-O
- Pitzatutako beirak 1.33-A
- 6 mm-tik beherako lodiera duten beirak 1.34-A
- Behatxuloen zabalera ez da egokia. Goreneko zabalera 150 mm-koa da eta txikiena 60 mm-koa .. 1.35-A

Behatxuloen erresistentzia ez-egokia:

Behatxuloaren erdialdean barruko aldetik eta kanpoko aldetik 300 N-ko indarra aplikatuko da. Behatxuloak ez badio eusten, 1.32 edo 1.33 akatsa adierazi beharko da.

Onartu egingo da behatxuloaren materiala polikarbonatozkoa izatea (erresistentzia handia duelako eta erregaitza delako). Materialaren gaineko zalantzarik izanez gero, enpresa kontserbatzaileak ziurtapena egin lezake, baldin eta instalatutako plastikoa polikarbonatoa bada.

- Plastikoa baimenduen arteko lege ezin bada identifikatu edo instalatzailearen ziurtagiririk (polikarbonatozkoa izateari buruzkoa) ez bada, hori akats gisa adieraziko da 1.36-A
- Behatxuloak 80 mm-tik gorako zabalera badauka eta beheko ertzetik lurrerainoko distantzia 1 m-tik beherakoa bada, hori akatsa dela adieraziko da (salbu eta polikarbonatozkoa edo baimendutako beste plastiko batezkoa bada) 1.36-A

Behatxuloak gaizki finkatuta daude:

- Ahal dela, behatxuloaren materiala edo beirak ezin izango dira mugitu 1.37-A

c) Sarbideetako argiztapena (7.6.1).

Argiztapen iraunkorrak huts eginda ere, kabinaren presentzia detektatzeko adinako argiztapen-sistema egongo da ateen inguruetan.

- Zoruaren mailan, 50 lux-etik beherakoa bada 1.38-A

ATEAK KATIGATZEKO GAILUAK (SARRAILAK).**B2.1.4.– Sarraileen ezaugarriak.****a) Arauzko sarrailek (7.7.3).**

- Sarrailek, elektrikoki kontrolatutako katigatze mekanikoa dutela egiaztatu beharko da 1.41-L

b) Ateen itxiera kontrolatzeko gailua (7.7.4).

- Kontaktu elektriko bikoitza izan behar da 1.42-L
- Eskuekin kontaktu zuzenak ez egiteko moduan babesturik egongo dira kontatuak 1.43-L
- Atetik tiratzean ez dute galduko kontaktua (kabina ez dagoelarik atea zabaltzen ahalegintzean igogailua gelditzea) 1.44-A

c) Larrialdietan giltza bereziaz deskatigatzea (7.7.3.2).

- Hiruki-giltza berezi batez deskatigatu ahal izan beharko dira ateak 1.45-L
- Morroiloak giltza berezi batez irekiko dira. Morroiloetako bat ez badabil edo eragiteko koskak higatuta badaude 1.46-L

B2.1.5.– Sarraileen egoera.

Sarraila bakoitzean honako hauek egiaztatu beharko dira:

- Finkapena. Ez dute mugimendu batere izan beharko 1.51-L
 - Higaduraren eraginez hondatzea 1.52-L
 - Estalki egokiak jartzea 1.53-A
- (Jarri ezin direnetan, kontaktu elektrikoaren eta mekanismoaren garbitasun-falta akats larritzat joko da).
- Kableak eta konexio elektrikoak 1.54-L
 - Masa-deribaziorako arriskua 1.54-L
 - Masa-hartunerik ez izatea 1.55-L

B2.1.6.– Sarraileen funtzionamendua.**a) Kabina ez dagoela, aterean bat irekitzea (7.7.1).**

Igogailuaren funtzionamendua normala dela, ezinezkoa izango da solairuko sarbide-ate bat ere irekitzea, edo aterean orrietako bat ere, orri bat baino gehiago edukiz gero.

- Baten batek huts egiten badu 1.61-O

Egiaztapena honako hauetan egingo da:

Eskuzkoak edo erdi-automatiko diren ateeetan, irekieraren noranzkoan 300 N-ko indarraz tira eginez.

Ate automatikoetan, atea indar baliokideaz irekitzen ahaleginduz.

(Aterean batek huts egiten badu, ate hori itxita laga daiteke, ezin daitekeela zabaltu ziurtatuaz eta aparatua funtzionamenduan utziz).

b) Sarrailearen funtzionamendua.

Honako proba hauek egingo dira:

- Normala ez den maniobra bakarraz funtzionatzeko posibilitatea (ate zabukarietan)..... 1.62-L
- Aterean itxieraren kontrol-kontaktu bakoitzean zubia eginez, morroiloak irten eta gero aparatua ez dabilela egiaztatzea.
- Ateak zabalik direla funtzionatzeko posibilitatea 1.62-O
 - Bao irekietan, baoaren kanpoaldetik eskuaz sarrailara iristeko posibilitatea. Ez eskailburutik ez eskaileretatik posibilitate hori ez dagoela egiaztatzea 1.63-O
 - Kabina ez dagoela, zulora sartzeko atea itxeko posibilitatea. Sarraila aldatzeko posibilitaterik ez badago, stop etengailu bat jarriko da hobian 1.64-A
 - Sarraila deskatigatzeko aldea 1.65-A

B2.1.7.– Solairu-adierazleak (1996-11-21eko Agindua).

- Erabilera publikoko igogailuetan edo ordeztuetan –martxan 1997-07-01etik aurrera jarritakoetan– solairua adieraztekoak egotea 1.71-A

B2.1.8.– Solairuko sakagailuak.

- Sakagailuak egoera txarrean badaude 1.81-A

B2.1.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 1.00

B2.2.– ESEKIDURA-KABLEAK ETA LOKAILUAK.

ITC AEM 1 berria indarrean jarri ondoren zaharberritutako igogailuetan, kable txirikordatu tradizionalen ordeztu beste esekidura-sistema batzuk izan daitezke (adibidez, zintak, kable estaliak, kable bereziak, etab.). Kasu horretan, elementu horiek fabrikatzaileak ezarritako zehaztapenen arabera egiaztatuko dira, eta egiaztatutako kontrol-erakundeak zehaztapen horiek eskura izan beharko ditu.

B2.2.1.– KABLEAK (9.1.etik 9.6.era bitartean).**a) Kableen kontserbazio-egoera.**

– Itsaspen-igogailuetan:

Kableak poleatik pasatzeari dagokionez, makinen gelan eta kabinaren sabaiatik, linterna batekin ikusizko ikuskapen bat egin beharko da, ibilbideko zenbait puntutan kordioetan izan litezkeen alanbreen apurketei erreparatuaz. Kontuz jokatzuz, egur zati bat edo antzeko zerbait kable guztien gainean jarriaz eta kabinako ibilbide osoa eginda, poleatik pasatzean kableek barruan edo kanpoaldean dituzten apurketak ikuskatzeko ahalegina egin beharko da.

Ertz zorrotzeko egur zati bat edo antzeko zerbait kable guztien gainean jarriaz eta kabinako ibilbide osoa eginda, poleatik pasatzean kableek barruan edo kanpoaldean dituzten apurketak ikuskatzeko ahalegina egin beharko da.

Kabinako sabaitik eta linterna batekin, ibilbideko zenbait puntutan kableen egoerari erreparatuko zaio.

Kordoi bat apurturik dagoenean, metro batean kordoi batena egiten duten alanbreak apurturik daudenean, edo oxidaturik, kanpoaldean higaturik edo deformaturik dagoenean, kablea «egoera txarrean» dagoela kontsideratuko da (UNE 58-111 arauarekin bat).

Kordoi apurtu baten balioa egiten ez duten alanbre apurtuak badaude, hori ez da joko akastzat.

Hauexek dira detektatu daitezkeen akatsak:

- Kableetarik baten kordioaren bat apurtzea 2.11-O
 - Alanbreak apurtzegatik, oxidaziogatik edo kanpoaldeko higaduragatik kableak egoera txarrean egotea, kabletarik % 34 edo hortik gora 2.12-O
 - Kable guztien % 34 baino gutxiagori eragiten badie 2.12-L
- Arau orokor legeaz, kable guztiak aldatuaz eta polea aztertuz edo aldatuz egin beharko da konponketa.
- Kableek plakarekin egiten duten marruskadura 2.13-L

Igogailu hidraulikoetan (baldin eta badaude):

Kabinaren sabaitik egin beharko da ikuskapena, eta itsaspen-igogailuentzako zehaztutako berberak dira izan litezkeen akatsak.

c) Kableen tentsioak orekatzea (9.5.1).

Kableen arteko tentsioak antzekoak izan beharko dira eta orekatuta egon beharko dira.

Kabinaren gainean egiaztatutako da, ibilbidea tarteko posizio batean jarri.

Kableen tentsioa berdintzeko gailua muturretako batean behintzat dagoela egiaztatuko da, eta beti konpresioan jardun beharko du malgukien kasuan.

Igogailuak trakzio-kable bi soilik dituenean, katigatze elektrikoa egon beharko da beti, kableak modu diferentean luzatzen direnean igogailua geldiaraziz funtzionatuko duena. Eskuz manipulatu egiaztatuko da funtzionatzen duela.

- Aparatuak orekatze-sistema bat izan beharko du, baldin eta sistemarik ez badu 2.15-A
- Sistema egoera txarrean (malgukiak,...) 2.15-A

d) Kableak lasaitzeko segurtasun-kontaktua (9.5.3).

- Segurtasun-kontaktua dagoela egiaztatu beharko da 2.16-L
- Segurtasun-kontaktuak maniobra eten behar du 2.17-L

B2.2.2.– KABLEEN LOKAILUAK (9.2.3.1).**a) Lokailu-motak.**

Urtutako materialezkoak izan daitezke, tenkaketa automatikoko falka, hiru grapa edo besarkadera dituzten sistemak, prentsaturako zorroak edo balio bereko segurtasuna ematen duen beste sistema bat.

- Kableen lokailuak, kabinatikoak, arauzkoak ez direnak 2.21-L
- Kableen lokailuak, kontrapisutikoak, arauzkoak ez direnak 2.22-L

b) Kabinatiko lokailuen egoera.

Kabinarako eta kontrapisurako lokailuen egoera egiaztatuko da, edo igogailu hidraulikoetan, lokailu finkoak, arauen arabera ezaugarriak eta bereziki estuerak, azkoinak, kontraazkoinak eta larakoak.

Halakoak ezin dira faltatu, eta ezin dira hondatuta edo gaizki finkatuta egon.

Falka bidezko lokailuen kasuan, kargarik gabeko hari solteak behar bezala finkatuta egon beharko dira.

- Apurtzeaz dagoela edo pitzadura handiak dituela 2.24-O
- Pitzadura txikiak, korrosioa koskadurekin etab. 2.24-L
- Lokailu tolestuak 2.24-L

- Lokailu bakoitzeko malguki-zirrindola bat edo hegats-larakodun azkoin bat edo malguki-zirrindoladun azkoin bi (azkoina eta kontra-azkoina) daudela egiaztatuko da, edo, halaber, biraketaren kontrako bi azkoin 2.23-L

c) Kontrapisutiko lokailuen egoera.

- Goragoko b (2.23) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.25-L-A
- Goragoko b (2.24) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.26-O-L

d) Esekitze berezietan, plakatiko lokailuen egoera.

- Goragoko b (2.23) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.27-L-A
- Goragoko b (2.24) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.28-O-L

e) Igogailu hidraulikoetan lokailuen egoera (pistoiaaren behealdean).

Goragoko b idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak.

f) Lokailuen malgukiak edo tako elastikoak.

- Haien egoera egiaztatuko da 2.29-A

B2.2.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 2.00

B2.3.– ABIADURA-MUGAGAILUA, KABINA-JAUSGAILUA, BASTIDOREA ETA GIDARIAK.

ABIADURA-MUGAGAILUA (9.9).

Abiadura-mugagailua ikuskatu beharko da, kabinako jausgailu-sistemari eragiten duela, eta ezaugarrien plaka agerian duela.

B2.3.1.– Mugagailuaren irisgarritasuna (9.9.8).

Erraz iristekoa izan behar du eta baoan badago kanpoaldetik erraz iristekoa.

- Mugagailura iristeko modurik ez badago 3.11 eta 3.12-L
- Mugagailuaren elementu guztietara (erregulazio-mekanismoak, kontaktuak eta abar) iristeko modurik izan behar da, eta horretaz gain, ikuskapenak eta mantenimendua egiteko espazio librea izan beharko dute euren inguruan 3.13-L
- Mugagailua makinen gelan badago eta kontrolik gabeko eragintza-, kolpe- edo harrapaketa-arriskurik izan baliteke, babesgailu bat izan beharko du. Babesgailua erraz desmuntatzekoa izan beharko da 3.14-A

B2.3.2.– Mugagailuaren egoera.

a) Lasaierak, higadurak eta malgukiak.

- Jausgailuaren eragintza-kablea erretirata, mugagailua eskuz mugituaz eta ondokoak egiaztatuaz egingo da ikusizko ikuskapena: lasaierak, higadurak eta malguki deformatuak edo apurtuak, kontaktu elektrikoaren egoera (badaude) eta poleako ezarriaren higadura 3.21-L

b) Funtzionamendu-proba.

Funtzionamenduaren proba egingo da; hori honela egin ahal izango da:

Behin mugagailuko polearen kablea erretiratu ostean (mugitu ahal dadin), takometro bat lotuko diogu.

Abiadura erregulagarriaren zulagailu edo beste sistema bat erabiliz, igogailuaren abiadura nominalera helaraziko dugu polea, eta apur-apurka gehituko da abiadura harik eta mugagailua blokeatu arte.

Ondoren mugagailuaren desarra edo blokeoa gertatzen deneko abiadura irakurriko da, eta abiadura hori 9.1.1 artikuluan zehaztutako mugetan sartzen dela egiaztatuko da.

Gutxienez bi aldiz egingo da proba, lortutako balioak onartutako mugen barruan direla egiaztatuz.

Lortutako balioen bat mugetatik kanpokoa bada, proba beste bitan egingo da, eta onartzeko moduko batez besteko balioak lortu beharko dira.

Kontrapisuan mugagailua badago, proba modu berean egingo da.

Mugagailuak kabinaren igoerako noranzkoan ere jardun behar duenean, noranzko horretan ere egiaztatuko da.

Mugagailuek probarako poleak badauzkate, nahikoa izango da kablea polea horretan sartzea eta funtzionamendua egiaztatzea. Kasu horretan, aldi berean jausgailuaren proba egin ahal izango da eta segurtasuneko gailu elektrikoak egiaztatu ahal izango dira.

Mugagailuaren segurtasun-gailu elektrikoak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu beharko da. Motorraren funtzionamendua blokeatzen duela eta balaztari eragiten diola egiaztatuko da (igogailu elektrikoak).

Oharra: metodologia hori aplikatu ezin deneko igogailuetan, mantentzaileak emandako jarraibide eta bitartekoak eskura izango dira egokiak diren egiaztapenak egiteko.

- Baimendutako abiadura gorena % 25etik gora gairiditza jardura-abiadurak 3.22-O
- Baimendutako abiadura gorena % 25etik gora ez gairiditza jardura-abiadurak 3.22-L

c) Mugagailuaren jardueraren kontrol elektrikoa (9.9.11).

Gailu hau jausgailu-sisteman edo abiadura mugagailuan egon daiteke (bietan ez da derrigorrezkoa).

- Kontrol elektrikoaren funtzionamendua egiaztatuko da 3.23-L
- Kabinaren igoerako noranzkoan jardun behar duenean, egiaztatu egingo da mugagailuaren kontrol elektrikoa.
- Abiadura % 115etik gorakoa denean 3.24-L
- Mugagailuek erregistro-estalkiak badituzte, ipinita egon beharko dute..... 3.25-A

d) Ezaugarrien plaka.

- Ez badago edo ez badago agerian 3.26-A

f) Mugagailuaren zigilua.

- Organo mekaniko eta/edo elektriko doigarriek zigilua daukatela egiaztatuko da (fabrikatzaileak doitu behar ditu) 3.28-L

B2.3.3.– Mugagailuaren kablea (9.9.6).

a) Mugagailuaren kablearen egoera.

- 2.1.a puntuan zehazten den legez egiaztatuko da 3.31-O-L
- Kableak elementu batere ez duela ukitzen egiaztatuko da (egiturekin, makian gelako plakarekin eta abarrekin marruskadura) 3.32-L

b) Kable mugagailuaren lokailuak, jausgailu-sistemakoak.

- Lokailuen egoera ona egiaztatuko da (lokailu-sistema besarkaderaz egin daiteke) 3.33-L

c) Mugagailuaren kablearen tenkagailua.

- Mugagailuaren kablearen tenkatze-sistemaren egoera ona egiaztatuko da, kablea, luzatu arren, tenkatzen jarraitu dezakeela ere egiaztatuz 3.34-L
- Sistemako elementuak ez dituela ukitzen egiaztatuko da (tenkagailuaren kontrapisuak horma ukitzea) 3.35-L

d) Mugagailuaren kablea apurtu eta lasaitzea kontrolatzeko gailua.

- Gailurik badagoela egiaztatuko da 3.36-L
- Gailuak ondo funtzionatu behar du, maniobra etenez 3.37-L

B2.3.4.– KABINA-JAUSGAILUA (9.8).

a) Zirien, falka-kutxaren eta abarren finkapenaren egoera.

- Linterna batekin eta elementuak ukituz ikusizko egiaztapena egingo da. 3.41-L

b) Funtzionamendu-proba.

Jausgailuak funtzionatzen duela eta kabinari eusten diola egiaztatuko da.

Proba hori honela egin ahal da:

Blokeoko punturaino eragin abiadura-mugagailuari edo dagokion gailuari eskuz.

Igogailuari beherantz eragin, eskuz edo motorraz abiadura txikian, kabina geldi dagoela eta kableak polean irristatzen direla egiaztatuz (edo hidraulikoetan lasai geratzen direla).

Kableak polean ezin irristarazi arren, proba ontzat joko da.

Jausgailuaren segurtasun-gailu elektrikoak motorraren zirkuitu elektriko eten duela eta galgak funtzionatu duela egiaztatuko da.

Horretarako, dei bat egingo da, eta igogailua blokeatuta geratzen dela egiaztatuko da.

Falka guztiek funtzionatu dutela egiaztatuko da.

- Jausgailuak ez badu funtzionatzen 3.42-O

c) Jausgailua desblokeatzea (9.8.5).

- Kabinari goraka eraginda desblokeatuko da jausgailua, eta desblokeatu ondoren jausgailua funtzionatzeko moduan geratuko da 3.43-A

d) Jausgailuaren jardueraren kontrol elektrikoa (9.8.8).

- Jausgailuaren kontrol elektrikorik ez izatea 3.44-A
- Kontrol elektrikoak maniobra eten duela egiaztatu beharko da 3.45-A

e) Lasaierak.

- Kabina-jausgailuaren lasaierak egiaztatuko dira 3.47-L

B2.3.5.– KABINAREN BASTIDOREA.

a) Egituraren sendotasuna loturetan (soldadurak, torlojuak, errematxeak).

- Egitura begiz egiaztatu beharko da 3.51-L
- Apurtzeak badago 3.51-O

b) Oxidazioak.

- Oxidaziorik badago 3.52-A
- Korrosioa material galerarekin 3.52-L

c) Deformazioak.

- Deformaziorik dagoen ala ez egiaztatuko da 3.53-A

d) Errodagailuak eta irrista-guneak.

- Haien egoera egiaztatuko da 3.54-L-A

B2.3.6.– KABINAREN GIDARIAK ETA BERE FINKAPENAK (10.1).

a) Gidari-motak.

- T formako altzairu-profilezko gidariak onartuko dira. 3.61-L

b) Gidarien egoera.

Baotik, eta ibilbide guztian, kabinaren gidarien arauzko ezaugarriak ikuskatuko dira, baita baoaren hormatiko edo paramentuetatik finkapenen egoera ere; oxidaziorik edo korrosiorik, deformaziorik, deslerrokatzerik dagoen, paralelismotik gehiegi desbideratuta dagoen edo funtzionamendu txarra edo istripuren bat eragin ahal duen akatsak dauden egiaztatuko da.

- Gidariak egoera onean direla egiaztatuko da 3.62-L

c) Gidarien finkapenak (10.1.2).

- Gidarien finkapenetan, hormatiko loturen egoera, finkapenen euren egoera eta gidarietatiko finkapenen lokailuaren eragina egiaztatu beharko dira 3.63-L

B2.3.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 3.00

B2.4.– KABINA (8.1.etik 8.5.era bitartean).

B2.4.1.– Kontserbazio-egoera orokorra.

Kabinaren barrualdetik honako hauek egiaztatu beharko dira:

a) Zulo «arriskutsurik» egotea.

- «Arriskutsutzat» jo daitekeen zulorik dagoen egiaztatu beharko da (ikus UNE EN ISO 13857 araua) 4.11-O-A

b) Hormen erresistentzia.

Hormako paneletan 5 cm^2 -ko azaleran 300 N-ko indarra aplikatuaz, hormen erresistentzia egiaztatuko da.

- Deformazioa 15 mm-tik gorakoa den eta barrunbea edo igogailuaren beste osagai batzuk jo ditzakeen 4.12-O
- Deformazioa 15 mm-tik gorakoa den baina barrunbea edo igogailuaren beste osagai batzuk jo ezin dituen 4.12-L
- Kabinetan beirak erabiliz gero, kristalak apurtuz gero erabiltzaileek ahal dela ez dute kalterik jasango (segurtasun-beirak edo babes-minzdun beirak izango dira) 4.13-A

c) Zorua erresistentzia.

- Zorua metalezkoa dela egiaztatuko da 4.14-A
- Zorua karga nominalari eutsi diezaikeela egiaztatuko da 4.15-O-L

d) Zorua egoera.

- Zorua eta bere estaldura egoera onean daudela egiaztatuko da (estaldurak ondo itsatsita daudela, eta ez dagoela estropezu egiteko arriskurik...) 4.16-A

e) Kabinaren estaldurak (8.3.3).

- Ez dira erabiliko erraz erretzen diren materialak. Hormak edo sabaiak, suaren aurkako M3-rainoko erresistentzia izango dute –gaur D-s3,d0 deitzen dena, eraikuntzako produktuak beren erreakzio-propietate eta suarekiko erresistentziaren arabera sailkatzeari buruzko 312/2005 Errege Dekretuaren arabera (2005-04-02ko BOE)– eta M2-rainokoa –gaur C-s3,d0– zoruetarako 4.17-A

f) Geldialdi-doitasuna (1988-01-12ko Agindua).

2 abiadura edo maiztasun-aldatzailea duten aparatuetan soilik egiaztatuko da geldialdi-doitasuna.

- Kabinaren geldialdi-doitasuna ± 20 mm-tik gorakoa bada 4.18-L

g) Aireztapena.

Aireztapen-azalera bat egon beharko da kabinaren goiko zein beheko aldean, gutxienez kabinaren azaleraren % 0,5ekoa.

- Aireztapen nahikorik ez egotea 4.19-A

B2.4.2.– Argiztapena (8.17).

- Argiztapenak etengabekoa izan beharko du igogailua erabiltzen ari denean (itzali ahalko da baldin eta ITC AEM-1 berriaren VII. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badira) 4.21-A
- Argiztapenak gutxienez 50 lux-ekoa izan behar du botoien parean 4.22-A

Larrialdietarako argiztapena:

- Birkarga egiteko elikadura automatikoa duen larrialdietarako ekipo bat izan beharko da, W 1-eko lanpara gutxienez ordu batez elika dezakeena 4.23-A
- Argiztapen normalaren elikadurak huts egiten bada edo eteten bada, larrialdietarako argiztapena automatikoki konektatuko da 4.24-A

B2.4.3.– Alarma, larrialdietako geldialdia, ateak irekitzeko posibilitatea eta norabide bikoitzeko komunikazioa.**a) Alarma (14.2.3 eta 15.2.3).**

Laguntza eskatzeko gailu bat, erraz ikus daitekeena, dagoela egiaztatuko da. Eta gailu hori era hauetarikoa izan daiteke:

Alarma akustikoa edo txirrinari lotutako sakagailua edo etengailua, «alarma» edo «larrialdia» hitzarekin identifikaturikoa.

Elkarrekin komunikatzeko aparatua (interfonoa edo telefonoa) lokal bati konektatua, non 24 orduz langileak dauden, edo, halaber, aparatua pertsonen esku dagoen artean.

Sare publikoari konektaturiko telefonoa.

Era horretako gailu ezberdinak izan daitezke edo helburu bererako diren beste era batzuetakoak.

- Identifikatu gabe egotea edo kanpoaldea erreta izatea 4.31-A
- Laguntza eskatzeko gailuak ondo funtzionatu beharko du 4.32-L
- Gailuak funtzionatu egin beharko du larrialdietan. Korrontea deskonektatu ondoren funtzionatu egiten duela egiaztatuko da 4.33-L

- Txirrinaren edo alarma akustikoaren kasuan, nahiko ondo entzun beharko dira 4.34-L
Aparatuak nahitaezko norabide biko komunikazioa (edo gehigarria) badauka, entzun ezin denean Akats Arin gisa sailkatuko da (ikus hurrengo atala).

b) Larrialdietako geldialdiak (15.2.3.1).

- Ate gabeko kabinetan bakarrik izango da 4.35-A
Bada, egoki funtzionatu beharko du:
- Kabina geldiarazi beharko du 4.36-L
- Behin jardun ostean, aparatua ezin izango da martxan jarri solairuetatik..... 4.37-L

Identifikazioa:

- Sakagailu edo etengailuaren kolorea gorria izango da. Ez du kanpoaldea erreta izan beharko 4.38-A

c) Kabinaren atea zabaltzeko posibilitatea (8.11).

- Solairu baten nibeletik irekitzeko posibilitatea egiaztatuko da 4.39-L

d) Norabide bikoitzeko komunikazioa (57/2005 ED).

Igogailu publikoetan, bulegoetakoetan eta 5 etxebizitza baino gutxiagoko jabekideen erkidegoetakoetan, norabide bikoitzeko komunikazio-sistema bat izan beharko da.

Botoia 3 segundoz sakatuz gero, erreskate-zerbitzu batekiko komunikazioa ezarriko da (modelo batzuetan beharrezkoa izaten da aparatuan matxura bat izatea). Erreskate-zerbitzuak aparatua identifikatzeko ahalmena izan beharko du.

- Sistema ez badago, ez badu identifikatzen edo ez badabil 4.40-L

B2.4.4.– Errotuluak eta plakak (15.2).

- Plaka RAE zenbakiarekin: makinen gelan edo kabinaren barruan egon beharko du
zenbakiak 4.41-4.42-A
- Gehieneko karga 4.43-A
- Pertsona-kopurua 4.44-A
- Ohartarazitako eta baimendutako erabiltzaileak: ohartarazitako eta baimendutako erabiltzaileentzako bada aparatu bat, esandako hori adierazten duen errotulu edo plaka bat izan beharko du bai kabinaren barrualdean eta bai sarrerako ateetan 4.45-4.46-A
- Enpresa mantentzailearen identifikazioa eta larrialdietarako telefonoa agerrarazten dituen plaka edo eranskailua egon beharko da 4.48-A

B2.4.5.– Kabinaren ateak (8.5.etik 8.10.era bitartean).

a) Badaude (8.5).

- Aparatu guztietako kabinek izan beharko dituzte ateak, salbu eta 8.5.2 paragrafoan zehaztutako kasuetan 4.51-O

b) Erresistentzia (8.6.7).

- Itxitako atearen edozein puntutan, kabinaren barrualdetik 300 N-ko indarra aplikatuz gero, ezin daiteke izan deformaziorik ezta 15 mm-tik gorako deformazio elastikorik ere 4.52-L

c) Gidariak (8.6.6).

- Horizontalean irristatzen diren ateen gidariak izan behar dituzte goialdean eta behealdean 4.53-A
Behealdean gidari gabeko bus erako aterik badago, hori ez da joko akastzat baldin eta erresistentzia egokia badu (4.5.b puntuaren arabera).

d) Behatxuloak edo posizio-adierazlea (8.6.5).

- Kabinaren barrualdetik solairuen zenbakiak ikusi beharko dira, behatxulotik begiratuaz edo posizio-adierazlearen bitartez 4.54-A
- Behatxuloak egokia izateaz gain, egoera onean egon beharko du, zulo edo pitzadurarik gabe 4.55-A

e) Itxiera automatikodun atean harrapatua izateko arriskua (8.7).

- Kabinaren aldean, itxiera automatikodun ateen ezin dute izan 3 mm-tik gorako hutsunerik edo irtenunerik eta euren ertzak alakatuak izango dira 4.56-A
- Ateak pertsonen kontra egin lezakeen kolpearen ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezen, itxiera galarazteko behar den indarra ez da izango 150 N-tik gorakoa 4.57-A
- Ateak berrirezteko babes sentikorrekotik gailua 4.58-L
Zelula fotoelektriko bidezkoa izan daiteke sistema, edo hurbiltasun-banda fotoelektrikoen bidezkoa.

f) Kabinako ateen itxiera-kontrola (8.9).

- Argiztapena badela eta funtzionatzen duela egiaztatuko da 4.59-L

B2.4.6.– Kabinaren sabaia (8.3.1, 8.13).**a) Erresistentzia (8.13.1.a).**

- Sabaia, gainean bi pertsonaren pisua izan arren, deformaziorik gabe iraun beharko du 4.61-L

b) Korrante-hartunea (8.15).

- Ez dago korrante-hartunerik 4.62-A

c) Baranda (57/2005 ED) (8.13.1.c).

Kabinaren sabaiaren ertzetik (alboak eta barrena) 300 mm baino harago badago baiko horma, barandak iraunkorrak izango dira eta erresistentzia aski izan beharko dute.

Barrunbearen neurrien arabera egokitzen jotzen bada, gidari, zilindro eta horrelako elementu finkoekiko tartea neurtuko da (adibidez, 2:1 jaurtiketako igogailu hidraulikoetan edo motxila tipokoetan, neurri txikikoetan alegia). 300 mm-tik gorako sakonera duen 300 mm-tik gorako zabalerarik ez da emango.

Baranda jartzea mantentze-lanetarako arrisku edo eragozpen denean (kabina estuak edo leku falta), behar bezala adierazitako katigatzeko puntu batez ordezkatu ahal izango da –uztai edo antzeko zerbait–, segurtasun-uhala jartzeko; gainera, kabinaren sabaian arrisku-kartel bat jarri beharko da uhala erabiltzea derrigorrezkoa dela dioena. Jarraibide hauek makina-gelan ere jarriko dira.

- Ez badago 4.63-L
- Erresistentzia askirik ez badu 4.64-L

d) Laguntzatarako erregistroak eta tranpolak (8.12).

Baldin badaude:

- Sarraila izan beharko dute eta kanpotik giltzarik gabe zabalduko dira, eta barrutik giltzekin 4.65-A
- Segurtasuneko katigatze elektrikoa izan beharko dute. Funtzionamendua egiaztatu beharko da 4.66-A

B2.4.7.– Atal higikorren eta finkoen arteko lasaierak (11.1.etik 11.4.era bitartean).**a) Kabinaren eta barrunbearen arteko lasaiera.**

- Kabinako atearen eta barrunbearen arteko distantzia 150 mm-tik beherakoa izango da, eta sarrerako atearikiko distantzia 120 mm-tik beherakoa, edo bestela, kabinako ateak blokeo mekanikoa izango du (EN 81-1eko 7.7.3.1 eta 7.7.3.3 art.) 4.71-L
- Kabinak barrunbea ukitzen badu. 4.71-O-L
- Kabinako zoruaren eta sarreraren arteko distantzia ez da izango 35 mm-tik gorakoa 4.72-A

b) Kabinaren eta kontrapisuaren arteko lasaiera

- Kontrapisuko fitxek izan lezaketen mugimendu okerrean kontuan izanik, kontrapisuaren eta kabinaren arteko distantzia 50 mm-tik gorakoa izango da 4.73-A

c) Kontrapisuaren eta barrunbearen arteko lasaiera.

- Kontrapisutik barrunbera arteko distantzia 4.74-A
- Gidari zurrunean, gutxienez 30 mm.

B2.4.9.– Bestelako xedapenak.**a) Hankak babestekoak (8.4).**

Kabina bere beheko topean jarrita, gutxienez 50 mm-ko lasaiera egon beharko da. Oin-babeslearen altuera ahalik eta handiena izango da, hobiaren sakonerarekin bateragarria bada. Hobi berri txiki kasuan, babes-sistema baliokidea izan beharko du, UNE EN 81-21 arauan edo baliokideetan ezarritako eskakizunak oinarri hartuta.

- Ez badago 4.90-L
- Luzera, inklinazioa edo behar adinako erresistentzia ez duela-eta egokia ez bada 4.91-L

b) Kabinaren ateak obligaziozkoak ez direnean, baldintzak (8.5.2).

Baimendutako eta ohartarazitako pertsonak bakarrik erabiltzeko giltza bat instalatu beharko da.

- Konektatu gabekoaren posizioan bakarrik deskatigatu ahaliko da aipatu giltza 4.92-L
- Gailu fotoelektriko bat edo antzeko zerbait izango da, harrapatze-arriskuak saihesteko 4.93-4.94-L

c) Kabinaren azalera (8.2).

- Azalera arauzkoa dela egiaztatuko da 4.95-A

d) Alboko kabinetan, sorospenetarako ateak (8.12.4).

Badaude, gutxienez honako hauek bete beharko dituzte:

- 4.6.d puntuan zehaztutakoa4.96-4.97-A
- Kabinaren barrualderanzkoa izango da irekiera eta bere dimentsioak egokiak izango dira4.98-A

e) Kabinako ispiluak.

- Kabinaren barrualdean ipinitako ispiluak ondo finkaturik izan beharko dira, ikaduretan erori ez daitezen edo apurtzen badira kristal zatiak erori ez daitezen4.99-A

B2.4.0. Beste batzuk.

- Sakagailuak egoera txarrean badaude4.01-A
- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude4.00

B2.5.– KONTRAPISUA, BERE GIDARIAK ETA JAUSGAILUA.**B2.5.1.– Kontrapisua (8.18).**

- Pisuekin osatuak badira, bastidore baten bitartez edo tiranteen bitartez loturikoak izan beharko dute5.11-L

a) Kontrapisuaren sendotasuna.

- Loturen eta egituraren sendotasuna egiaztatuko da5.12-L

b) Irrista-guneak.

- Irrista-guneen egoera egiaztatu beharko da5.13-L

c) Deformazioak.

- Deformaziorik dagoen ala ez egiaztatuko da5.14-L

d) Fitxak.

- Kontrapisuko fitxak ezin daitezkeela erori egiaztatuko da5.15-L
- Fitxen finkapen-elementuak badirela egiaztatuko da5.16-A

B2.5.2.– Kontrapisuaren gidariak (10.2).**a) Gidarien mota.**

- Altzairuzko profil ijeztuzkoak, U edo V erako xafla bakun tolestuzkoak, izango dira gidariak (salbu eta kontrapisuak ikadura badauka)5.21-L

b) Gidarien egoera.

- Gidariak egoera onean dauden ala ez egiaztatuko da5.22-L

c) Gidarien finkapenak.

- Finkapenen egoera ona egiaztatuko da5.23-L

B2.5.3.– Kontrapisuko jausgailua (beharrezkoa denetan).**a) Kableak apurtzen direnerako jausgailuak (9.8.3).**

- Sistema hori badago, linterna batekin eta kabinaren sabaitik (kontrapisua ikuskatzailearen altueran dagoela) beharrezko elementu guztiak dituela eta egoera onean daudela egiaztatuko da5.31-L

b) Mugagailuaz eragindako jausgailua.

Hala kabina nola mugagailua modu berean ikuskatu beharko dira (ikus eranskin honetako 3.1 eta 3.2 puntuak).

- Mugagailuaren eta bere elementuen irisgarritasuna. Ezaugarrien plaka ez izatea edo izanda ere agerian ez izatea akats arintzat joko da5.32-A-L

Mugagailuaren egoera:

- Lasailerak, higadurak, malgukiak, abiadura desegokia5.33-L
 - Mugagailuaren kontrol elektrikoa5.34-L eta 5.35-A
- Eranskin honetako 3.3 puntuan zehaztutakoaren arabera egiaztatuko da mugagailuaren kablea.
- Mugagailuaren kablea egoera txarrean badago5.36-L
 - Mugagailuaren kableak horma edo plaka ukitzen badu5.36-L

- Kablearen lokailua egoera txarrean badago 5.37-L
- Tenkagailuak horma ukitzen badu edo egoera onean ez badago 5.38-L
- Eranskin honetako 3.4.b puntuan zehaztutakoaren arabera ikuskatu beharko da jausgailuaren funtzionamendua.
- Jausgailuak ez badu funtzionatzen 5.39-L

B2.5.4.– Patioetan mugitzen diren kontrapisuaren babeskiak (1/1989 Zirkularra).

Patioetan mugitzen diren kontrapisuak badaude, honako hauek izango dira kontuan:

a) Leihoei dagokienez, babeskiak.

- Babeskiak eduki beharko dira, goiko eta beheko gorputz-adarrekin gune arriskutsuetara ez heltzeko segurtasun-tarteari buruzko UNE EN ISO 13857 arauan xedatuta dagoenaren arabera 5.41-L

b) Patioei dagokienez, babeskiak.

Patioetatik kontrapisuaren bideetarako sarrerak, gutxienez 2 m-ko altuera duen sare metalikozko itxiturarekin babestu beharko dira, eta bai sarrerako atearen (baldin badago) katigatze elektronikorekin eta sarrailekin ere.

- Patiotik kontrapisurako sarrerak ez badu itxiturarik 5.42-L
- Kontrapisuaren ikuskapena egiteko sarrera-ateak ez badauka sarrailek eta ez badauka katigatze elektronikorik 5.43-L

B2.5.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 5.00

B2.6.– KABINAKO ETA KONTRAPISUKO MOTELGAILUAK.

B2.6.1.– Motelgailuak izatea eta kokatzea (hidraulikoak, malgukiak edo tope elastikoak) (10.3.1).

Hobian honako hauek izan beharko dira: motelgailu hidraulikoak, malgukiak edo tope elastikoak.

- Ez dago kabinako motelgailurik 6.11-L
- Ez dago kontrapisuaren motelgailurik 6.12-L
- Kabinako motelgailua ez da egokia 6.13-L
- Kontrapisuko motelgailua ez da egokia 6.14-L
- Motelgailuak hobian kokatzea (kabinari edo kontrapisuari dagokienez, hobian inpaktu-gunea mugatzen duen ostiko edo gailurik ez badago) 6.15-A

B2.6.2.– Motelgailuen eta euren finkapenen egoera.

Instalaturiko motelgailuak egoera onean egon beharko dira. Ez dute izan beharko deformaziorik, hausturarik, koskadun korrosiorik edo goma pitzaturik.

- Kabinako motelgailua egoera txarrean, okertuta edo gaizki finkatua 6.21-L
- Kontrapisuaren motelgailua egoera txarrean, okertuta edo gaizki finkatua 6.22-L

B2.6.3.– Motelgailu hidraulikoen funtzionamendua (badaude).

Motelgailu hidraulikoek olioak dutela eta ondo funtzionatzen dutela egiaztatuko da.

- Kabinako motelgailuak gaizki funtzionatzea 6.31-L
- Kontrapisuko motelgailuak gaizki funtzionatzea 6.32-L

B2.6.4.– Kabinako motelgailuen altuera (10.3.1 eta 10.3.3).

Kabinaren behealdetik hobiaren hondora arteko distantzia, gutxienez, 5.7.3.3.a) atalean azaldu den paralelepipedoa barnean hartzeko nahikoa izan beharko da.

- Kabinaren eta hobiaren arteko distantzia ez da arauzkoa 6.41-L
- Igogailu hidraulikoetan, kabina, karga nominalarekin, motelgailuaren gainean bermatzen denean, lurzorua eta kabinako zoruaren arteko distantzia gehienez 120 mm-koa izango da.
- Lurzorua eta kabinako zoruaren arteko distantzia ez da arauzkoa. 6.42-L

B2.6.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude6.00

B2.7.– AGINTEAK ETA SEGURTASUNEZKO BESTE GAILU BATZUK.**AGINTEAK.****B2.7.1.– Gelditze-etengailua kabinaren sabaian (14.2.2.3 eta 15.3.a).**

Kabinaren sabaian, gelditze-etengailu bat izan beharko da, espezifikoa eta ikuskapen-maniobrara pasatzeko konmutadoretik apartekoa dena.

- Kabinaren sabaian, ez dago gelditze-etengailurik 7.11-L
- Kabinaren sabaiko gelditze-etengailuak ez du funtzionatzen 7.12-L
- Kabinaren sabaiko gelditze-etengailua ez da apartekoa 7.13-L
- Etengailua ez da egokia 7.14-L

B2.7.2.– Ikuskapen-botoiak (14.2.1.3 eta 15.3.b eta c).

- Ikuskapen-maniobrarako konmutadore bat izango da 7.21-L
- Ikuskapen-maniobrarako konmutadorearen funtzionamendua egiaztatuko da 7.22-L
- Ikuskapen-maniobran, mugimendua sakagailu bat etengabe sakatzearen ondoriozkoa izango da 7.23-L
- Ikuskapen-abiadura ez da izango segundoko 0,63 m-tik gorakoa 7.24-L
- STOP seinaleari, konmutadoreari eta martxaren noranzkoari dagozkien zehaztapenek egon beharko dute kabinaren sabaian 7.25-A
- Aginteen funtzionamendua egiaztatuko da 7.26-A
- Botoietara erraz iristen dela egiaztatuko da 7.27-A

B2.7.3.– Gelditze-etengailua hobian eta entxufea (15.7).

Badagoela eta badabilela egiaztatuko da.

- Hobiko gelditze-etengailurik ez badago 7.31-L
- Hobiko gelditze-etengailua ez badabil 7.32-L
- Entxufea ez badago edo ez badabil 7.33-A

BESTE SEGURTASUN-GAILU BATZUK.**B2.7.4.– Sare ekipotentziala.**

Ateek, gidariek, kabinak, makinak, mugagailuak eta maniobra-koadroak konektatuta izan beharko dute, lur-konexiorako sare ekipotentziala osatuz.

Ondoko hauek akastzat joko dira:

- Aipatutako edozein elementuk ez badu konexio ekipotentzialik 7.41-A
- Aipaturiko elementuren baten konexio ekipotentziala egoera txarrean badago 7.42-A

B2.7.5.– Ibiltarte bukaerak (10.5).

Igogailu hidraulikoetan, goiko ibiltarte bukaera bakarrik da derrigorrezkoa, eta kabina noraezean bada jardunak iraun egin beharko du.

Ibiltarte bukaerak jardunaraziz maniobra eten egiten dela egiaztatuko da.

- Goiko ibiltarte bukaerak ez badu funtzionatzen 7.51-L
- Beheko ibiltarte bukaerak ez badu funtzionatzen 7.52-L
- Igogailu hidraulikoetan, ibiltarte bukaera egokia ez bada 7.53-A

B2.7.7.– Lehentasunak eta atzerapen-gailua (tenporizazioa) (14.2.4) (7.8).

Kabinako aginteen lehentasuna, kanpoko deiekikoa. Ateak itxi ondoren, aipatu lehentasunak hiru segundoz irauten duen ala ez egiaztatuko da.

- Kabinako aginteen lehentasunik ez badago 7.71-A

– Atzerapen-gailua (tenporizazioa).

Kabina ibil dadin, kabinaren barrualdetik geraleku bati dagokion botoia sakatuko da; dena delako, pisura ailegatu baino lehen, noranzko berberean beste pisu batena sakatuko da, eta hasieran hautatutako pisuan kabina gutxienez bost segundoz geratu dela egiaztatuko da.

- Kabina-tenporizazioa ez badabil 7.72-A
- Kabina-tenporizazioa aski ez bada 7.73-A
- Igogailua geldidago, kabinako ateek itxita egon beharko dute 7.74-A

B2.7.8.– Akats elektrikoetatik babestea (14.1.1.1).

Ekipo elektrikoaren akatsek ez dute izan behar berez igogailuaren funtzionamendu arriskutsuaren kausa.

- Fase-inbertsorearen babeskia ez izatea edo ez funtzionatzea 7.81-L

B2.7.9.– Kabina mugitzearen segurtasuna (57/2005 ED).

- Kabina ez dela mugitzen edo kableak lerratu direla detektatuko eta motorraren elikadura moztuko duen gailua eduki behar dute igogailuek 7.91-L

B2.7.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 7.00

B2.8.– BAOA.**B2.8.1.– Bao irekietako itxiturak (5.2.1).****a) Itxituraren altuera.**

Eraikina suteak zabaltzetik babesteko sistemaren parte ez bada baoa, sarrerei ez dagozkien hormek 2,5 m-ko garaiera izatea onartuko da.

- Itxiturak bao osoa hartu behar du 8.11-L

b) Itxituraren materiala (5.3).

Erregaitza, iraupen handikoa eta hautsik ateratzen ez duena izan beharko du materialak.

Beirazko babeskiak:

- Beira armatuaren lodiera ez da izango 5 mm-tik beherakoa 8.13-A
- Markoak eta kristal-zumitzak metalikoak izango dira 8.14-L
- Material batzuk, beira normalak, armatuak edo bereziak, lodiera txikiagokoak, 5.3.a) artikularekin (erresistentzia egokia) bat badatoz onartuko egingo dira. Zalantzarik badago, Industriako Lurralde Ordezkaritzari kontsultatuko zaio 8.15-A

c) Zuloak itxituran.

- Irekiguneak eta zuloak «arriskugarritzat» joko dira goiko eta beheko gorputz-adarrekin gune arriskutsuetara ez heltzeko segurtasun-tarteari buruzko UNE EN ISO 13857 araua betetzen ez dutenak 8.16-O-L

d) Kabinaren sarreren aurreko itxitura (5.4.3.1).

Kabinaren sarreren aurrean, kabinaren irekigunearen zabalera guztia hartzen duen itxitura bat izango da, azalera bertikal jarraitua duen horma batez egingo da, eta horma hori, elementu leun eta gogorrez osatua egongo da, hala nola pieza metalikoez, estaldura gogor eta higagaitzez.

- Ez dago aipatu obligaziorik kabinako ateei deskatigatze-aldetik bakarrik irekitzen uzten duen kontrol elektrikoko katigatze mekanikoa dutenean 8.18-L

B2.8.2.– Bao itxietako barrunbeak.**a) Barrunbearen egoera.**

Erresistentzia (5.3).

- Hormek 300 N-ko indarrari eutsi egingo diote, deformazio elastikoak 10 mm-tik gora egiten ez duela .. 8.21-L Zuloak.
- Euretara iritsi daitekeela-eta arriskutsuak diren zuloak eta zulaketak dauden ala ez egiaztatuko da. (Ikus UNE EN ISO 13857) 8.22-O-L
- Barrunbearen kanpoaldetik ezin badaiteke iritsi zuloetara 8.23-A
- Baoa beste lokal batzuekin komunikatzeko zuloak, aireztapenerako balio dutenak, saretxoez estaliak badaude ere, ez dira onartuko 8.23-A Ertz arriskutsuak.
- Ertz arriskutsurik dagoen ala ez egiaztatuko da (2 cm-tik gorako irtenuneak), hain zuzen ere kabinako sabaian mantentze-lanetakoak eta ikuskatzaileak gorantz doazelarik istripuren bat eragin diezaieketenak. Ertzak alakaturik egongo dira, horizontalarekiko 75° gutxienez 8.24-L Kabinan aterik ez duten aparatuetan, sarreraren aurreko hormaren azalera (5.4.2).
- Horma leuna eta jarraitua izango da, 5 mm-tik gorako irtenunerik ez duena, ertz borobilak dituenak. Aipaturiko irtenuneak baino handiagoak badaude, alakatu egingo dira 75° 8.25-A
- Hormak material iraunkorrekoak izango dira 8.26-A

b) Barrunbearen irekiuneak (5.2.2).

- Sarrerak, kableak pasatzeko zuloak eta aireztapenerako irekiuneez gain, ikuskapenak eta kontserbazioa egiteko irekiuneak izan daitezke. Irekiune horiek katigatze elektrikoduna izango dute 8.27-L

B2.8.3. Barrunbeen separazioa (5.6).

Bao berean igogailu bat baino gehiago badago, barrunbeen artean tarte bat egongo da:

- Kabinaren sabaiko ertzetik beste elementu mugigarri batzuetara arteko distantzia 40 cm-tik gorakoa bada, gutxienez 2,5 m-ko altuera duen bereizte elementu bat egongo da hobian 8.31-L
- Distantzia 30 cm-tik beherakoa bada, bereizte elementuak barrunbearen garaiera guztia hartuko du 8.31-L

B2.8.4.– Argiztapena (19. art.) (57/2005 ED).

Kabina mugitzen den barrunbean argiztapen artifiziala egongo da (20 lux-etik gorakoa).

Azpiko solairuko sarrerako atetik erraz iristeko moduan etengailu bat egongo da hobian, gutxienez hobiko argiztapena soilik eragingo duena. Hori ez da beharrezkoa izango makina-gela ate horretatik hurbil badago.

Baoa zabalik badago eta barrunbearen kanpoaldean argi aski badago, ez da beharrezkoa argiztapena.

- Baoan argiztapenik ez badago edo ez badu funtzionatzen 8.41-8.42-A
- Hobian etengailurik ez badago edo ez badabil 8.44-A

B2.8.5.– Aireztapena (5.2.3).

- Baoek aireztapena izango dute, kanpotikoa edo makina-gelatikoa (gutxieneko azalera: baoaren sekzioaren % 2,5) 8.51-8.52-A

B2.8.6.– Segurtasunezko ibiltarte libreak (5.7).

- Beharrezkoak dira segurtasunezko ibiltarteak bai goialdean eta bai behealdean 8.61-8.62-L
- Zenbait kasutan, onartu egingo da haga tolesgarri bat egotea, bai hobian eta bai kabinaren sabaian, betiere, haga horrek bere dimentsioak eta zurruntasuna direla-eta distantziak mantentzen baditu, mikroetengailu bat badu eta abisu-kartel bat badu. Antzeko segurtasuna ematen duten beste sistema batzuk ere egon daitezke (Industriako arloan eskudun den Sailak onartutakoak izan beharko dute). Zaharberitutako edo aldatutako instalazioak ez badute segurtasun-bolumenik (0,8 x 0,6 x 0,5 m-ko paralelepipedoa goiko aldean eta/edo 1 x 0,6 x 0,5 m-koa beheko aldean), UNE EN 81-21 arauan ezarrita dagoenaren araberrako edo egiaztatutako erakunde batek onetsitako neurri alternatiboak jarriko dira, industria arloko organo eskudunak baimena eman ondoren.

B2.8.7.– Hobia (5.7.3).

Hobirako sarbidea.

- Arriskurik gabe jaisteko gailu bat izango da (eskailera, mailak,...).....8.71-A
Ur-iragazketak.
- Ur-iragazketarik den ala ez egiaztatuko da8.72-A
Hobian material erregarriak edo arraroak daude.
- Dauden ala ez egiaztatuko da8.73-A

B2.8.8.– Kontrapisuuko jausgailurik gabeko hobiaren behealderako sarrera (5.5).

Ahal dela hobiaren behealderako sarrera dagoen egiaztatuko da, kontrapisuak jausgailurik ez duenean.

- Kontrapisuaren motelgailuen edo oreka-masaren ibiltarte-azaleraren proiektzioaren azpian lurreraino zutabe bat badago, kontrapisuari eutsiko diona, ez da jausgailuaren beharrik izango 8.81-L

B2.8.9.– Beste batzuk.**Instalazio arraroak (5.8).**

- Baoan igogailuaren zerbitzuari ez dagokion instalaziorik (TB instalazioak, telefono-instalazioak, argindarrarenak, gasarenak, etab.) ez dagoela egiaztatu.....8.91-A

B2.8.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude8.00

B2.9.– MAKINA-GELA, POLEA-GELA ETA TRAKTORE-MULTZOA.**MAKINA-GELA.****B2.9.1.– Sarbideak.****a) Sarrerak (6.2).**

- Sarbideek argiztapen egokia izan beharko dute (non eta kanpoan ez dauden).....9.11-A
– Segurtasunez erabili ahal izango dira:
- Leuna eta erresistentzia aski duena izango da zorua. Zabaltzetan dauden eta urez estalita egoteko diseinatuak diren gelen kasuan, sarrera seguru bat egongo da, pasabide eta baranda egokiekin9.12-A
- Ez dira lokal pribatuetatik igaroko9.12-A

Eskailera edo eskalekin egindako sarrera:

- Sarbidea eskailerekin egindakoa bada, inklinazioa ez da izango 60 gradutik gorakoa, gutxienez 70 cm-ko zabalera izango du, eta eskudelak izango ditu. Goialdean helduleku bat edo batzuk izan beharko ditu eskura9.12-9.13-A

Eskala ezkutagarriak badaude, sarbidean (edo sarbidetik hurbil) finkatu beharko dira, ez kentzeko moduan.

Eskalaren zabalera erabilgarria gutxienez 0,35 m-koa izan behar da; mailen sakonera gutxienez 25 mm-koa izango da, eta eskala bertikalen kasuan, mailaren eta eskalaren atzeko hormaren arteko distantzia gutxienez 0,15 m-koa izango da; mailak 1500 N-ko karga baterako diseinatu behar dira.

- Eskala ezkutagarriak badaude, goialdean heldulekuak izango dira (lehendik dauden eskailera baliagarritzat joko dira baldin eta igoerak segurtasunez egiteko baliagarriak badira)9.12-9.13-A
- Sartzeko tranpolik badago, goitik irekitzeko modua egon beharko da (norbaitek behetik ixten baditu). Erortzeko arriskua prebenitu beharko da eskalaren inguruan 1,50 m-ko distantzia horizontalean, eskalarena baino altuera handiagoan9.14-A

b) Atea edo tranpola (6.3.3).

- Makina-gelaren barrualdera sartzeko atea edo tranpola metalikoa izan beharko da, gutxienez 1,80 m-ko altuerarekin eta 0,70 m-ko zabalarekin ateentzat eta 0,80 x 0,80 m tranpolentzat (zurezko ate blindatuak edo barruko estaldura altzairuzkoa duten zurezko ateak ere onar daitezke)9.16-A
- Atearen edo tranpolaren egoera egiaztatuko da: bisagrak, markoen finkapena, zuloak, tranpolaren erresistentzia (halakorik badago), etab.9.16-A

- Sarrerako atearen edo tranpolaren sarraila, gelaren kanpoaldetik giltzaz itxia ahal izango da eta barrualdetik giltzarik gabe zabaldu, itxi ondoren. Materiala hartzeko bakarrik diren tranpolek barruko larako bat bakarrik eduki ahal izango dute 9.17-A
- Gelaren kanpoaldean atearak arrisku-kartel bat izan beharko du 9.18-A
- Tranpolak babeskia eduki beharko du erorketak ekiditeko 9.19-A

B2.9.2.– Makina-gelaren barrualdea.

a) Hormak, sabaia eta zorua (6.1.etik 6.3.era bitartean).

- Ateek erresistentzia egokia izan beharko dute, ez dute material erregarririk izango, eta ez dira egoera txarrean egongo 9.21-A
- Bankadaren aldean edo makinaren inguruan, makina-gelaren zoruak irrist egiten ez duena izan beharko du 9.22-A
- Sabaia ez da izango egurrezkoa eta ez da egongo egoera txarrean 9.23-A
- Ez da egongo zulorik, salbu eta kableentzakoak, makina-gelaren aireztapenarentzakoak edo baoarenak, zeintzuk saretxoekin estalita egongo baitira 9.24-A

b) Bankadarako sarbidea eta barandak (6.3.2.4).

- Makinaren bankadarik badago, gelako zorutik altxatutakoa, sartzeko eskailera edo mailak eta baranda egongo dira, baldin eta 50 cm-tik gorakoa bada altuera. 9.25-A
- Zorutik gora, gutxienez 50 cm-ra badago bankada, albo orotan jarri beharko dira babeskiak eta 90 cm-ko barandak 9.25-A

c) Kanpoko instalazioak (6.1.1).

- Baoaren barruan igogailuaren zerbitzuari ez dagokion instalaziorik (TB instalazioak, telefono-instalazioak, argindarrarenak, gasarenak, etab.) ez dagoela egiaztatu 9.26-A

d) Hormak zeharkatzekoak (6.3.4).

- Objektuak jausi ez daitezen, hormak pasatzeko zorro batzuk egongo dira, zoruaren nibela 50 mm-tan gaingiditzen dutenak. 9.27-A

e) Kakoa edo erraildun habe (6.3.5).

- Kakorik edo erraildun habarik ez egotea akats gisa azalduko da 9.28-A

f) Kanpoko materialak.

- Zerbitzukoak ez diren materialak egotea akastzat jasoko da 9.29-A

B2.9.3.– Beste batzuk.

a) Aireztapena (6.3.5.1).

- Makina-gelak aireztapena izan beharko du, ahal dela kanpora. Atean edo aireztatutako beste lokal batean dagoen sareta baten bitartezko aireztapena baimenduko da 9.31-A
 - Nahita itxi daitekeen aireztapen-leihorik badago, hori akastzat jasoko da (leiho horiek katigatze-sistema bat izan behar dute, zeinak ez baitu utziko baimenik gabeko inork ireki ditzan) 9.32-A
 - Aireztapenak dimentsio egokiak izan beharko ditu 9.32-A
- Aireztapen artifiziala onartuko da, baldin eta berriztapen-ordu kopuru jakin bat ziurtatzen bada.

b) Tenperatura (6.3.5.2).

- + 5.°C-tik + 40.°C-era bitartean eutsi beharko zaio makina-gelako tenperaturari 9.33-A

c) Itoginak.

Makina-gelaren barruan itoginak egotea akats arintzat jasoko da.

Koadro elektrikoari, makinari edo mugagailuari eragiten dieten itoginak akats Larritzat jasoko dira.

- Makina-gelaren itoginak egotea 9.34-A-L

d) Igogailuaren liburua.

- Aparatuaren ezaugarriak eta mantentzeari buruzko liburu bat egongo da. Liburu hori ahal dela makina-gelaren edo jabearen esku egongo da. Liburua baden eta ikuskapen ofizialei eta mantentzeari buruzko oharra dauden egiaztatuko da 9.35-9.36-A

e) Larrialdietarako maniobra-jarraibideak (2001-04-03ko Agindua).

- Makinari eskuz eragiteko, larrialdietarako jarraibideak egongo dira makina-gelan eta kabina solairuan dagoela egiaztatzeko modua jasoko dute. Jarraibide horiek erraz interpretatzekoak izan beharko dira 9.37-9.38-A
- Solairu-ateetako giltza bat egongo da makina-gelan; giltza hori erabiltzeko, larrialdietarako jarraibideak egongo dira. Jarraibide horiek erraz interpretatzekoak izan beharko dira 9.37-9.38-A

f) Teilaturako sarbidea makina-gelatik.

- Ezingo du egon makina-gelatik teilaturako sarrerarik. Sarbide horiek gutxienez saretxo batekin estali beharko dira (Ekonomia dela-eta, ez badago beste sarrera bat egiteko arrazoizko aukerarik, ez da jasoko akastzat, baldin eta sarbide horrek giltza edo giltzarrapoa badu, jabetzaren arduradunak kontrolatzen duena) 9.39-A

B2.9.4.– Instalazio elektrikoa.**a) Argiztapena (6.3.6 eta 13.6).**

- Badela eta funtzionatzen duela egiaztatuko da 9.40-A
- Makinak eta maniobra-koadroak argiztapen egokia izan beharko dute, 200 lux-ekoa edo hortik gorakoa 9.41-A
- Lanparak zorro finkoa izan beharko du 9.42-A
- Argiztapenaren etengailua indar-etengailuarekiko eta gainerako zerbitzuekiko apartekoa izan beharko da 9.43-A

b) Korrante-hartunea (6.36).

- Gutxienez korrante-hartune bat izango da (entxufea) 9.44-A

c) Etengailu orokorra.

- Aparatu bakoitzeko etengailu orokor bat egongo da, indarra fase guztietan eteten duena (omnipolarra) eta kalibratua dena (magnetotermikoa edo fusible bidezkoa) 9.45-A
- Ez da onartuko etengailu diferentzial bat etengailu orokortzat hartzea.

d) Babes diferentziala.

Babes diferentziala egongo da, bai indar-zirkuituan eta bai argiztapenarenean ere (diferentzialak makina-gelan zein beste edozein lekutan egon ahalko dira).

Instalazioan lurreko konexio ekipotentzial eragingarriak ez badago, argiztapenaren diferentziala 30 mA izango da.

- Babes diferentzialik ez badago 9.46-L
- Makina-gelan ez badago 9.00-A
- Probak egiteko botoia sakatuaz egiaztatuko da diferentzialen funtzionamendua (ez da beharrezkoa diferentzialen sentikortasuna neurtzea, nahiz eta neurtu egin daitekeen) 9.47-L

e) Motorraren babeskia.

- Motorrak babeski bat izan beharko du. Funtzionamendua ez da egiaztatu behar 9.48-A

f) Maniobra-koadroa.

- Honako hauek egiaztatuko dira: fusibleak, erreleak, kontaktuak, kableak, etab, zeintzuk egoera onean egon beharko baitute 9.01-L

POLEA-GELA.**B2.9.5.– Polea-gelaren baldintzak (6.4.1).****a) Sarbidea.**

- Makina-gelarentzako zehaztutako baldintza berberak bete beharko ditu polea-gelarako sarrerak (ikus eranskin honetako 9.1.a puntua) 9.11-A

b) Atea.

- Sarrera-ate erresistente bat egongo da 9.16-A
- Ateak arauzko sarraila bat izan beharko du 9.17-A
- Arrisku-kartel bat egongo da 9.18-A

c) Argiztapena.

- Argiztapena badela eta funtzionatzen duela egiaztatuko da 9.40-A

d) Gelditze-etengailua (27. artikulua).

- Gelditze-etengailua badagoela eta funtzionatzen duela egiaztatuko da 9.55-L

e) Entxufea.

- Entxufea badela egiaztatuko da 9.44-A

f) Sabaia.

- Sabaia ez da izango zurezkoa 9.57-A

g) Zorua.

- Kabinako sabaiaren eta poleetarik edozeinen goialdearen artean 1,70 m-tik gorako altuera dagoela-eta, poleen mantentzea ezin bada egin kabinaren sabaitik, polea-gelak egurrezko ez den zorua izan beharko du 9.58-A

h) Segurtasuna poleetan.

- Inbertsio- eta desbideratze-poleek, hau da, polea-gelan, baoan edo kabinan daudenek ondoren zehaztutakoak ekiditeko babeski egokiak izan beharko dituzte: kableak irtetea, kableetan eta euren arteketan objektuak sartzeari. Poleen finkapenen egoera eta sendotasuna ere egiaztatuko dira 9.62 eta 9.63-A

TRAKTORE-MULTZOA.**B2.9.6.– Traktore-multzoa eta bere balazta-elementuak (aparatu elektromekanikoak).****a) Traktore-polea.**

- Polearen higadura linterna batekin begiz egiaztatuko da, kableek estugunearen hondoa ez dutela ukitzen eta ez dutela irrist egiten egiaztatuz 9.61-L

- Kableek polean irrist egiteko posibilitatea egiaztatuko da. Erreferentzia gisa, honela egiaztatu ahal da: Kabina ibiltarte muturretari batean izanik, klarionaz edo antzeko zerbaitez kableen eta polearen posizioa markatuko da. Joan-etorritzko ibiltarte osoa eginda. 1:1 neurriko esekiduretan irristadura 5 cm-tik gorakoa bada edo makina behean delarik edo esekidura diferentzialetan 8 cm-koa bada, akatsa jaso egin beharko da 9.61-L

b) Kableak irteteari, harrapatzeari eta objektu arraroak sartzeko arriskuari kontra egiteko babeskia.**(12.3.a) (57/2005 ED).**

- Ertz bat libre duten poleetan, kableak irteteari kontra egiteko babeskia dagoela egiaztatuko da begiz. Ez badago edo ez badago agerian 9.62-A
- Erraz iritsi ahal den poleetan begiz egiaztatuko da harrapatzeari eta objektu arraroak sartzeko arriskuari kontra egiteko babeskia dagoela (EN 81-1en 9.7.1 eta 9.7.2 puntuen arabera, hala badagokio) 9.63-A

c) Itsaspena.

- Kontrapisua bere topeetan bermaturik dagoela, kabinaren goranzkoan eraginez motorrari, kableek polean irrist egiten dutela egiaztatuko da (Jausgailuaren proban, eranskin honen {3.4.b} puntuan zehaztutakoan, egin daiteke egiaztapen hori). Itsaspena gehiegizkoa bada, kabinari irrist eginaraziz, hori akats gisa jasoko da 9.64-L

d) Balazta.

Begiz egiaztatuko da balaztaren egoera orokorra, sistemaren lasaierak eta higadurak egiaztatuaz (malgukiak, giltzadurak,...) Eszitazioko korrante elektrikorik ez dagoenean edo maniobrak zirkuitua irekita ez dagoenean balaztak automatikoki funtzionatzen duela egiaztatuko da, bereziki maiztasun-aldaketaren bidezko abiadura-kontrol-dun maniobra-koadroa duten igogailuetan.

- Faserik ez izateagatik hondatuta badago edo huts egiten badu, edo mekanismoa ale bakarrekoa bada 9.65-9.66-L
- Balaztatze-koak 3 mm badituela egiaztatuko da (ezin dira amiantozkoak izan) 9.67-L
- Balazta-danborraren egoera egiaztatuko da begiz 9.68-L

e) Desbideratze-polea.

- Higadura egiaztatuko da 9.69-A

B2.9.7.– Multzo hidrauliko eragilea.**a) Presioa mugatzeko balbula.**

- Zirkuitua hidraulikoki probatuko da, zilindrikoarekin konexioa egiteko mahuka ere bai (presioari gutxienez 10 segundoz eutsiz) 9.71-L
- Zamarik gabe, igotzean eta funtzionamendu normalean duen presioa halako bitik gorakoa ez dela egiaztatuko da 9.72-A-9.73-L

b) Jausgailu-balbula.

- Badela egiaztatuko da eta ahal bada bere funtzionamendua (kabina geldiarazten bada edo astiro jaisten bada, proba onartu egingo da) 9.74-L
- Egiaztapena kargarekin ezin egin izan dela-eta, emaitza onik ezin lortu bada, akatsa jaso egingo da, oharretan «Kabinak karga duelarik egiaztatu beharko da jausgailu-balbularen funtzionamendua» jasoaz.

c) Kableak irteteari eta harrapatzeari kontra egiteko babeskia (57/2005 ED).

Pistoiaren buruko polean harrapatzeari eta objektu arraroak sartzeko arriskuari kontra egiteko babeskia dagoela egiaztatuko da begiz (EN 81-2ren 9.4.1 eta 9.4.2 puntuen arabera).

- Ez badago edo egokia ez bada 9.75-A

B2.9.8.– Makinaren egoera orokorra.**a) Aparatu elektromekanikoetan.**

Makinaren egoera orokorra egiaztatuko da, honako hauek egiaztatuz:

Lasaierak:

Polea eskuz mugitzen ahalegindu.

Makina gelditzean polearen mugimendu arrarorik dagoen begiratuko da.

- Garrantziaren arabera, akatsa larria edo arina izan daiteke 9.81-A-L
- Olioia galtzea 9.82-A-L
- Makinaren zarata arraroak 9.83-A-L
- Makinaren bibrazio gehiegizkoa 9.84-A-L
- Makinaren egonkortasuna. Makinaren egonkortasuna) Ikadura egiten denean makina finko dagoela egiaztatuko da (irauli egiteko posibilitatea) 9.85-L
- Makinaren isolamenduen egoera (gomak, kortxoak, ...) narriadurak ia apoioaren edo bastidorearen desnibelik eragiten duen 9.86-A-L
- Uhal trapezoidalik badago, egoera onean egon beharko dute, gutxienez 3 egongo dira eta tentsio egokia izan beharko dute (ez da onartzen eragiteko beste sistemarik) 9.87-A
- Gorago zehaztutako akatsetariko bat baino gehiago antzemanaz gero, akats bat bakarrik jasoko da 9.88-A-L

b) Aparatu hidraulikoetan.

Multzo hidraulikoaren egoera orokorra egiaztatuko da:

- Olioia galtzea 9.82-A-L
- Manometroaren funtzionamendu txarra 9.89-A

B2.9.9.– Larrialdietako eragintza.**a) Aparatu elektromekanikoetan.**

Balazta desblokeatzea eta kabina hurrengo geralekuraino eramateko eskuz jardutea ahalbidetzen dituen gailu bat izango da.

- Eragiteko palankarik ez badago (makina-gelan) edo ez bada egokia 9.90-9.91-A
 - Gailurik ez badago edo egokia ez bada 9.92-A
 - Sistemaren funtzionamen egokia egiaztatuko da 9.93-A
- Bolanteak laua eta erradio gabekoa izan beharko du (orekatze-zuloak bakarrik onartzen dira).

Galarazita dago biraderak erabiltzea.

- Zehaztuta egon beharko du bolanteak norantz jiratuko duen 9.94-A
- Ez da izango atzamarrak harrapatuak izateko posibilitaterik 9.95-A

b) Aparatu hidraulikoetan.

- Sistemaren funtzionamendua probatuko da 9.96-A

c) Erreskate-sistema automatikoak (badaude).

Korrontea falta dela, erreskate-sistema automatikoek segurtasunari dagokionez ezin dute ezer deuseztatu ezta zubirik egin ere.

- Sistemak ez badu funtzionatzen 9.97-L
- Sistema ez bada egokia (ez dira onartuko marruskadura-sistemak, edo, halaber, segurtasunetan zubiak egiten badira) 9.98-A

Aurreko puntuak, ondoko kasuetan bakarrik jasoko dira akats gisa: aparatuak izan behar dituenean, edo kabinan hala adierazten bada. Beste kasu batzuetan (esate baterako, aparatu esperimentalak) sistema ez badabil, ez da zehaztuko 9.98 akatsa.

d) Kabinaren kokapena kontrolatzea.

Kabina ateen sarraila deskatigatzeko aldean dagoela ezagutzea ahalbidetzen duen gailurik badago, bere funtzionamendua egiaztatuko da.

- Badago eta ez badu funtzionatzen 9.99-A

B2.9.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 9.00

B2.10.– MAKINEN EREMUAK (MAKINA-GELARIK ETA CE MARKARIK EZ DUTEN IGOGAILUAK).

Makina-gelarik ez duten igogailuen ikuskapenak egiteko, oinarri gisa hartuko da Teknologia eta Segurtasun Industrialeko Zuzendaritzaren 1997ko apirilaren 3ko Ebazpenaren arabera ezarrita dagoena (KONE) (1997-04-23ko BOE eta 1997-05-23ko zuzenketa) eta Teknologia eta Segurtasun Industrialeko Zuzendaritzaren 1998ko irailaren 10eko Ebazpenaren babespean daudenak (OTIS), hobiko makinenak (1998-09-25eko BOE).

Igogailu horietarako, tradizioaletarako bezala, ikuskatu beharreko puntu batzuk daude, guztientzat berdinak direnak.

Puntu horiek atal hauetan ageri dira: 9.1 (sarbideak eta ateak/tranpolak), 9.2 (makina-gelaren barrualdea) 9.3 (beste batzuk) eta 9.4 (instalazio elektrikoak).

B3 ERANSKINA**CE MARKA DUTEN IGOGAILUEN IKUSKAPENA (1314/1997 E.D.) (95/16/CE)**

Orokorrean, igogailuen 95/16/CE Zuzentarauaren transposizioa egiten duen abuztuaren 1eko 1314/1997 Errege Dekretuan xedatutako segurtasunerako oinarritzko baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da.

UNE EN 81-1 eta 81-2 arauen arabera guztiz diseinatu ez diren CE markadun igogailuak, eranskin honetako puntu aplikagarrien arabera ikuskatu ahal izango dira. Araua betetzen ez duten zatiei dagokienez, fabrikatzaileak emandako konponbideak egiaztatuko dira.

Makina-gelarik ez duten igogailuen kasuan edo EN 81 arauen arabera diseinatuta ez dauden kasuan, beharrezkoa izango da egiaztatutako kontrol-erakundeak emandako diseinuaren berrikuste edo diseinu-motaren inguruko CE egiaztatzea, dagozkion eranskinekin batera.

UNE EN 81-1 eta 81-2 arauen arabera diseinatutako aparatuen kasuan, honakoa egiaztatuko da:

B3.1.– BAORA SARTZEKO ATEAK ETA EUREN KATIGATZE-GAILUAK.**BAORA SARTZEKO ATEAK.**

Begiz ikuskatuko dira igogailuaren ibilbide osoa eta geraleku guztiak, dagoen ate-mota egiaztatu beharko da, baita bere funtzionamendu-sistema ere (zabukaria, eskuz lerratzea, erdi-automatikoa, automatikoa).

Dauden ate guztietan honako puntu hauek ikuskatu beharko dira:

B3.1.1.– Ateen ezaugarriak.**a) Ate-motak.**

Beirazkoak badira (7.2.3.5 eta 7.2.3.6)

- Markaketa (marka, mota eta lodierak) 1.18-A
- Ate automatikoetan (68/2000 D., obligaziozkoa), markorik gabeko beira opakua izango da, 1.1 m artekoa, edo atzamarrak detektatuko dira 1.19-L

b) Lasaierak eta tartekak (7.1).

Itxita daudela, ez du egon behar lasaierarik edo tarterik ateen artean, edo ateen eta marko edo atalaseen artean.

- 10 mm-tik gorako eta 20 mm-ra arteko lasaierak badaude 1.13-A
- 20 mm-tik gorakoa bada 1.13-O

c) Ebakitzeko arriskua (7.7.2).

- Ate lerrakor automatikoen kanpoaldean ez dagoela irtengune edo zirriturik –3 mm-tik gorakorik– egiaztatu beharko da, eta mugimenduaren noranzkoan ertz alakatuak izan beharko dituzte 1.15-A

B3.1.2.– Ateen egoera.**a) Ateen sendotasuna (7.2.1).**

Kanpotik edozein puntutan 300 N-ko indarra aplikatuz gero:

- Ez da sortu behar kabinaren ibilbidea hartuko duen deformaziorik 1.21-O
- Kabinan atea duten aparatuetan deformazio elastikoa 15 mm handiagoa da 1.21-L
- Kabinan aterik ez duten aparatuetan deformazio elastikoa 5 mm-tik gorakoa eta 15 mm-tik beherakoa da 1.21-A

b) Ateen gidarien eta bisagren sendotasuna (7.2.1).

Topera heldu direla, zabaltzeko ahalegina eginez, lasaierak eta higadurak ikusiko dira. Ate automatikoen kasuan, ateen sendotasunari dagokionez aurreko puntuan adierazitako probak egingo dira.

- Funtzionamendu egokia eragozten ez duten lasaierak daude 1.22-A
- Funtzionamendu egokia eragozten duten lasaierak daude 1.22-L

c) Ateen markoak hormari lotzea.

Edozein noranzkoan 300 N-ko indarra aplikatuaz markoei, markoak mugitzen diren ala ez egiaztatu beharko da:

- Mugimendua 5 mm-koa baino handiagoa bada 1.23-L
- Mugimendurik bada baina 5 mm-koa baino txikiagoa bada 1.23-A

d) Ate automatikoetan gailu sentikorra, detekzio-sistema (7.5.2.1.1.1 eta 7.5.2.1.1.3). (68/2000 Dekretua).

Ixteko esfortzua eta berririkiera sentikorra egiaztatuko dira.

- Ixtea eragozteko esfortzua ez da izango 150 N-tik gorakoa 1.24-A
- Trabaren batekin kontaktua egin ezker areak automatikoki berririki behar dira 1.25-L

e) Oxidazioa.

- Bada oxidaziorik 1.27-A
- Materiala galarazten duen oxidazio handia dago, erresistentzia gutxituaz 1.27-L

f) Deformazioak.

- Ateetan, kolpeek eragindako deformazioak (batez ere aparatu industrialetan) dagoen egiaztatu beharko da, hain zuzen ere, lasaierak edo tarteak sortzen dituztenak (ikus eranskin honetako 1.1.b puntua), eta halaber, konpondu beharreko beste kalte batzuk 1.28-L

B3.1.3.– Kabinaren presentzia detektatzea.**a.1.– Seinale akustikoaz (68/2000 D.).**

- Ate automatikorik bada, ez izatea edo ez funtzionatzea akastzat joko da 1.30-A

a.2.– Argizko seinaleaz (7.6.2.b eta 68/2000 D.).

- Ez izatea edo ez funtzionatzea akastzat joko da (ate automatikoetan izan ezik) 1.31-A

b) Behatxulo garden eta zeharrargien bitartez (7.6.2.a).

Behatxuloen ezaugarriak egiaztatzea (materiala, finkapena, lasaierak eta akatsak)

Akastzat joko dira:

- Arriskugarriak kontsideratzen diren zuloak behatxuloan. Irekiguneak eta zuloak «arriskugarritzat» joko dira goiko eta beheko gorputz-adarrekin gune arriskutsuetara ez heltzeko segurtasun-tarteari buruzko UNE EN ISO 13857 araua betetzen ez dutenak 1.32-O
- Pitzatutako beirak 1.33-A
- 6 mm-tik beherako lodiera duten beirak 1.34-A
- Behatxuloen zabalera ez da egokia. Gorenko zabalera 150 mm-koa da eta txikiena 60 mm-koa . 1.35-A

Behatxuloen erresistentzia ez-egokia:

Behatxuloaren erdialdean barruko aldetik eta kanpoko aldetik 300 N-ko indarra aplikatuko da. Behatxuloak ez badio eusten, 1.32 edo 1.33 akatsa adierazi beharko da.

Onartu egingo da behatxuloaren materiala polikarbonatozkoa izatea (erresistentzia handia duelako eta erregaitza delako). Materialaren gaineko zalantzarik izanez gero, enpresa kontserbatzaileak ziurtapena egin lezake, baldin eta instalatutako plastikoa polikarbonatoa bada.

- Plastikoa baimenduen arteko lege ezin bada identifikatu edo instalatzailearen ziurtagiririk (polikarbonatozkoa izateari buruzkoa) ez bada, hori akats gisa adieraziko da 1.36-A
 - Behatxuloak 80 mm-tik gorako zabalera badauka eta beheko ertzetik lurrerainoko distantzia 1 m-tik beherakoa bada, hori akatsa dela adieraziko da (salbu eta polikarbonatozkoa edo baimendutako beste plastiko batezkoa bada) 1.36-A
- Behatxuloak gaizki finkatuta daude.
- Behatxuloaren materiala edo beirak ezin daitezke mugitu 1.37-A

c) Sarbideetako argiztapena (68/2000 D) (7.6.1).

- Argiztapen iraunkorrak huts eginda ere, kabinaren presentzia detektatzeko adinako argiztapen-sistema egongo da ateen inguruetan. Zoruaren mailan, gutxienez 50 lux-ekoa 1.38-A

d) Martxaren noranzkoa adierazteko argizko seinaleak (68/2000 D.).

- Igoera eta jaitsiera adierazita 1.39-A

ATEAK KATIGATZEKO GAILUAK (SARRAILAK).**B3.1.4.– Sarrairen ezaugarriak.****a) Arauzko sarrailek (7.7.3).**

- Sarrailek, elektrikoki kontrolatutako katigatze mekanikoa dutela egiaztatu beharko da 1.41-L

b) Ateen itxiera kontrolatzeko gailua (7.7.4).

- Kontaktuko elektrikoko bikoitza izan behar da 1.42-L
- Eskuekin kontaktuak egitearen kontra babesturiko egongo dira kontaktuak. 1.43-L
- Atetik tiratzean ez dute galduko kontaktuak (kabina ez dagoelarik atea zabaltzen ahalegintzean igogailua gelditzea) 1.44-A

c) Larrialdietan giltza bereziaz deskatigatzea (7.7.3.2).

- Hiruki-giltza berezi batez deskatigatu ahal izan beharko dira ateak 1.45-L
- Morroiloak giltza berezi batez irekiko dira. Morroiloetako bat ez badabil edo eragiteko koskak higatuta badaude 1.46-L

B3.1.5.– Sarrairen egoera.

Sarraila bakoitzean honako hauek egiaztatu beharko dira:

- Finkapena. Ez dute mugimendu batere izan beharko 1.51-L
 - Higaduraren eraginez hondatzea 1.52-L
 - Estalki egokiak jartzea 1.53-A
- (Jarri ezin diren lekuei dagokienez, kontaktu elektrikoaren eta mekanismoaren garbitasun-falta akats larritzat joko da).
- Kableak eta konexio elektrikoak 1.54-L
 - Masa-deribaziorako arriskua 1.54-L
 - Masa-hartunerik ez izatea 1.55-L

B3.1.6.– Sarrairen funtzionamendua.**a) Ateren bat irekitzen da kabinarik ez dagoenean**

Igogailuaren funtzionamendua normala dela, ezinezkoa izango da solairuko sarbide-ate bat ere irekitzea, edo atearen orrietako bat ere, orri bat baino gehiago edukiz gero.

- Baten batek huts egiten badu 1.61-O

b) Sarrailearen funtzionamendua

Honako proba hauek egingo dira:

- Normala ez den maniobra bakarraz funtzionatzeko posibilitatea (ate zabukarietan)..... 1.62-O-L
- Atearen itxieraren kontrol-kontaktu bikoitzean zubia eginez, morroiloak irten eta gero aparatua ez dabilela egiaztatzea.
- Ateak zabalik direla funtzionatzeko posibilitatea 1.62-O
 - Bao irekietan, baoaren kanpoaldetik eskuaz sarrailara iristeko posibilitatea. Ez eskailburutik ez eskaileretatik posibilitate hori ez dagoela egiaztatzea 1.63-O
 - Sarraila deskatigatzeko aldea 1.65-A

B3.1.7.– Solairu-adierazleak (1996-11-21eko Agindua).

- Erabilera publikoko igogailuetarako eta baita 1997-07-01az geroztik instalatu edo ordeztuetarako ere solairu-adierazleak. Solairu-adierazlerik ez dagoenean edo daudenak egokiak ez direnean 1.71-A

B3.1.8.– Solairuko sakagailuak.

Argizko eta soinuak dei-erregistroa eduki behar dute.

- Sakagailuak egoera txarrean badaude 1.81-A
- Sakagailuek argizko eta/edo soinuak dei-erregistroa ez badute edo erregistro hori ez badabil 1.82-A

B3.1.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 1.00

B3.2.– ESEKIDURA-KABLEAK ETA LOKAILUAK.

Igogailu batzuetan, kable txirikordatu tradizionalen ordez beste esekidura-sistema batzuk izan daitezke (adibidez: zintak, kable estaliak, kable bereziak, etab.). Kasu horretan, elementu horiek fabrikatzaileak ezarritako zehaztapenen arabera egiaztatuko dira, eta egiaztatutako kontrol-erakundeak zehaztapen horiek eskura izan beharko ditu.

B3.2.1.– KABLEAK (9.1.etik 9.6.era bitartean).**a) Kableen kontserbazio-egoera.**

– Itsaspen-igogailuetan:

Kableak poleatik pasatzeari dagokionez, linterna batekin ikusizko ikuskapen bat egin beharko da makinaren gelan, ibilbideko zenbait puntutan kordioetan izan litezkeen alanbreen apurketei erreparatuaz. Kontuz jokatzuz, egur zati bat edo antzeko zerbait kable guztien gainean jarriaz eta kabinako ibilbide osoa eginda, poleatik pasatzean kableek barruan edo kanpoaldean dituzten apurketak ikuskatzeko ahalegina egin beharko da.

Ertz zorrotzeko egur zati bat edo antzeko zerbait kable guztien gainean jarriaz eta kabinako ibilbide osoa eginda, poleatik pasatzean kableek barruan edo kanpoaldean dituzten apurketak ikuskatzeko ahalegina egin beharko da.

Kabinako sabaitik eta linterna batekin, ibilbideko zenbait puntutan kableen egoerari erreparatuko zaio.

Kordoi bat apurturik dagoenean, metro batean kordoi batena egiten duten alanbreak apurturik daudenean, edo oxidaturik, kanpoaldean higaturik edo deformaturik dagoenean, kablea «egoera txarrean» dagoela kontsideratuko da (UNE 58-111 arauarekin bat).

Kordoi apurtu baten balioa egiten ez duten alanbre apurtuak badaude, hori ez da joko akastzat.

Hauexek dira detektatu daitezkeen akatsak:

- Kableetarik baten kordioaren bat apurtzea 2.11-O
- Alanbreak apurtzegatik, oxidaziogatik edo kanpoaldeko higaduragatik kableak egoera txarrean egotea, kabletarik % 34 edo hortik gora, 2.12-O
- Kable guztien % 34 baino gutxiagori eragiten badie 2.12-L
- Arau orokor legez, kable guztiak aldatuaz eta polea aztertuz edo aldatuaz egin beharko da konponketa.
- Kableek plakarekin egiten duten marruskadura 2.13-L

Igogailu hidraulikoetan (baldin eta badaude):

Kabinaren sabaitik egin beharko da ikuskapena, eta itsaspen-igogailuentzako zehaztutako berberak dira izan litezkeen akatsak.

c) Kableen tentsioak orekatzea (E.9.5/H.9.3).

Kableen arteko tentsioak antzekoak izan beharko dira eta orekatuta egon beharko dira.

Kabinaren gainean egiaztatutako da, ibilbidea tarteko posizio batean jarriaz.

Kableen tentsioa berdintzeko gailua muturretako batean behintzat dagoela egiaztatuko da, eta beti konpresioan jardun beharko du malgukien kasuan.

Igogailuak trakzio-kable bi soilik dituenan, katigatze elektrikoa egon beharko da beti, kableak modu diferentean luzatzen direnean igogailua geldiaraziz funtzionatuko duena. Eskuz manipulatu egiaztatuko da funtzionatzen duela.

- Aparatuak orekatze-sistema bat izan beharko du, baldin eta sistemarik ez badu 2.15-A
- Sistema egoera txarrean (malgukiak,...) 2.15-A

d) Kableak lasaitzeko segurtasun-kontaktua (E.9.5.3/H9.3.3)

- Segurtasun-kontaktua dagoela egiaztatu beharko da 2.16-L
- Segurtasun-kontaktuak maniobra eten behar du 2.17-L

B3.2.2.– KABLEEN LOKAILUAK (E.9.2.3/H.9.2.4).**a) Lokailu-motak 9.2.3.1.**

Urtutako materialezkoak izan daitezke, tenkaketa automatikoko falka, hiru grapa edo besarkadera dituzten sistemak, prentsaturako zorroak edo balio bereko segurtasuna ematen duen beste sistema bat.

- Kableen lokailuak, kabinatikoak, arauzkoak ez direnak 2.21-L
- Kableen lokailuak, kontrapisutikoak, arauzkoak ez direnak 2.22-L

b) Kabinatiko lokailuen egoera.

Kabinarako eta kontrapisurako lokailuen egoera egiaztatuko da, edo igogailu hidraulikoetan, lokailu finkoak, arauen araberrako ezaugarriak eta bereziki estuerak, azkoinak, kontraazkoinak eta larakoak.

Halakoak ezin dira faltatu, eta ezin dira hondatuta edo gaizki finkatuta egon.

Falka bidezko lokailuen kasuan, kargarik gabeko hari solteak behar bezala finkatuta egon beharko dira.

- Apurtze arazoak edo pitzadura handiak dituela ikusten bada 2.24-O
- Pitzadura txikiak, korrosioa koskadurekin, etab. 2.24-L
- Lokailu tolestuak 2.24-L
- Lokailu bakoitzeko malguki-eraztun bat edo hegats-larakodun azkoin bat edo malguki-eraztundun azkoin bi (azkoina eta kontra-azkoina) daudela egiaztatuko da, edo, halaber, biraketaren kontrako bi azkoin 2.23-L

c) Kontrapisutiko lokailuen egoera.

- Goragoko b (2.23) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.25-L-A
- Goragoko b (2.24) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.26-O-L

d) Esekitze berezietan, plakatiko lokailuen egoera.

- Goragoko b (2.23) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.27-L-A
- Goragoko b (2.24) idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak 2.28-O-L

e) Igogailu hidraulikoetan lokailuen egoera (pistoiairen behealdean).

- Goragoko b idatz-zatikoak bezalakoak dira detektatu daitezkeen akatsak.

f) Lokailuen malgukiak edo tako elastikoak.

- Haien egoera egiaztatuko da 2.29-A

B3.2.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 2.00

B3.3.– ABIADURA-MUGAGAILUA, KABINA-JAUSGAILUA, BASTIDOREA ETA GIDARIAK.

ABIADURA MUGAGAILUA (E.9.9/H.9.10.2).

Kabinako jausgailu-sistemari eragiten dion abiadura-mugagailua ikuskatu beharko da, zeinak agerian izan beharko baitu ezaugarrien plaka.

B3.3.1.– Mugagailurainoko sarbidea (E.9.9.8/H.9.10.2.7).

– Erraz iristeko modukoa izan behar da.

- Mugagailura iristeko modurik ez badago 3.11 eta 3.12-L
- Mugagailuaren elementu guztietara (erregulazio-mekanismoak, kontaktuak, etab.) iristeko modurik izan behar da, eta horretaz gain, ikuskapenak eta mantentzea egiteko espazio librea izan beharko dute euren inguruan 3.13-L
- Mugagailua makinen gelan badago eta kontrolik gabeko eragintza-, kolpe- edo harrapaketa-arriskurik izan baliteke, babesgailu bat izan beharko du. Babesgailua erraz desmuntatzekoa izan beharko da ... 3.14-A

B3.3.2.– Mugagailuaren egoera.

a) Lasaierak, higadurak eta malgukiak.

- Jausgailuaren eragintza-kablea erretiratu, mugagailua eskuz mugituaz eta ondokoak egiaztatuz egingo da ikusizko ikuskapena: lasaierak, higadurak eta malguki deformatuak edo apurtuak, kontaktu elektrikoaren egoera (badaude) eta poleako eztarriaren higadura 3.21-L

b) Funtzionamendu-proba.

Behin mugagailuaren kablea erretiratu ostean (mugitu ahal dadin), abiadura aldakorrek sistema erabiliko dugu (abiadura erregulagarriaren zulagailu edo beste sistema bat) eta takometro bat ere bai (mugagailuaren kablearen linea neutroaren parean gutxi gorabehera). Igogailuaren abiadura nominalera helaraziz mugagailua, apur-apurka gehituko da abiadura hori eta mugagailua blokeatu arte, ondoren desarra-abiadura irakurriko da, eta abiadura hori 9.9.1.en zehaztutako mugetan sartzen dela egiaztatuko.

Gutxienez bi aldiz egingo da proba, lortutako balioak onartutako mugen barruan direla egiaztatuz. Lortutako balioaren bat mugetatik kanpokoa bada, proba beste bitan egingo da, eta onartzeko moduko balioak lortu beharko dira.

Oharra: metodologia hori aplikatu ezin deneko igogailuetan, mantentzaileak emandako jarraibide eta bitartekoak eskura izango dira egokiak diren egiaztapenak egiteko.

- Baimendutako abiadura gorena % 25etik gora gairatzea jarduera-abiadura 3.22-O
- Baimendutako abiadura gorena % 25etik gora ez gairatzea jarduera-abiadura gairatzea 3.22-L

c) Mugagailuaren jardueraren kontrol elektrikoa (E-9.9.11 / H-9.10.2.10).

Gailu hau jausgailu-sisteman edo abiadura mugagailuan egon daiteke (bietan ez da derrigorrezkoa).

- Mugagailua baoan badago, abiadura-mugagailuaren kontrol elektrikoa funtzionamendu normaleko posizioa baoaren kanpotik edo berrarmatze automatikokoarekin eramateko modua egon beharko da 3.23-L
- Kontrol elektrikoaren funtzionamendua egiaztatuko da 3.23-L
- Kabinaren igoerako noranzkoan jardun behar duenean, egiaztatu egingo da mugagailuaren kontrol elektrikoa.
- Abiadura % 115etik gorakoa denean 3.24-L
- Mugagailuek erregistro-estalkiak badituzte, ipinita egon beharko dute 3.25-A

d) Ezaugarrien plaka.

- Ez badago edo ez badago agerian 3.26-A

e) Mugagailua eragiteko urrutiko kontrola.

- Funtzionatzen duen ala ez egiaztatuko da 3.27-L

f) Mugagailuaren zigilua.

- Organo mekaniko eta/edo elektriko doigarriek zigilua daukatela egiaztatuko da (fabrikatzaileak doitu behar ditu) 3.28-L

B3.3.3.– Mugagailuaren kablea (E.9.9.6/H.9.10.6).

a) Mugagailuaren kablearen egoera.

- 2.1.a puntuan zehazten denaren arabera egiaztatuko da 3.31-O-L
- Kableak elementu batere ez duela ukitzen egiaztatuko da (egiturekin, makinan gelako plakarekin eta abarrekin marruskadura) 3.32-L

b) Kable mugagailuaren lokailuak, jausgailu-sistemakoak.

- Lokailuen egoera ona egiaztatuko da (lokailu-sistema besarkaderaz egin daiteke) 3.33-L

c) Mugagailuaren kablearen tenkagailua.

- Mugagailuaren kablearen tenkatze-sistemaren egoera ona egiaztatuko da, kablea, luzatu arren, tenkatzen jarraitu dezakeela ere egiaztatuaz 3.34-L
- Sistemako elementuak ez dituela ukitzen egiaztatuko da (tenkagailuaren kontrapisuak horma ukitzea) 3.35-L

d) Mugagailuaren kablea apurtu eta lasaitzea kontrolatzeko gailua.

- Gailurik badagoela egiaztatuko da 3.36-L
- Gailuak ondo funtzionatu behar du, maniobra etenez 3.37-L

B3.3.4.– Kabina-jausgailua (9.8).

a) Zirien, falka-kutxaren eta abarren finkapenaren egoera.

- Linterna batekin eta elementuak ukituaz ikusizko egiaztapena egingo da 3.41-L

b) Funtzionamendu-proba.

Jausgailuak funtzionatzen duela eta kabinari eusten diola egiaztatuko da.

Proba hori honela egin ahal da:

Blokeoko punturaino eragin abiadura-mugagailuari edo dagokion gailuari.

Igogailuari behar bezala eragin, eskuz edo motorraz abiadura txikian, kabina geldi dagoela eta kableak polean irristatzen direla egiaztatuaz (edo hidraulikoetan lasai geratzen direla).

Kableak polean ezin irristarazi arren, proba ontzat joko da.

Jausgailuaren segurtasun-gailu elektrikoak motorraren zirkuitu elektriko eten duela eta galgalk funtzionatu duela egiaztatuko da.

Horretarako, dei bat egingo da, eta igogailua blokeatuta geratzen dela egiaztatuko da.

Falka guztiek funtzionatu dutela egiaztatuko da.

- Jausgailuak ez badu funtzionatzen 3.42-O

c) Jausgailua desblokeatzea (9.8.5).

- Kabinari goraka eraginda desblokeatuko da jausgailua, eta desblokeatu ondoren jausgailua funtzionatzeko moduan geratuko da 3.43-A

d) Jausgailuaren jardueraren kontrol elektrikoa (9.8.8).

- Jausgailuaren kontrol elektrikorik ez izatea 3.44-A
- Kontrol elektrikoak maniobra eten duela egiaztatuko beharko da 3.45-A

e) Hidraulikoetan, kableak lasaituaz jausgailuari eragitea.

- Esekidura-elementuak apurtu direla-eta jarduten badu jausgailuak, posible izan beharko du baoaren kanpoaldetik eskuz eragitea (tirtzailearen bitartez) 3.46-A

f) Lasaierak.

- Kabina-jausgailuaren lasaierak egiaztatuko dira 3.47-L

B3.3.5.– Kabinaren bastidorea.**a) Egituraren sendotasuna loturetan (soldadurak, torlojuak, errematxeak).**

- Egitura begiz egiaztatuko beharko da 3.51-L
- Apurtzeak balego 3.51-O

b) Oxidazioak.

- Oxidaziorik badago 3.52-A
- Korrosioa material galerarekin 3.52-L

c) Deformazioak.

- Deformaziorik dagoen ala ez egiaztatuko da 3.53-A

d) Errodagailuak eta irrista-guneak.

- Haien egoera egiaztatuko da 3.54-L-A

B3.3.6.– Kabinaren gidariak eta bere finkapenak (10.1).**a) Gidari-motak.**

- Altzairu-profilezko gidariak onartuko dira 3.61-L

b) Gidarien egoera.

Baotik, eta ibilbide guztian, kabinaren gidarien arauzko ezaugarriak ikuskatuko dira, baita baoaren hormatiko edo paramentuetatik finkapenen egoera ere; oxidaziorik edo korrosiorik, deformaziorik, deslerrokatzerik dagoen, paralelismotik gehiegi desbideratuta dagoen edo funtzionamendu txarra edo istripuren bat eragin ahal duen akatsak dauden egiaztatuko da.

- Gidariak egoera onean direla egiaztatuko da 3.62-L

c) Gidarien finkapenak (10.1.2).

- Gidarien finkapenetan, hormatiko loturen egoera, finkapenen euren egoera eta gidarietatiko finkapenen lokailuaren eragina egiaztatuko beharko dira 3.63-L

B3.3.7.– Goranzko abiaduraren ondorioetarako babeskia (9.10).

Itsaspen-igogailu elektrikoetan, goranzkoan (% 115eko gutxieneko abiadurarekin) kabinak egin litzakeen kontrolik gabeko mugimenduak detektatzen dituen gailu bat izango da. Kabina geldiarazi egingo du, edo, bestela, kontrapisuaren malgukiarekin bat datozen balioetara apalduko du.

- Abiadura-kontrolik ez dago edo ez dabil goranzkoan 3.71-L

B3.3.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 3.00

B3.4.– KABINA (8.1.etik 8.17.era bitartean).**B3.4.1.– Kontserbazio-egoera orokorra.**

Kabinaren barrualdetik honako hauek egiaztatu beharko dira:

a) Zulo «arriskutsurik» egotea.

- «Arriskutsutzat» jo daitekeen zulorik dagoen egiaztatu beharko da (ikus UNE EN ISO 13857 araua) 4.11-O-A

b) Hormen erresistentzia (8.3.2.1).

Hormako paneletan 5 cm²-ko azaleran 300 N-ko indarra aplikatuaz, hormen erresistentzia egiaztatuko da.

- la deformazioa 15 mm-tik gorakoa den eta ia barrunbea edo igogailuaren beste osagai batzuk jo ditzakeen 4.12-O
- la deformazioa 15 mm-tik gorakoa den eta ia barrunbea edo igogailuaren beste osagai batzuk jo ezin dituen 4.12-L
- Kabinetan beirak erabiliz gero, kristalak apurtuz gero erabiltzaileek ahal dela ez dute kalterik jasango (segurtasun-beirak edo babes-minzdun beirak izango dira) 4.13-A

c) Zoruaren erresistentzia (8.3.2.1).

- Zorua metalezkoa dela egiaztatuko da 4.14-A
- Zoruak karga nominalari eutsi diezaiokeela egiaztatuko da 4.15-O-L

d) Zoruaren egoera (68/2000 D).

- Zorua gogorra, non –busti edo lehor egon– ez den irrist egiten, laua eta finkoa dela egiaztatuko da 4.16-A

e) Kabinaren estaldurak (8.3.3).

- Ez dira erabiliko erraz erretzen diren materialak. Hormak edo sabaiak, suaren aurkako M3-rainoko erresistentzia izango dute –gaur D-s3,d0 deitzen dena–, eraikuntzako produktuak beren erreakzio-propietate eta suarekiko erresistentziaren arabera sailkatzeari buruzko 312/2005 Errege Dekretuaren arabera (2005-04-02ko BOE) eta M2.-rainokoa – gaur C-s3,d0– zoruatarako 4.17- A

f) Geldialdi-doitasuna (1988-01-12ko Agindua) (81-1 eta 2+A3).

Geldialdi-doitasuna ± 20 mm izango da. A3 zuzenketan ± 10 mm eta ± 20 mm-ko geldialdi-doitasuna ezartzen da nibelazio-doitasunerako.

- Igogailuek ± 20 mm-ko geldialdi-doitasuna izan behar dute 4.18-L
- Igogailuek ± 10 mm-ko geldialdi-doitasuna izan behar dute (81-1 eta 2+A3) 4.18-L
- Igogailuek ± 20 mm-ko nibelazio-doitasuna izan behar dute (81-1 eta 2+A3); horretarako gailuren bat eduki behar duten arren gailurik ez badago edo gailu ez badabil 4.18-L

g) Aireztapena.

Aireztapen-azalera bat egon beharko da kabinaren goiko zein beheko aldean, gutxienez kabinaren azaleraren % 0,5ekoa.

- Aireztapen nahikorik ez egotea 4.19-A

B3.4.2.– Argiztapena (8.17) (68/2000 D.).

- Argiztapenak etengabekoa izan beharko du igogailua erabiltzen ari denean (itzali ahalko da baldin eta ITC AEM-1 berriaren VII. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badira)..... 4.21-A
- Argiztapenak gutxienez 50 lux-ekoa izan behar du botoien parean 4.22-A

Larrialdietarako argiztapena:

- Birkarga egiteko elikadura automatikoa duen larrialdietarako ekipo bat izan beharko da, W 1-eko lanpara gutxienez ordu batez elika dezakeena 4.23-A
- Argiztapen normalaren elikadurak huts egiten badu edo eteten bada, larrialdietarako argiztapena automatikoki konektatuko da 4.24-A

B3.4.3.– Alarma, larrialdietako geldialdia, ateak irekitzeko posibilitatea eta norabide bikoitzeko komunikazioa.**a) Alarma (14.2.3 eta 15.2.3).**

Laguntza eskatzeko gailu bat dagoela egiaztatuko da. Gailu hori dagokion piktogramarekin erraz ezagutu ahal izango da. Gailu horrek norabide bikoitzeko ahots-komunikazioa ahalbidetu beharko du, erreskate-zerbitzuren batekin etengabe harremanetan egon ahal izateko (ikus d puntua).

- Identifikatu gabe egotea edo kanpoaldea erretea izatea 4.31-A
- Laguntza eskatzeko gailuak ondo funtzionatu beharko du 4.32- L
- Gailuak funtzionatu egin beharko du larrialdietan. Korrontea deskonektatu ondoren funtzionatu egiten duela egiaztatuko da 4.33- L
- Txirrinen edo alarma akustikoaren kasuan, nahiko ondo entzun beharko dira..... 4.34-A

b) Larrialdietako geldialdia (15.2.3.1).

Baimenduta dagoenean, behar bezala funtzionatu beharko du:

- Kabina geldiarazi beharko du 4.36-L
- Behin jardun ostean, aparatua ezin izango da martxan jarri pisuetatik..... 4.37-L

Identifikazioa:

- Etengailuaren kolorea gorria izango da, eta «Stop» hitzarekin identifikatu beharko da. Ez du kanpoaldea erretea izan beharko 4.38-A

c) Kabinaren atea zabaltzeko posibilitatea (8.11).

- Pisu baten nibeletik irekitzeko posibilitatea egiaztatuko da 4.39-L

d) Norabide bikoitzeko komunikazioa (14.2.3.3).

Gailua behar bezala identifikatuta egongo da piktogramekin eta funtzionamenduko jarraibideekin. Egiaztatzeko, botoia sakatuko da aurrez ezarrita dagoen denbora-tartean, eta erreskate-zerbitzu batekin komunikazioa ezarri beharko da. Erreskate-zerbitzuak aparatua kokalekua identifikatzeko ahalmena izan beharko du.

- Sistema ez badago, ez badu identifikatzen edo ez badabil 4.40-L

B3.4.4.– Errotuluak eta plakak (15.2).

- Plaka RAE zenbakiarekin: kabinaren barruan egon beharko du zenbakiak 4.41-4.42-A
- Gehienezko karga 4.43-A
- Pertsona-kopurua 4.44-A
- Norabide bikoitzeko komunikazio-sistemak funtzionamendu-jarraibideak izan beharko ditu (15.2.4)..... 4.47-A
- Enpresa mantentzailearen identifikazioa eta larrialdietarako telefonoa agerrarazten dituen plaka edo eranskailua egon beharko da 4.48-A
- CE marka eta Jakinarazitako Erakundearen zenbakia jarrita egon beharko dira 4.49-A

B3.4.5.– Kabinaren ateak (8.5.etik 8.10.era bitartean).**a) Badaude (8.5).**

- Aparatu guztietako kabinek izan beharko dituzte ateak 4.51-O

b) Erresistentzia (8.6.7).

- Itxitako atearen edozein puntutan, kabinaren barrualdetik 300 N-ko indarra aplikatuz gero, ezin daiteke izan deformaziorik ezta 15 mm-tik gorako deformazio elastikorik ere 4.52-L

c) Gidariak (8.6.6).

- Horizontalean irristatzen diren ateen gidariak izan behar dituzte goialdean eta behealdean 4.53-A

d) Posizio-adierazlea edo behatxuloa (8.6.5).

- Kabinaren barrualdetik solairuen zenbakiak ikusi beharko dira, behatxulotik begiratuaz edo posizio-adierazlearen bitartez 4.54-A
- Behatxuloak egokia izateaz gain, egoera onean egon beharko du, zulo edo pitzadurarik gabe 4.55-A

e) Itxiera automatikodun atean harrapatua izateko arriskua (8.7).

- Kabinaren aldean, itxiera automatikodun ateen ezin dute izan 3 mm-tik gorako hutsunerik edo irtenunerik eta euren ertzak alakatuak izango dira 4.56-A
- Ateak pertsonen kontra egin lezakeen kolpearen ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezen, itxiera galarazteko behar den indarra ez da izango 150 N-tik gorakoa 4.57-A
- Ateak berriretzeko babes sentikorrek gailua..... 4.58-L

Zelula fotoelektriko bidezkoa izan daiteke sistema, kontaktu bidezkoa, edo hurbiltasun-banda fotoelektrikoen bidezkoa.

f) Kabinako ateen itxiera-kontrola (8.9).

- Funtzionamendua egiaztatu beharko da 4.59-L

B3.4.6.– Kabinaren sabaia (8.3.1, 8.13).

a) Erresistentzia (8.13.1).

- Sabaiak, gainean bi pertsonaren pisua izan arren, deformaziorik gabe iraun beharko du 4.61-L

b) Korronte-hartunea (8.15).

- Ez dago korronte-hartunerik 4.62-A

c) Baranda (8.13.1.c, 8.13.3.2).

Kabinaren sabaiaren ertzetik (alboak eta barrena) 30 cm baino harago badago baoko horma, barandak iraunkorrak izango dira eta erresistentzia aski izan beharko dute. 85 cm-ko espaziorako garaiera 70 cm-koa izango du eta 110 cm-koa 85 cm-tik goragorako eta ertzetik gehienez ere 15 cm-ra egongo da.

Barrunbearen neurrien arabera egokitzen jotzen bada, gidari, zilindro eta horrelako elementu finkoekiko tartea neurtuko da (adibidez, 2:1 jaurtiketako igogailu hidraulikoetan edo motxila tipokoetan, neurri txikikoetan alegia). 30 cm-tik gorako sakonera duen 30 cm-tik gorako zabalerarik ez da emango.

Baranda jartzea mantentze-lanetarako arrisku edo eragozpen denean (kabina estuak edo leku falta), behar bezala adierazitako katigatzeko puntu batez ordezkatu ahal izango da –uztai edo antzeko zerbait–, segurtasun-uhala jartzeko; gainera, kabinaren sabaian arrisku-kartel bat jarri beharko da uhala erabiltzea derrigorrezkoa dela dioena. Jarraibide hauek makina-gelan ere jarriko dira.

- Ez badago 4.63-L
- Behar adinako erresistentzia ez badu edo egokia ez bada (erdiko barra eta zokaloa) 4.64-L

d) Laguntzatarako erregistroak eta tranpolak (8.12).

Baldin badaude:

- Sarraila izan beharko dute eta kanpotik giltzarik gabe zabalduko dira, eta barrutik giltzekin 4.65-A
- Segurtasunezko katigatze elektrikoa izan beharko dute. Funtzionamendua egiaztatu beharko da 4.66-A

B3.4.7.– Atal higikorren eta finkoen arteko lasaierak (11.1.etik 11.3.era bitartean).

a) Kabinaren eta barrunbearen arteko lasaiera

- Kabinako ateen eta barrunbearen arteko distantzia 150 mm-tik beherakoa izango da, eta sarrerako atearekiko distantzia 120 mm-tik beherakoa, edo bestela, kabinako atearak blokeo mekanikoa izango du (EN 81-1eko 7.7.3.1 eta 7.7.3.3 art.) 4.71-L
- Kabinak barrunbea ukitzen badu. 4.71-O-L
- Kabinako zoruaren eta sarreraren arteko distantzia ez da izango 35 mm-tik gorakoa 4.72-A

b) Kabinaren eta kontrapisuaren arteko lasaiera

- Kontrapisuko fitxek izan lezaketen mugimendu okerrera kontuan izanik, kontrapisuaren eta kabinaren arteko distantzia 50 mm-tik gorakoa izango da 4.73-A

B3.4.9.– Bestelako xedapenak.

a) Kargak pisatzekoak (14.2.5).

- Gailuak aparatuen funtzionamendua eteten duela egiaztatuko da 4.85-A

b) Makina-gela eta kabinaren artean elkarrekin komunikatzeko gailua, barrukoa (14.2.3.4).

- Aparatu elektrikoetan, 30 m-tik gorako ibiltarteetarako 4.86-A
- Aparatu hidraulikoetan, makina-gelaren eta baoaren arteko komunikazio zuzena ezinezkoa bada.

c) Laguntza-abisuak egiteko sistema (5.10).

- Hobian eta kabinaren sabaian laguntza-abisuak egiteko sistema bat egongo da (norabide bikoitzeko komunikazioa) 4.87-A
- (Ikus 8.7 hobian).

d) Kabinetan eskudelak (68/2000 D.) eta beirazko hormekin (8.3.2.3) (EN 81-70).

- Hormatik 35 mm bereizita eta beiratik 900 mm-ra eta zorutik $\pm$ 50 mm-ra finkapen bereizita duen eskudel bat egongo da kabinetaren barrualdean 4.88-A
- Kabinan gurgildun aulki bat sartu ezin bada, gutxienez eskudel bat egon beharko da, ahal bada (2003-12-05eko jarraibidea).

e) Hankak babestekoak (8.4).

- Ez badago 4.90-L
- Luzera (75 cm), inklinazioa edo behar adinako erresistentzia ez duela-eta egokia ez bada 4.91-L

f) Kabinaren azalera (8.2).

- Azalera arauzkoa dela egiaztatuko da 4.95- A

g) Alboko kabinetan, sorospenetarako ateak. (8.12.4).

Badaude, gutxienez honako hauek bete beharko dituzte:

- 4.6.d puntuan zehaztutakoa 4.96-4.97-A
- Kabinaren barrualderanzkoa izango da irekiera eta bere dimentsioak egokiak izango dira 4.98-A

h) Kabinako ispiluak (68/2000 D).

- Kabinaren barrualdean ipinitako ispiluak ondo finkaturik izan beharko dira, ikaduretan erori ez daitezen edo apurtzen badira kristal zatiak erori ez daitezen 4.99-A

B3.4.0.– Beste batzuk.

- Sakagailuak egoera txarrean badaude 4.01-A
- 68/2000 D.aren arabera, akats gisa jasoko da sakagailuen altuera, baldin eta braillezkoak, argiztatuak eta erliebe altukoak ez badira (kabinak EN 81-70 araua betetzen badu, sakagailuek ez dute zertan erliebe altukoak edo argidunak izan behar, irteerako solairuaren botoiak ertz berdea izango du 4.00

B3.5.– KONTRAPISUA, BERE GIDARIAK ETA JAUSGAILUA.**B3.5.1.– Kontrapisua (8.18).**

- Pisuekin osatuak badira, bastidore baten bitartez loturikoak izan beharko dute 5.11-L

a) Kontrapisuaren sendotasuna.

- Loturen eta egituraren sendotasuna egiaztatuko da 5.12-L

b) Irrista-guneak.

- Irrista-guneen egoera egiaztatu beharko da 5.13-L

c) Deformazioak.

- Deformaziorik dagoen ala ez egiaztatuko da 5.14-L

d) Fitxak.

- Kontrapisuko fitxak ezin daitezkeela erori egiaztatuko da 5.15-L
- Fitxen finkapen-elementuak badirela egiaztatuko da 5.16-A

B3.5.2.– Kontrapisuaren gidariak (10.2).**a) Gidarien mota.**

- Gidariak zurrinak izango dira, altzairuzkoak, edo metalezko xafla formatuzkoak, kontrapisuan ikadurarik ez badu 5.21-L

b) Gidarien egoera.

- Gidariak egoera onean dauden ala ez egiaztatuko da 5.22-L

c) Gidarien finkapenak.

- Finkapenen egoera ona egiaztatuko da 5.23-L

B3.5.3.– Kontrapisuko jaugailua (beharrezkoa denetan).**a) Kableak apurtzen direnerako jaugailuak (9.8.3).**

- Sistema hori badago, linterna batekin eta kabinetaren sabaitik (kontrapisua ikuskatzailearen altueran dagoela) beharrezko elementu guztiak dituela eta egoera onean daudela egiaztatuko da 5.31-L

b) Mugagailuaz eragindako jausgailua.

Hala kabina nola mugagailua modu berean ikuskatu beharko dira (ikus eranskin honetako 3.1 eta 3.2 puntuak).

- Mugagailuaren eta bere elementuen irisgarritasuna. Ezaugarrien plaka ez izatea edo izanda ere agerian ez izatea akats arintzat joko da5.32-L-A
- Mugagailuaren egoera:
 - Lasaierak, higadurak, malgukiak, abiadura desegokia 5.33-L
 - Mugagailuaren kontrol elektrikoa5.34-L eta 5.35-A
- Eranskin honetako 3.3 puntuan zehaztutakoaren arabera egiaztatuko da mugagailuaren kablea.
 - Mugagailuaren kablea egoera txarrean badago 5.36-L
 - Mugagailuaren kableak horma edo plaka ukitzen badu 5.36-L
 - Kablearen lokailua egoera txarrean badago 5.37-L
 - Tenkagailuak horma ukitzen badu edo egoera onean ez badago 5.38-L
- Eranskin honetako 3.4.b puntuan zehaztutakoaren arabera ikuskatu beharko da jausgailuaren funtzionamendua.
 - Jausgailuak ez badu funtzionatzen 5.39-L

B3.5.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude5.00

B3.6.– KABINAKO ETA KONTRAPISUKO MOTELGAILUAK (10.3 eta 10.4).**B3.6.1.– Motelgailuak izatea eta kokatzea (hidraulikoak, malgukiak edo tope elastikoak) (10.3.1).**

Hobian honako hauek izan beharko dira: motelgailu hidraulikoak, malgukiak edo tope elastikoak.

- Ez dago kabinako motelgailurik 6.11-L
- Ez dago kontrapisuaren motelgailurik 6.12-L
- Kabinako motelgailua ez da egokia 6.13-L
- Kontrapisuko motelgailua ez da egokia 6.14-L
- Motelgailuak hobian kokatzea (kabina edota kontrapisuari dagozkionak) 6.15-A

B3.6.2.– Motelgailuen eta euren finkapenen egoera.

Instalaturiko motelgailuak egoera onean egon beharko dira. Ez dute izan beharko deformaziorik, hausturarik, koskadun korrosiorik edo goma pitzaturik.

- Kabinako motelgailua egoera txarrean, okertuta edo gaizki finkatua 6.21-L
- Kontrapisuaren motelgailua egoera txarrean, okertuta edo gaizki finkatua 6.22-L

B3.6.3.– Motelgailu hidraulikoen funtzionamendua (badaude).

Olioia izanik, motelgailu hidraulikoek ondo funtzionatzen dutela egiaztatuko da.

- Kabinako motelgailuak gaizki funtzionatzea 6.31-L
- Kontrapisuko motelgailuak gaizki funtzionatzea 6.32-L

B3.6.4.– Kabinako motelgailuen garaiera (10.3.1 eta 10.3.3).

Kabinaren behealdetik hobiaren hondora arteko distantzia, gutxienez, 5.7.3.3.a) atalean azaldu den paralelepipedoa barnean hartzeko nahikoa izan beharko da.

- Kabinaren eta hobiaren arteko distantzia ez da arauzkoa 6.41-L
- Igogailu hidraulikoetan, kabina, karga nominalarekin, motelgailuaren gainean bermatzen denean, lurzoruaren eta kabinako zoruaren arteko distantzia gehienez 120 mm-koa izango da.
- Lurzoruaren eta kabinako zoruaren arteko distantzia ez da arauzkoa 6.42-L

B3.6.5.– Motelgailuak kabinaren sabaian.

- Arrasteko igogailuei soilik aplikatu ahal zaie 6.51-L

B3.6.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude6.00

B3.7.– AGINTEAK ETA SEGURTASUNEZKO BESTE GAILU BATZUK.**AGINTEAK.****B3.7.1.– Gelditze-etengailua kabinaren sabaian (14.2.2.1 eta 15.2.3.1).**

Kabinaren sabaian, gelditze-etengailu bat izan beharko da, espezifiko eta ikuskapen-maniobrara pasatzeko konmutadoretik apartekoa dena.

- Kabinaren sabaian, ez dago gelditze-etengailurik 7.11-L
- Kabinaren sabaiko gelditze-etengailuak ez du funtzionatzen 7.12-L
- Kabinaren sabaiko gelditze-etengailua ez da apartekoa 7.13-L
- Etengailua ez da egokia 7.14-L

B3.7.2.– Ikuskapen-botoiak.

- Ikuskapen-maniobrarako konmutadore bat izango da 7.21-L
- Ikuskapen-maniobrarako konmutadorearen funtzionamendua egiaztatuko da 7.22-L
- Ikuskapen-maniobran, mugimendua sakagailu bat etengabe sakatzearen ondoriozkoa izango da 7.23-L
- Ikuskapen-abiadura ez da izango segundoko 0,63 m-tik gorakoa 7.24-L
- STOP seinaleari, konmutadoreari eta martxaren noranzkoari dagozkien zehaztapenek egon beharko dute kabinaren sabaian 7.25-A
- Aginteen funtzionamendua egiaztatuko da 7.26-A
- Botoietara erraz iristen dela egiaztatuko da 7.27-A

B3.7.3.– Gelditze-etengailua hobian (STOP) eta entxufea (15.7).

Badagoela eta badabilela egiaztatuko da.

- Hobiko gelditze-etengailurik ez badago 7.31-L
- Hobiko gelditze-etengailua ez badabil 7.32-L
- Entxufea ez badago edo ez badabil 7.33-A

BESTE SEGURTASUN-GAILU BATZUK.**B3.7.4.– Lur-konexiorako sare ekipotentziala.**

Ateek, gidariek, kabinak, makinak, mugagailuak eta maniobra-koadroak konektatuta izan beharko dute, lur-konexiorako sare ekipotentziala osatuz.

Ondoko hauek akastzat joko dira:

- Aipatutako edozein elementuk ez badu konexio ekipotentzialik 7.41-A
- Aipaturiko elementuren baten konexio ekipotentziala egoera txarrean badago 7.42-A

B3.7.5.– Ibiltarte bukaerak (10.5).

Igogailu hidraulikoetan, goiko ibiltarte bukaera bakarrik da derrigorrezkoa, eta horren jardunak kabina noraezean bada iraun egin beharko du.

Ibiltarte bukaerak jardunaraziz maniobra eten egiten dela egiaztatuko da.

- Goiko ibiltarte bukaerak ez badu funtzionatzen 7.51-L
- Beheko ibiltarte bukaerak ez badu funtzionatzen 7.52-L
- Igogailu hidraulikoetan, ibiltarte bukaera egokia ez bada 7.53-A

B3.7.7.– Lehentasunak eta atzerapen-gailua (tenporizazioa) (14.2.4) (7.8).

Kabinako aginteen lehentasuna, kanpoko deiekikoa. Ateak itxi ondoren, aipatu lehentasunak hiru segundoz irauten duen ala ez egiaztatuko da.

- Kabinako aginteen lehentasunik ez badago 7.71-A

Atzerapen-gailua (tenporizazioa)

Kabina ibil dadin, kabinaren barrualdetik geraleku bati dagokion botoia sakatuko da; dena delako pisura ailegatu aitzin, noranzko berebean beste pisu batena sakatuko da, eta hasieran hautatutako pisan kabina gutxienez bost segundoz geratu dela egiaztatuko da.

- Kabina-tenporizazioa ez badabil 7.72-A
- Kabina-tenporizazioa aski ez bada 7.73-A
- Igogailua geldi dagoelarik, kabinako ateen itxita egon beharko dute 7.74-A

B3.7.8.– Akats elektrikoetatik babestea (14.1.2).

Ekipo elektrikoaren akatsek ez dute izan behar berez igogailuaren funtzionamendu arriskutsuaren kausa.

- Fase-inbertsorearen babeskia ez izatea edo ez funtzionatzea 7.81-L

B3.7.9.– Kabina mugitzearen segurtasuna.

Funtzionamendu-denbora mugatzeko gailua eduki behar dute igogailuek. Gailu horrek motorraren elikadura eteten du makinak biratzen ez badu martxan jarriko denean edo kabina/kontrapisua beren jaitsierako mugimenduan gelditzen badira oztoporen bat dagoelako edo kableak lerratu direlako.

- Kabina ez mugitzeagatiko geldialdi-gailu gehigarria (beharrezkoa bada) falta da edo ez dabil 7.91-L

B3.7.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude 7.00

B3.8.– BAOA.**B3.8.1.– Bao irekien itxiturak (5.2.1).****a) Itxitura arauzkoa izango da.**

Eraikina suteak zabaltzetik babesteko sistemaren parte ez bada baoa, hormen altuerak UNE-EN 81-1 eta 81-2 arauan ezarrita dagoena bete beharko du.

- Itxituraren altuera nahikoa ez izatea 8.11-L

b) Itxituraren materiala (5.3).

Itxituraren materiala iraunkorra izan behar da.

- Beirazkoa bada ijeztua izango da eta behar besteko erresistentzia izan beharko du (5.3.a) 8.13-L

c) Zuloak itxituran.

• Irekiguneak eta zuloak «arriskugarritzat» joko dira goiko eta beheko gorputz-adarrekin gunerik arriskutsuetara ez heltzeko segurtasun-tarteari buruzko UNE EN ISO 13857 araua betetzen ez dutenak 8.16-O-L

d) Kabinaren sarreraren aurreko itxitura (5.4.2.).

• Kabinaren sarreraren aurrean, kabinaren irekigunearen zabalera guztia hartzen duen itxitura bat izango da, zulaketarik gabeko azalera duen horma batez egina. 8.18-L

B3.8.2.– Bao itxietako barrunbeak.**a) Barrunbearen egoera.**

Erresistentzia (5.3)

- Hormek 300 N-ko indarrari eutsi egingo diote, deformazio elastikoak 10 mm-tik gora egiten ez duela. 8.21-L

Zuloak.

- Eurretara iritsi daitekeela-eta arriskutsuak diren zuloak eta zulaketak dauden ala ez egiaztatuko da (ikus eranskin honen 1.1.a puntua) (ikus UNE EN ISO 13857) 8.22-O-L

- Barrunbearen kanpoaldetik ezin badaiteke iritsi zuloetara 8.23-A

- Baoa beste lokal batzuekin komunikatzeko zuloak, aireztapenerako balio dutenak, saretxoez estaliak badaude ere, ez dira onartuko 8.23-A

Ertz arriskutsuak.

- Ertz arriskutsurik dagoen ala ez egiaztatuko da (2 cm-tik gorako irtenuneak), hain zuzen ere kabinako sabaian mantentze-lanetakoak eta ikuskatzaileak gorantz doazelarik istripuren bat eragin diezaieketenak. Ertzak alakaturik egongo dira, horizontalarekiko 60° gutxienez 8.24-L

- Hormak material iraunkorrekoak izango dira 8.26-A

b) Barrunbearen irekiuneak (5.2.1.1).

- Sarrerak, kableak pasatzeko zuloak eta aireztapenerako irekiunez gain, ikuskapenak eta kontserbazioa egiteko irekiuneak izan daitezke. Irekiune horiek katigatze elektrikoduna izango dute 8.27-L

B3.8.3.– Barrunbeen separazioa eta kontrapisua hobian (5.6.2 eta 5.6.1).

Bao berean igogailu bat baino gehiago badago, barrunbeen artean bereizte elementu bat egongo da:

- Kabinaren ertzetik beste elementu higikorretara arteko distantzia 50 cm-tik beherakoa bada, baoaren altuera guztian izango da bereizte elementu 8.31-L
- Hobian pantaila zurrun bat izango da (sarea edo xafila) gutxienez 2,5 m-ko altuera duena, kontrapisutik babestek (falta bada AL izango da, nahikoa ez bada AA izango da)8.32-A-L

B3.8.4.– Argiztapena (5.9 eta 5.7.3.4).

Kabina mugitzen den barrunbean argiztapen artifiziala egongo da (50 lux-etik gorakoa). Eroaleak eta kanalizazioak, izanez gero, egokiak izango dira (BTren araudiaren arabera, bereziki eraikin publikoetan). Hobian etengailu konmutatu bat egongo da, sarrerako beheko solairuko atetik erraz iristeko moduan eta etengailu horri eraginda hobiko argia piztuko da. Hori ez da beharrezkoa izango makina-gela edo makinaren armairua ate horretatik hurbil badago.

Baoa zabalik badago eta barrunbearen kanpoaldean argi aski badago, ez da beharrezkoa argiztapena.

- Baoan argiztapenik ez badago edo ez badu funtzionatzen8.41-8.42-A
- Hobian etengailurik ez badago edo ez badabil8.44-A

B3.8.5.– Aireztapena (5.2.3).

- Baoek aireztapena izango dute, kanpotikoa edo makina-gelatikoa (gutxienezko azalera: baoaren sekzioaren % 1)8.51-8.52-A

B3.8.6.– Segurtasunezko ibiltarte libreak (5.7).

- Beharrezkoak dira segurtasunezko ibiltarteak bai goialdean eta bai behealdean8.61-8.62-L
- Zenbait kasutan, onartu egingo da haga tolesgarri bat egotea, bai hobian eta bai kabinaren sabaian, betiere, haga horrek bere dimentsioak eta zurruntasuna direla-eta distantziak mantentzen baditu, mikroetengailu bat badu eta abisu-kartel bat badu. Antzeko segurtasuna ematen duten beste sistema batzuk ere egon daitezke (Industria arloan eskumena duen Sailak onartutakoak izan beharko dute). Zaharberitutako edo aldatutako instalazioak ez badute horrelako segurtasun-bolumenik (0,8 x 0,6 x 0,5 m-ko paralelepipedoa goiko aldean eta/edo 1 x 0,6 x 0,5 m-koa beheko aldean), UNE EN 81-21 arauan ezarrita dagoenaren araberrako edo erakunde egiaztatutako batek onetsitako neurri alternatiboak jarriko dira, industria arloko organo eskudunak baimena eman ondoren.

B3.8.7.– Hobia (5.7.3).

Hobirako sarbidea.

- Arriskurik gabe jaisteko gailu bat izango da (eskailera, mailak...).....8.71-A
- Ur-iragazketak.
- Ur-iragazketarik den ala ez egiaztatuko da8.72-A
- Hobian material erregarriak edo arraroak daude.
- Dauden ala ez egiaztatuko da8.73-A
- Norabide bikoitzeko komunikazioa hobian:
- Harrapaketa-arriskurik badago, noranzko biko komunikazio-sistema egon beharko da. Kabinakoa izan daiteke8.74-A

B3.8.8.– Kontrapisuko jausgailurik gabeko hobiaren behealderako sarrera (5.5).

Ahal dela hobiaren behealderako sarrera bat dagoela egiaztatuko da, kontrapisuak jausgailurik ez duenean.

- Kontrapisuaren motelgailuen edo oreka-masaren ibiltarte-azaleraren proiektzioaren azpian lurreraino zutabe bat badago, ez da jausgailua erabili beharrik izango 8.81-L

B3.8.9.– Beste batzuk.**Instalazio arraroak (5.8)).**

- Baoaren barruan igogailuaren zerbitzuari ez dagokion instalaziorik (TB instalazioak, telefono-instalazioak, argindarrarenak, gasarenak, etab.) ez dagoela egiaztatu.....8.91-A

B3.8.0.– Beste batzuk.

- Ikuskatzailearen arabera, kontsideratu behar diren beste akats batzuk badaude8.00

B3.9.– MAKINA-GELA, POLEA-GELA ETA TRAKTORE-MULTZOA.**MAKINEN EREMUAK.**

Makinak eta poleak leku espezifikoetan egon behar dira. Leku horietara eta haiei lotutako lan-gunetara erraz iristeko modua egongo da. Baimendutako pertsonak soilik sartu ahal dira (mantentze-lana, ikuskapena, erreskatea). Lekuak kanpoko eraginaren aurka babestuta egon behar dira, eta mantentze-, ikuskatze- eta larrialdi-lanetarako leku egokiak ezarri behar dira.

Makinak leku hauetan jarri ahal dira:

- makinak eta/edo poleen gelan.
- baoaren barruan.
- baotik kanpo (armairuan).

Lan-guneak leku hauetan kokatu ahal dira:

- makinak gelan eta/edo poleen gelan.
- kabinaren sabaian.
- kabinaren barruan.
- plataformetan.
- eskailburuen edo korridoreen eremuan.

Makina-gela duten igogailuetarako, poleetarako gelarik eduki zein ez, hau egiaztatu beharko da:

MAKINA-GELA.**B1.9.1.– Sarbideak.****a) Sarbideak (6.2).**

- Sarrerek argiztapen egokia izan beharko dute (non eta kanpoan ez dauden)9.11-A
- Segurtasunez erabili ahal izango dira:

- Leuna eta erresistentzia aski duena izango da zorua. Urez estalita egoteko diseinatuak diren zabaltzetan dauden gelen kasuan, sarrera seguru bat egongo da, pasabide eta baranda egokiekin 9.12-A
- Ez dira lokal pribatuetatik igaroko9.12-A

Eskailera edo eskalekin egindako sarbidea:

- Sarbidea eskailerekin egindakoa bada, inklinazioa ez da izango 60 gradutik gorakoa, gutxienez 70 cm-ko zabalera izango du, eta eskudelak izango ditu. Goialdean helduleku bat edo batzuk izan beharko ditu eskura9.12-9.13-A

Eskala ezkutagarriak badaude, sarbidean (edo sarbidetik hurbil) finkatu beharko dira, ez kentzeko moduan.

Eskalaren zabalera erabilgarria gutxienez 0,35 m-koa izan behar da; mailen sakonera gutxienez 25 mm-koa izango da, eta eskala bertikalen kasuan, mailaren eta eskalaren atzeko hormaren arteko distantzia gutxienez 0,15 m-koa izango da; mailak 1.500 N-ko karga baterako diseinatu behar dira.

- Eskala ezkutagarriak badaude, goialdean heldulekuak izango dira (lehendik dauden eskailerak baliagarritzat joko dira baldin eta igoerak segurtasunez egiteko baliagarriak badira)9.12-9.13-A
- Sartzeko tranpolik badago, goitik irekitzeko modua egon beharko da (norbaitek behetik ixten baditu). Erortzeko arriskua prebenitu beharko da eskalaren inguruan 1,50 m-ko distantzia horizontalean, eskalarena baino altuera handiagoan9.14-A

b) Atea edo tranpola (6.3.3).

- Makina-gelaren barrualdera sartzeko atea edo tranpola metalikoa izan beharko da, gutxienez 1,80 m-ko altuerarekin eta 0,60 m-ko zabalarekin ateentzat eta gutxienez 0,80 m-ko altuerarekin eta 0,80 m-ko zabalarekin tranpolentzat9.16-A
- Atearen edo tranpolaren egoera egiaztatuko da: bisagrak, markoen finkapena, zuloak, tranpolaren erresistentzia (hala dagokionean 2 pertsona, 1.000 N bakoitzak)9.16-A
- Sarrerako atearen edo tranpolaren sarraila, gelaren kanpoaldetik giltzaz itxia ahal izango da eta barrualdetik giltzarik gabe zabaldu, itxi ondoren. Materiala hartzeko bakarrik diren tranpolek barruko larako bat bakarrik eduki ahal izango dute. Ez dira beheantze irekiko9.17-A
- Ateak/tranpolak kanpoaldean ateak arrisku-kartel bat izan beharko du9.18-A

B3.9.2.– Makina-gelaren barrualdea.**Luze-zabalerak.**

Altuera 2 m izan behar da lan-gunean eta 1,80 m gainerako lekuetan.

Maniobra-koadroaren aurreko sakonera gutxienez 0,70 m.

Maniobra-koadroaren aurreko zabalera gutxienez 0,50 m edo panelaren edo armairuaren zabalera osoa.

Mantentze-lan, ikuskapen eta erreskaterako gutxieneko azalera horizontala, mugimenduan dauden aldean 0,50 x 0,60 m.

Pieza birakarien gaineko leku librea, gutxienez 0,30 m.

- Makina-gelaren barruko dimentsioak ez dira egokiak 9.20-A

a) Hormak, sabaia eta zorua (6.3.1).

- Ateek erresistentzia egokia izan beharko dute, ez dute material erregarririk izango, eta ez dira egoera txarrean egongo 9.21-A

- Bankadaren aldean edo makinaren inguruan, makina-gelaren zoruak irrist egiten ez duena izan beharko du 9.22-L

- Sabaia ez da izango egurrezkoa eta ez da egongo egoera txarrean 9.23-A

- Ez da egongo zulorik, salbu eta kableentzakoak, makina-gelaren aireztapenarentzakoak edo baoarenak, zeintzuk saretxoekin estalita egongo baitira 9.24-A

b) Barandetarako eta bankadarako sarrera (6.3.2.4).

- Makinaren bankadarik badago, gelako zorutik altxatutakoa, sartzeko eskailera edo mailak egongo dira, baldin eta 50 cm-tik gorakoa bada altuera 9.25-A

- Zorutik gora, gutxienez 50 cm-ra badago bankada, albo orotan jarri beharko dira babeskiak eta 90 cm-ko barandak 9.25-A

c) Kanpoko instalazioak (6.1.1).

- Baoaren barruan igogailuaren zerbitzuari ez dagokion instalaziorik (TB instalazioak, telefono-instalazioak, argindarrarenak, gasarenak, etab.) ez dagoela egiaztatu 9.26-A

d) Hormak zeharkatzekoak (6.3.4).

- Objektuak jausi ez daitezen, hormak pasatzeko zorro batzuk egongo dira, zoruaren nibela 50 mm-tan gaitzen dutenak. 9.27-A

e) Kakoa edo erraildun haga (6.3.5).

- Kakorik edo erraildun hagarik ez egotea akats gisa azalduko da 9.28-A

f) Kanpoko materialak (6.1.1).

- Kakorik edo erraildun hagarik ez egotea akats gisa azalduko da 9.29-A

B3.9.3.– Beste batzuk.**a) Aireztapena (6.3.5).**

- Makina-gelak aireztapena izan beharko du, ahal dela kanpora. Atean edo aireztatutako beste lokal batean dagoen sareta baten bitartezko aireztapena baimenduko da 9.31-A

- Nahita itxi daitekeen aireztapen-leihorik badago, hori akastzat jasoko da (leio horiek katigatze-sistema bat izan behar dute, zeinak ez baitu utziko baimenik gabeko inork ireki ditzan) 9.32-A

- Aireztapenak dimentsio egokiak izan beharko ditu 9.32-A

Aireztapen artifiziala onartuko da, baldin eta berriztapen-ordu kopuru jakin bat ziurtatzen bada.

b) Tenperatura (13.3.6).

- Gailuren jarduna egiaztatuko da 9.33-A

c) Itoginak.

Makina-gelaren barruan itoginak egotea akats ARINTzat jasoko da.

- Koadro elektrikoari, makinari edo mugagailuari eragiten dieten itoginak akats LARRItzat jasoko dira 9.34-L-A

d) Igogailuaren liburua.

- Aparatuaren ezaugarriak eta mantentzeari buruzko liburu bat egongo da. Liburu hori ahal dela makina-gelan edo jabearen esku egongo da. Liburua baden eta ikuskapen ofizialei eta mantentzeari buruzko oharra dauden egiaztatuko da. Halaber, ohar egokiak eduki beharko ditu ebazpen berezirik gertatuz gero (hobia, ihesa, etab.), baita jarraibide-eskuliburuak ere mantentze, ikuskatze eta konponketa-lanetarako eta laguntza-eragiketarako (Zuzentarauaren I. eranskinaren 6.2)9.35-9.36-A

e) Larrialdietarako maniobra-jarraibideak

- Makinari eskuz eragiteko, larrialdietarako jarraibideak egongo dira makina-gelan eta kabina solairuan dagoela egiaztatzeko modua jasoko dute. Jarraibide horiek erraz interpretatzekoak izan beharko dira9.37-9.38-A
- Solairu-ateetako giltza bat egongo da makina-gelan; giltza hori erabiltzeko, larrialdietarako jarraibideak egongo dira. Jarraibide horiek erraz interpretatzekoak izan beharko dira9.37-9.38-A

f) Teilaturako sarrera makina-gelatik.

- Ezingo du egon makina-gelatik teilaturako sarrerarik. Sarbide horiek gutxienez saretxo batekin estali beharko dira (Ekonomia dela-eta, ez badago beste sarrera bat egiteko arrazoizko aukerarik, ez da jasoko akastzat, baldin eta sarrera horrek giltza edo giltzarrapoa badu, jabetzaren arduradunak kontrolatzen duena)9.39-A

B3.9.4.– Instalazio elektrikoa.**a) Argiztapena (6.3.6 eta 13.6).**

- Badela eta funtzionatzen duela egiaztatuko da9.40-A
- Makinak eta maniobra-koadroak argiztapen egokia izan beharko dute, 200 lux-ekoa edo hortik gorakoa9.41-A
- Lanparak zorro finkoa izan beharko du9.42-A
- Argiztapenaren etengailua indar-etengailuarekiko eta gainerako zerbitzuekiko apartekoa izan beharko da9.43-A

b) Korrante-hartunea (6.36).

- Gutxienez korrante-hartune bat izango da (entxufea)9.44-A

c) Etengailu orokorra.

- Aparatu bakoitzeko katigatu daitekeen etengailu orokor bat egongo da, indarra fase guztietan eteten duena (omnipolarra) eta kalibratua dena (magnetotermikoa edo fusible bidezkoa)9.45-A
- Ez da onartuko etengailu diferentzial bat etengailu orokortzat hartzea.

d) Babes diferentziala.

Babes diferentziala egongo da, bai indar-zirkuituan eta bai argiztapenarenean ere, eta makina-gelan egon beharko dira.

Instalazioan lurreko konexio ekipotentzial eragingarriak ez badago, argiztapenaren diferentziala 30 mA izango da.

- Babes diferentzialik ez badago9.46-L
- Makina-gelan ez badago9.00-A
- Probak egiteko botoia sakatuaz egiaztatuko da diferentzialen funtzionamendua (ez da beharrezkoa diferentzialen sentikortasuna neurtzea, nahiz eta neurtu egin daitekeen)9.47-L

f) Maniobra-koadroa.

Igogailu-zerbitzutik kanpoko pertsonak aurrean izateari dagokionez, babes-maila egokia izan beharko du.

Tentsiopean dauden aldeekin kontaktu akzidentalak izateko arriskuari aurre egiteko gutxienez IP 2X-ko babes-maila izango du atea zabalik delarik.

- Koadroaren babes-maila ez da egokia9.01-L

POLEA-GELA (6.7.1)**B3.9.5.– Polea-gelaren baldintzak (6.7.1).**

Material iraunkorrekoa izango da; neurriak nahikoak izan beharko dira, langileak ekipamendu guztietara modu erraz eta seguruan hel daitezen (6.7.1.2.1), sabai azpiko gutxienezko altuera 1,5 m izango da (6.7.1.2.2), poleen gainetik gutxienez 0,30 m-ko leku librea egongo da (6.7.1.2.3).

a) Sarbidea.

- Makina-gelarentzako zehaztutako baldintza berberak bete beharko ditu polea-gelarako sarrerak (ikus eranskin honetako 9.1.a puntua) 9.11-A

b) Ateak eta tranpolak (6.7.1.3).

Sartzeko ateen neurri hauek izango dituzte: gutxienezko altueran 1,4 m x gutxienezko zabaleran 0,6 m, eta ezin izango dira barrualderantz ireki (6.7.1.3.1).

Sartzeko tranpolak erabiltzen badira, neurri hauek izango dituzte: 0.8 m X 0.8 m, eta 0,20m x 0,20m-ko azaleran 1000na N-ko pisua duten pertsona bati eusteko modukoa izango da (6.7.1.3.2).

Ezin izango dira beherantz ireki, ez badaude eskala tolesgarri bati lotuta, eta irekita daudenean babeskiak izango dituzte (baranda).

Ate edo tranpolek giltzadun sarraila izan beharko dute, giltzarik gabe ireki ahal izango dira (6.7.1.3.3), eta abisu-kartela izan beharko dute.

- Behar bezalako neurriak eta erresistentzia dauzkan sarbideko atea egon beharko da 9.16-A
- Ateak arauzko sarraila bat izan beharko du 9.17-A
- Arrisku-kartel bat egongo da 9.18-A

c) Argiztapena (6.7.1.7).

Argiztapen iraunkorra egon behar da, gutxienez 100 Lux-ekoa, poleen gainean. Argi horiek, polea-gelarako sarbidean dagoen etengailu batekin kontrolatuko dira.

- Argiztapena badela eta funtzionatzen duela egiaztatuko da 9.40-A

d) Gelditze-etengailua (Stop) (6.7.1.5).

Polea-gelan eta sarbideetatik hurbil geldialdi-gailua egongo da

- Gelditze-etengailua badagoela eta funtzionatzen duela egiaztatuko da 9.55-L

e) Korrante-hartunea (6.7.1.7).

- Entxufea badela egiaztatuko da 9.44-A

f) Sabaia.

- Sabaia ez da izango zurezkoa 9.57-A

g) Zorua.

- Polea-gelak egurrezko ez den zorua izan beharko du, material irristagaitzekoa, zementuzkoa edo txapa ildaskatuzkoa, irekiguneak ahalik eta txikiak izango dira, 50mm-ko horma-zeharkatzaileak izango dituzte, lauzatik kanpo aterako direnak (6.7.1.4) 9.58-A

h) Segurtasuna poleetan (9.7.1).

Inbertsio- eta desbideratze-poleek, polea-gelan daudenean, babeski egokiak izan beharko dituzte, EN 81 arauaren 9.7.1 puntuko 2. taulan eta eskuliburu honetako 9.6.b puntuan ezarritako irizpideen arabera.

- Polearen segurtasuna (zehaztu) ez da nahikoa 9.62 eta 9.63-A-L

i) Tenperatura (6.7.1.6).

Izozteak edo kondentsazioa gertatzeko arriskua badago, edo barnean ekipamendu elektrikorik badago, giro-tenperatura makina-gelan dagoenaren antzekoa izan behar da

- Polea-gelan ez dago tenperatura egokia 9.33-A

TRAKTORE-MULTZOA (12).**B3.9.6.– Traktore-multzoa eta bere balazta-elementuak (aparatu elektromekanikoak).****a) Traktore-polea.**

- Polearen higadura linterna batekin begiz egiaztatuko da, kableek estugunearen hondoa ez dutela ukitzen eta ez dutela irrist egiten egiaztatuz 9.61-L
- Kableek polean irrist egiteko posibilitatea egiaztatuko da. Erreferentzia gisa, honela egiaztatu ahal da: Kabina ibiltarte muturretariko batean izanik, klarionaz edo antzeko zerbaitez kableen eta polearen posizioa markatuko da. Joan-etorritako ibiltarte osoa eginda. 1:1 neurriko esekiduretan irristadura 5 cm-tik gorakoa bada edo makina behean delarik edo esekidura diferentzialetan 8 cm-koa bada, akatsa jaso egin beharko da 9.61-L

b) Kableak irteteari, harrapatzeari eta objektu arraroak sartzeko arriskuari kontra egiteko babeskia (9.7).

Poleen babeskiak egiaztatzeko hau hartu beharko da kontuan:

Igogailua instalatu zen data jakin behar da, zehazteko aplikatu behar den UNE EN 81-1 eta 2:1998+A3:2009 arau indarrean jartzean, arau horretan zer azaltzen baita:

Babeskiek, polearen motaren eta kokalekuaren arabera, honako arrisku-mota hauek saihestu behar dituzte:

- Gorputzeko istripuak.
- Hodietatik kableak edo pinoietatik kateak irtetea, lasaituz gero.
- Kableen eta hodien artean eta kateen eta pinoien artean gorputz arrotzak sartzea.


Oharra: Esekidura-polea, zein motatakoak eta zein lekutan dauden kontuan hartuta, honela babestu beharko dira:

ESEKIDURA-POLEEN EDO PINOIEN KOKALEKUA (Igogailu elektrikoak eta hidraulikoak)			ARRISKU-MOTA		
			a	b	c
Kabina (edo kabinaren parean, hidraulikoetarako)		Sabaiaren gainean	X	X	X
		Zoruaren azpian		X	X
Kontrapisua edo orekatze-masa				X	X
Makina-gela			X ⁽²⁾	X	X ⁽¹⁾
Polea-gela				X	
Baoa	Baoaren goiko aldea	Kabinaren galiboaren gainean (kabinaren gainean)	X	X	
		Galiborik kanpo (ondoan)		X	
	Hobiaren eta baoko goiko aldearen artean			X	X ⁽¹⁾
	Hobia		X	X	X
	Abiadura-mugagailua (edo haren parean) eta bere tenkatze-polea			X	X ⁽¹⁾
Zilindroa (H)	Burua goian		X ⁽²⁾	X	
	Burua behean			X	X ⁽¹⁾
	Sinkronizazio-gailu mekanikoekin		X	X	X

Argibideak:

X Arriskua kontuan hartu behar da, eta horregatik poleak babestu behar dira.

X⁽¹⁾ Hau eskatzen da baldin eta kableak / kateak poleetan horizontalki edo horizontalaren gainetik gehienez 90°-ra arteko angeluarekin sartzen badira.

**Babesa behar du****Ez du babesik behar**

X⁽²⁾ Babesa, gutxienez, kableen (edo kateen) eta poleen (edo pinoien) konbergentzia-guneak estaliko dituen gailua izan beharko da.

Erabiltzen diren gailuek hau bete beharko dute:

Gailuak muntatzean, atal birakariak agerian geratu behar dira, eta ikuskapen- eta mantentze-eragiketak ez dira oztopatu behar (9.7.2).

Ikuskapenetan eta aldizkako mantentze-lanetan kendu behar diren babeskiak, ekipamenduari lotuta geratu behar dira (A3-0.3.19).

- *Desmuntatzeko modukoak izan behar dira.*
 - *Behar bezala finkatuta egon behar dira.*
 - *Ez dute oztopatu behar polearen funtzionamendu normala.*
 - *Ez dituzte oztopatu behar ikuskapen- eta mantentze-eragiketak, eta hauetarako soil-soilik desmuntatu beharko dira:*
 - *Kableak / kateak aldatzeko.*
 - *Polea / pioia aldatzeko.*
 - *Hodia berriro torneatzeko.*
 - *Atal birakariak (hagunak eta ardatzak) agerian geratu behar dira. Ez dira onartuko txapazko kaxoi itxiak.*
- Zulatuak izanez gero, irekiguneek EN 13875 Arauaren 4. taula bete behar dute.*

Poleetan, kableak irteteari kontra egiteko babeskia dagoela egiaztatuko da begiz.

- Babeskirik ez badago edo egokia ez bada (ekipamenduarekiko lotura barne dela (A3-0.3.19)9.62-A
- Poleetan begiz egiaztatuko da harrapatzeari eta objektu arraroak sartzeko arriskuari kontra egiteko babeskia dagoela (EN 81-1en 9.7 puntuaren arabera, hala badagokio)9.63-A

c) Itsaspena.

- Kontrapisua bere topeetan bermaturik dagoela, kabinaren goranzkoan eraginez motorrari, kableek polean irrist egiten dutela egiaztatuko da. (Jausgailuaren proban, eranskin honen 3.4.b puntuan zehaztutakoan, egin daiteke egiaztapen hori). Itsaspena gehiegizkoa bada, kabinari irrist eginaraziz, hori akats gisa jasoko da9.64-L

d) Balazta.

Begiz egiaztatuko da balaztaren egoera orokorra, sistemaren lasaierak eta higadurak egiaztatuaz (malgukiak, giltzadurak,...) Eszitazioko korrante elektrikorik ez dagoenean edo maniobrak zirkuitua irekita ez dagoenean balaztak automatikoki funtzionatzen duela egiaztatuko da, bereziki maiztasun-aldaketaren bidezko abiadura-kontrolaren maniobra-koadroa duten igogailuetan.

- Faserik ez izateagatik hondatuta badago edo huts egiten badu, edo mekanismoa ale bakarrekoa bada9.65-9.66-L
- Begiz egiaztatuko da balaztatzekoa egoera onean dagoela9.67-L
- Balazta-danborraren egoera egiaztatuko da begiz9.68-L

e) Desbideratze-polea.

- Higadura egiaztatuko da9.69-A

B3.9.7.– Multzo hidrauliko eragilea (jasogailua).

a) Presioa mugatzeko balbula.

- Zirkuitua hidraulikoki probatuko da, zilindrikoarekin konexioa egiteko mahuka ere bai (presioari gutxienez 10 segundoz eutsiz)9.71-L
- Zamarik gabe, igotzean eta funtzionamendu normalean duen presioa halako bitik gorakoa ez dela egiaztatuko da9.72-A-9.73-L

b) Jausgailu-balbula.

- Badela egiaztatuko da eta ahal bada bere funtzionamendua (kabina geldiarazten bada edo astiro jaisten bada, proba onartu egingo da)9.74-L
- Egiaztapena kargarekin ezin egin izan dela-eta, emaitza onik ezin lortu bada, akatsa jaso egingo da, oharretan «Kabinak karga duelarik egiaztatu beharko da jausgailu-balbularen funtzionamendua» jasoaz.

c) Kableak irteteari eta harrapatzeari kontra egiteko babeskia.

Pistoiaren buruko polean harrapatzeari eta objektu arraroak sartzeko arriskuari kontra egiteko babeskia dagoela egiaztatuko da begiz (EN 81-2ren 9.4 puntuaren arabera).

- Ez badago edo egokia ez bada9.75-A

B3.9.8.– Makinaren egoera orokorra.**a) Aparatu elektromekanikoetan.**

Makinaren egoera orokorra egiaztatuko da, honako hauek egiaztatuz:

Lasaierak:

Polea eskuz mugitzen ahalegindu.

Makina gelditzean polearen mugimendu arrarorik dagoen begiratu da.

- Garrantziaren arabera, akatsa larria edo arina izan daiteke9.81-A-L
- Olloa galtzea9.82-A-L
- Makinaren zarata arraroak9.83-A-L
- Makinaren bibrazio handiegia9.84-A-L
- Makinaren egonkortasuna. Ikadura egiten denean makina finko dagoela egiaztatuko da (irauli egiteko posibilitatea)9.85-L
- Makinaren isolamenduen egoera (gomak, kortxoak,) narriadurak bastidorearen edo euskarriaren mailan aldea eragiten badu9.86-A-L
- Uhal trapezoidalik badago, egoera onean egon beharko dute, gutxienez 3 egongo dira eta tentsio egokia izan beharko dute (ez da onartzen eragiteko beste sistemarik9.87-A
- Gorago zehaztutako akatsetariko bat baino gehiago antzeman ezkerro, akats bat bakarrik jasoko da9.88-A-L

b) Aparatu hidraulikoetan.

Multzo hidraulikoaren egoera orokorra egiaztatuko da:

- Olloa galtzea9.82-A-L
- Manometroaren funtzionamendu txarra9.89-A

B3.9.9.– Larrialdietako eragintza.**a) Aparatu elektromekanikoetan.**

Kabina hurrengo geralekuraino eramateko eskuz jardutea eta balazta desblokeatzea ahalbidetzen dituen gailu bat izatea.

Erreskate-maniobra-egitean, kabina karga osoan mugitzeko beharrezkoa den esfortzua 400N-etik gorakoa bada, larrialdiko maniobra-bitartekoren bat izan beharko du etengabe (12.5.2).

- Eragiteko palankarik ez badago (makina-gelan) edo ez bada egokia.....9.90-9.91-L
- Gailurik ez badago edo egokia ez bada9.92-L
- Sistemaren funtzionamen egokia egiaztatuko da9.93-L

Bolanteak laua eta erradio bakoa izan beharko du (orekatze-zuloak bakarrik onartzen dira).

Galarazita dago biraderak erabiltzea.

- Zehaztuta egon beharko du bolanteak norantz jiratuko duen9.94-A
- Ez da izango atzamarrak harrapatuak izateko posibilitaterik9.95-L

b) Aparatu hidraulikoetan.

- Sistemaren funtzionamendua probatuko da9.96-L

c) Erreskate-sistema automatikoak (badaude).

Korronea falta dela, erreskate-sistema automatikoek segurtasunari dagokionez ezin dute ezer deuseztatu ezta zubirik egin ere.

- Sistemak ez badu funtzionatzen9.97-L
- Sistema ez bada egokia ez dira (ez dira onartuko marruskadura-sistemak)9.98-L

Aurreko puntuak, ondoko kasuetan bakarrik jasoko dira akats gisa: aparatuak izan behar ditutenean, edo kabinan hala adierazten bada) Beste kasu batzuetan (esate baterako, aparatu esperimentalak) sistema ez badabil, ez da zehaztuko 9.98 akatsa.

d) Kabinaren kokapena kontrolatzea.

